

Goienkaria

2009ko urriaren 16a > Egubakoitza > IX. urtea > 393. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Eskualde honetan autobus zerbitzu publikoa indartu nahi dugu"

Arantza Tapia
Mugikortasuneko foru diputatua > 07



G2a

Amaia Diaz de Monasterioguren dietista, idazle > 31

DEBAGOIENA
Bilkurak gaur hainbat herritan azken atxiloketak salatzen > 05

BERGARA
EAJk eskatu du Eduegi baserria babesteko AHTren aurrean > 17

KIROLA
Mendi bizikleta martxak izango dira Arrasaten eta Eskoriatzan > 29

EKONOMIA > NEKAZARITZA

Uzta ona izan da, eta txakolina halakoa espero dute ekoizleek

BATU DUTE Joan diren bi aste bukaeretan jaso dute uzta Debagoieneko eta inguruko txakolin egileek

POZIK Bailarako ekoizleek diote mahatsa ona izan dela aurtan eta, gainera, mahats asko batu dutela

BI AUKERA Ibarreko hiru egilek Getariako izendapenarekin salduko dute ardoa; beste batzuek etxerako egin dute > 02-03

ARETXABALETA > UDALA

Kiroldegiko zelaiaz batzarrak

Aretxabaleako Udalak, Kudeatuz programaren barruan, herritarrekin hiru batzar egingo ditu, kiroldegi aurreko zelaiarekin zer egin iritziak entzuteko. Datozen asteotan hasiko da prozesua. > 11



MAHASTIETAN Elorriko Esteñibar baserrian joan den aste bukaeran batu zuten mahatsa.

JOXE ARANZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Elkarrizketa > 07
Gutunak > 08
Herriak > 11-28
Kirola > 29-30
Kultura > 32-33
Gazteak > 34
Telebista-Irratia > 35
Saillatuak > 36
Berri-zakua > 37
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39

JENDARTEA > EUSKARA

Euskara hobetzeko saioak

Bergara, Arrasate eta Aretxabaleako mintzapraktika taldeetan zabalik dago izenematea > 04

JENDARTEA > ELKARTASUNA

Pobrezia desagerrarazteko ekimenak datozen egunetan

Bihar, zapatua, Pobrezia Amaitzeko Eguna da eta, horren harira, Debagoieneko Pobrezia Zero Plataformak hainbat ekimen egingo ditu bailaran.

Bihar, zapatua, kale agerraldia egingo dute Eskoriatzan. 13:30ean izango da hori, Herriko Plazan, eta, besteak beste,

pobrezia kontrako manifestua irakurriko dute. Bestalde, hilaren 22an, eguna, hitzaldia egingo da Arrasaten: *Emakumeak krisi garaian* delako gaia landuko du Mertxe Larrañagak, EHuko Ekonomia Aplikatua Saileko kideak. Kulturaren izango da, 19:00etan. > 05

'Ondo bizi' gehigarria

GOIENKARIArekin batera ahoko osasuna, edertzea eta umeen gaineko orrialde bereziak, barrualdean.





Karlos Mendizabal, mahatsa batuta.



Mahatsa dolarean sartzen.



Botilaratzea bakarrik falta da.

EKONOMIA > NEKAZARITZA

Mahats ona eta asko jaso dute txakolin egileek

IZENDAPEN OFIZIALA Lehenengo aldiz, Getariako Txakolina jatorri izenarekin merkaturatuko dute ardoa Debagoieneko hiru ekoizle handiek

DENETARIKOAK Arrasateko Kataide eta Otxia eta Oñatiko Upain dira salgai jartzen diren ardoak, baina etxerako egiten dutenak ere badaude ibarrean

NOIZ BATU Ekoizleek hainbat faktoreri begiratzen diote uzta noiz jaso erabakitzeko; aurten, gehienek aurreko bi asteotan jaso dute mahatsa

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Mahats-batzea egin dute Debagoieneko txakolin egileek. Egurdiaren eta eguraldi aurreikuspenen arabera, momentu egokiena joan den bi asteotan zela iritzi zioten, eta nork bere erara -etxe-koekin, lagunekin edo kanpoko laguntzarekin; eskuz edo maki-

naz, edo biak bateratuta-, aurten-go uzta jaso zuten.

Debagoiengan hiru ekoizle nagusi daude, txakolina komertzializatzen dutenak eta, 2007a ezkerro, Getariako Txakolina jatorri izenaren barruan daudenak: Arrasateko Egi Haundi (Kataide marka) eta Artazubiaga (Otxia

marka) baserriak eta Oñatiko Upain baserria (izen bereko marka). Jatorri izenean 2007an onartu zituzten arren, aurten komertzializatuko dute ardoa izen horrekin.

Horiez gain, maila apalagoan, etxerako egiten duten ekoizleak ere badaude.

IAZ, TXINGORRA

Debagoieneko ekoizleen esanetan, aurtengoa uzta "ona" izan da; iazkoa baino askoz hobea, edozein modutan, iaz txingorrek hondatu zuelako mahatsa. Denek diote mahats "sanoa" dela, "heldutasun puntu ona" duela... baina behar dena da, Egi Haundiko

Jabier Arregik dioen moduan, "jendeari gustatzea". Zenbat batu den ere pozik daude ekoizleek.

Ekoizle bakoitzak bere sistema edo estiloa dauka txakolina egiteko; batzuek Santo Tomas garairako gertu izango dute; beste batzuek, urtarril edo otsaile-rako.

Japoniako teknologia aurreratuena

ECHO



- Motozerra katalizatzailearekin
- CDI piztea
- Pizte erraza

Informazio
gehiagorako:

943 76 31 52

comercial **BRUNET**

- Motozerra elektrikoa

Telleria 2, Altos Hornos BERGARA Tel.: 943 76 31 52 - Faxe: 943 76 70 12
brunett@telefonica.net • www.comercialbrunet.com



ARGAZKIAK: PATXI LARRAÑAGA / LEIRE KORTABARRIA

Felix Etxagibel

OTXIA, EKOIZLEA

"Heldutasun puntu ona du mahatsak, eta inoiz baino sanoago irten da"

Urriko lehen aste bukaeran erabaki zuten uzta batzea Arrasateko Artazubiaga baserrikoek. Noiz batu jakitea ez da gauza samurra izaten: "Eguraldia zelan zetorren begiratu, mahatsa sasoi onean zegoela ikusi, eta batzea erabaki genuen; arriskatu egin ginen eta ondo irten zaigu, gero eguraldiak txarrera egin du-eta", esaten du Felix Etxagibelek. "Heldutasun puntu ona du mahatsak eta gaixotasun gutxi izan ditu aurtun, gainera; hemen, kostaldean baino gutxiago. Sanoa da".

Aurtun, Getariako Txakolinaren jatorri izenarekin komertzializatu ez ezik, txakolina egin ere Getaria aldean egingo dute arrasatearrok: "Getariako ekoizle bati eraman diogu mahatsa dagoeneko. Aurtun, proba hori egitea erabaki dugu", dio Etxagibelek. Baina, euren mahatsa izanda, Debagoienekoa, hemengo ukitua izango du, dudarik gabe: "Zaporea mahatsaren arabera da. Mahatsari zer sartzen diozun, hori irteten da. Bestalde, Getarian edo hemen, txakolina desberdina da, mahatsa desberdina delako".

Jatorri izen horrekin saltzarekin pozik daude Artazubiaga baserrikoek: "Ekoizle moduan, garestiagoa da, eta horrek prezioan ere eragina du; baina Getariako izena guretako ona da".

Jabier Arregi

KATAIDE, EKOIZLEA

"Ardoak denbora behar du, baina santamasetarako gertu egon daiteke"

Arrasateko Egi Haundi baserriko Jabier Arregi ere "pozik" dago, uzta batu dutelako eta itxura ona duelako eta urte osoko lan luzeak bere fruitu borobila eman duelako: "Lanak ondo egin ditugu, asmatu egin dugu, bai. Urterorurtero lan bera egingen dugu, baina batzuetan ondo eta beste batzuetan txarto irteten da; hori dauka nekazaritzak".

Nork bere estiloa eta teknika dauka, eta Arregi ez da salbuespena. Hiru alditan batu duenez mahatsa, orain "dena berdindu" egin behar du, ardo guztiak zapore bera izan dezan, eta, ohi bezala, mahatsa batu eta berehala sartu du baserrian dituen edukiontzi handietan. Irakin egin behar du, azkarritan ipini, garratzasuna jaitsi, hozten utzi... "Denbora behar du. Espero dugu Santo Tomaseta atera ahal izatea", esaten du Jabier Arregik.

Garrantzitsuena, jakina, jendearen gustukoa izatea da: "Ea jendeak erosten duen, hori komeni da-eta. Edozein modutan, uste

dut zapore onekoa izango dela, gustukoa; alkohol aldetik ere ondo dago".

Jatorri izenaren barruan egoteaz hauxe dio Egi Haundikoak: "Getariako Txakolina izendapenarekin salduko dugu, eta lagundu egingen du. Hala ere, guk hemen, inguruan, salduko dugu".

Karlos Mendizabal

MAILA TXIKIKO EKOIZLEA

"Izendapenean sartzea nahaste handiegia litzateke; etxerako egingen dut"

Karlos Mendizabal bergararra San Juan auzoko Amatiño baserrikoa da, eta bere kasua pixka bat berezia da aurreko hiru ekoiz-

leenganako; hala ere, ez da Debagoienean bakarra: maila apalagoan lantzen du mahatsa, eta etxerako egingen du txakolina.

Lan aldetik, ordea, aurrekoen oso antzera antolatu da bergararra, joan den aste bukaeran batu zuen-eta mahatsa.

Mendizabalek ere ondo ikusten du aurtengo ekoizpena: "Nahiko ona irten da, eta kantitate aldetik ere pozik gaude. 2008an oso-oso gutxi batu genuen". Ardoa zelan irtengo den galdetuta, hauxe uste du: "Graduazioa pixkatxo bat baxu geratuko da, baina tira... Euri asko egin du, eta mahatsak ez du nahi adina gozotasun hartu. Hala ere, ona irtengo da", espero du Karlos Mendizabalek.

Getariako Txakolina izendapenean sartzeko asmorik ez dauka, oraingoz: "Guretako nahaste handiegia izango litzateke; guk etxerako egingen dugu".

Mikel Irizar

ESTEÑIBAR, ELORRIO

"Aurtun ia 8.300 kilo mahats bildu dugu; oso emaitza ona hektarea bakarrean"

Elorrio gertuan dagoela eta Mikel Irizarrek Debagoienarekin harreman handia duela-eta, bailarako hainbat lagun joan ziren Esteñibar baserrira mahats-batzera joan den aste bukaeran. Hektarea bakarrak, 8.300 kilo mahats eman zituen. Hantxe izan zen ere Joxe Aranzabal arrasatearra, eta hauxe idazten du bere blogean: "Urtero legez, jende asko eta ona elkartu ginen Esteñibarren, eta lan egin ginen martxa eta umore ezin hobean". Pozik hasi eta pozik bukatu zuten. Komunikabide batzuen bisita ere jaso zuten.

Iñaki Gereka

UPAIN, MAHASTIEN ARDURADUNA

"Lursail txikiak ditugu, eta gakoa da kalitatea; horrekin jokatzeko dugu"

Oñatiko Juan Zelaiaren baserrian, Upainen, bukatuko dute Debagoienetik beranduen: seguruena, aste bukaeran batuko dituzten azken aleak Iñaki Gereka arduradunak, makinarekin. Uztaren zati handiena San Migel inguruan jaso zuten, makinaz eta, 6-8 bat lagunek, eskuz. Noiz batu behar den unean erabaki behar izaten da, hainbat faktorek agintuta: mahatsa zelan dagoen, eguraldia zelakoa den eta zelakoa aurreikusten den...

Sei bat hektarea hartzen dute Upaingo mahastiek, eta 13.000 bat kilo batu dituztela kalkulatu du Gerekek. "Kalitate oneko mahatsa da. 12 gradu inguruko graduaziorikoa irten zaigu aurtun", mahastien arduradunaren iritziz. Orain, mahatsa zaintzea tokatzen da, upategian, eta enologo batek zaintzen du prozesua. "Zaila da esaten, baina udaberrirako-edo gertu egongo dela uste dugu", esaten du Gerekek.

Upain, Getariako Txakolina agertuko da aurtun lehenengo aldiz txakolin botiletan. "Guretako, ona da hori; orokorrean, une gozoan dago txakolina, dena saltzen da", esaten du Iñaki Gerekek. Hori bai, izendapena berbera izan arren, ardo bakoitzak bere nortasun eta zaporea du: "Gakoa kalitatea da. Lursail txikiak daude zona honetan; bestetik, jatorri izenak mugatu egingen du norberak zenbat ekoizte dezakeen. Horregatik, kalitatearekin jokatzeko dugu".

Birziklatu ontziek bizitza luzea dute



*400 euroko saria

Zure etxean jasoko duzun inkesta orria edo www.debagoiena.com webguneko inkesta bete eta sar ezazu txartela, horretarako zure udaltxearen eta mankomunitatearen bulegoan jarriko diren postontzietan. Ikus kaxen kokapena www.debagoiena.com webgunean.

*Sari +

Urrian, GOTTiko Magazine saioan izango den lehiaketan parte hartu eta sari gehiago jasotzeko aukera izango duzu.

Debagoienean bizi diren adin nagusikoak eta bertako irabazi asmorik gabeko elkarteek hartu ahal izango dute parte lehiaketa hauetan. Oinarri guztiak www.debagoiena.com webgunean.

Parte hartu **birziklatuz irabazi*** kanpaina eta sari ederra eskura dezakezu! oinarriak: www.debagoiena.com

400 €

SARTU



Plastiko, lata eta brik ontziak

DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

ECOEMBES
BIRZIKLATZEKO BEHEZTU

EUSKARA > IKASTAROAK

Mintzapraktika programetarako izenemate epea zabalik dago

Aretxabaletako Barriketan, Arrasateko Zaharberri eta Bergarako Berriketean taldeetan parte hartzeko urrian eman daiteke izena

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Debagoieneko mintzapraktika egitasmoetako izenemate epea zabalik dago. Barriketan, Zaharberri eta Berriketean taldeetan parte hartu gura dutenek Aretxabaletako Udaleko Euskara Zerbitzuan, Udal Euskaltegian edo Loramendi elkarteetan; Arrasateko AED Elkarteetan, Udal Euskaltegian edo AEK euskaltegian; eta Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuan, Jardun elkarteetan edo Udal Euskaltegian eman dezakete izena.

Mintzapraktika saioen aurkezpena egiteko prentsaurrekoa egin zuten martitzenean Bergaran. Helburua lagun euskalduna eskainiz euskararen erabilera bultzatzea eta zabaltzea dela esan zuten Jarduneko Maitane Ariza-



Maitane Arizabaleta eta Maitena Arana, prentsaurrekoan.

MIREIA BIKUÑA

ESANAK

"Euskaraz hitz egiten dutenak eta egiten ez dutenak elkartu gura ditugu"

Maitane Arizabaleta > Jardun

baletak: "Mintzapraktika programekin euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak euskaraz hitz egiteko ohitura ez dutenekin elkartu gura ditugu".

BI ETA BOST IKASLE ARTEAN

Mintzapraktikako talde bakoitza bi, hiru, lau edo bost lagunek

osetzen dute eta astean behin elkartuko dira. "Kideen zaletasunak, gustuak, adinak, bizitokiak eta ordutegiak kontuan hartuta egiten ditugu taldeak", esan zuen AED elkartearen kide Maitena Arana.

Bestalde, noizbehinka ekintza osagarriak antolatzen dituzte; besteak beste, ikastaroak, irteerak, bazkari eta afariak, ikuskitzuna eta kultura irteerak. Ikasturtea bukatzeko, Euskal Herriko mintzapraktika programetan parte hartu duten guztiak Minza Egunean elkartuko dira.

100 LAGUN BAINO GEHIAGO

Badira urte batzuk mintzapraktika saioak martxan daudena Aretxabaletan, Arrasaten eta Bergaran. Iaz 125 lagunek parte hartu zuten hainbat taldetan: Aretxabaletan 27 lagun ibili ziren sei taldetan; Bergaran 50 lagun 19 taldetan; eta Arrasaten 48 lagun 14 taldetan. "Adin guztietako pertsonak dihardute mintzapraktika saioetan. Dena den, zailena euskaldun zaharrak topatzea da. Beraz, euskaldun zaharrei gonbidapen berezia egin gura diegu", esan zuten.

> JARDUNALDIAK

Euskal diasporako gaiak landuko dituzte Arrasaten 50 ikerlarik

Euskal Herria mugaz gaindi nazioarteko VI. mintegia Arrasaten egingo dute hilaren 20tik 22ra. Hain zuzen ere, euskal diasporari buruzko ezagutzak sakontzeko 50 ikerlari bilduko dira. Besteak beste, parte hartuko dute Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako zuzendari Julian Zelaia; Kanpo Harremanetako eta Turismoko zuzendari nagusi Agustin Arostegik; eta Arrasateko alkate Ino Galparsorok.

> AZPIEGITURAK

Mazmelako tunela zulatze lanak bukatu berri dituzte

Adif enpresak Mazmelako tuneleko lanak bukatu berri dituela jakinarazi zuen eguaztenean Mikel Cabiecesek, Espainiako Gobernuaren ordezkaria EAEn. Lanak ikusten egon zen eta eskerrak eman zizkien AHTko lanetan ibili diren langileei. Gaineratu zuen AHTko lanek inpaktu ekologiko ahalik eta txikiena izatea dutela helburu. Eskoriatza eta Aramaio lotzen dituen tunelak 320 metro ditu.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK**BERNARDINO MAIZTEGI**

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER

Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL

Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK**AIERDI AHOLKULARITZA**

Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asejim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETAKO / Basabe ind. f-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK**JESUS LASKURAIN PEREZ**

BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

EKONOMISTAK**ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA**

ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behe
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**

ARRASATE / Otalora 16, solairuartera esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**

DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zenbakira.

PRESTAKUNTZA > DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

Gertu dago Hiri-Behatokia erabiltzen ikasteko programa

Informazio sozio-ekonomikoa lortzen eta kudeatzen ikasiko dute ikastaroan parte hartzen dutenek

Saioak

1. saioa
Urriak 20 eta 22, 17:00-20:00.

2. saioa
Urriak 27 eta 29, 10:30-13:30.

3. saioa
Azaroak 10 eta 12, 17:00-20:00.

4. saioa
Azaroak 17 eta 19, 17:00-20:00.

OHARRA: saioak Debagoieneko Mankomunitatean izango dira.

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak Hiri-Behatokia aurkezteko eta erabiltzen ikasteko prestakuntza programa antolatuta du. Horren gaineko formazioa doakoa izango da eta izena emateko edo informazio gehiago lortzeko 943 79 30 90 telefono zenbakira deitu edo enpresa@debagoiena.net helbide elektronikora mezua bidal dezaketek interesatuek.

Hiri-Behatokia udalerrri, eskualde, lurralde historiko eta

Autonomia Erkidego mailako informazio sozio-ekonomikoa lortzeko eta kudeatzeko tresna bat da. Erabiltzaile bakoitzak, beharren arabera, hainbat iturritatik hartutako datuak aztertzea

eta erabiltzea ahalbideratzen du. Guztira, 684 adierazle batzen ditu hiru arlotan sailkatuta: lurraldea eta ingurumena; gizarte kohesioa; eta ekonomia eta lehia-kortasuna. Programa horren helburua da eskualdeko enpresa eta erakundeetako pertsonen artean ezagutaraztea.

SEI ORDUKO IKASTAROA

Horretarako, Mankomunitateak sei orduko ikastaro laburrak gertatu ditu. Parte-hartzaileek hiru orduko bi saio egingo dituzte.

Horren bidez, Mankomunitateak hainbat beharri erantzun nahi die. Besteak beste, maila ezberdinetan dagoen informazio ezari erantzun eta profesionalak informazioaren azterketa eta tratamenduak daukan garrantziaz jabetzea bilatzen du.

etxeko leihotik



Eneko Azkarate > 'eazkarate@goiena.com'

Estatuak estutu eta estutu egiten duenean

Azken su-eten sasoiaren 2006an. Gaur egun espetxean dauden Batasuneko bi kide bergarar itxaropentsu zeuden prozesuarekin. Baikorregi. Legez kanporatutako markak ordezkatzeko dituen ezker abertzalea ikusten zuten abertzaletasunaren erreferente nagusi etorkizun hurbilean. Handik hilabete batzuetara, bake prozesua okertzen zebilenean, zera komentatu zidan Batasuneko bi kide bergarar horietako batek: "Kantabroi horrek izorratuko gaitu". Rubalcaba barne ministroaz ziharduen. Aurtengo udan, oportuntan nengoela, zera entzun nion ministroari: "ETAren jarduna gaitzetsita ere, ezker abertzalea legez kanpokoa izango da, ETAK dirauen bitartean", epaileei aurre hartuz eta Otegi estu hartuz. Zur eta lur laga ninduen. ETAren biolentzia gaitzestea ez zen, bada, hauteskundeetara aurkeztu uzteko baldintza? Aste honetan, bide politikoen alde lanean ziharduten ezker abertzaleko buruzagiak atxilotu ditu Garzonek.

ETA soberan dago eta haren jardunak ezker abertzalea ez ezik abertzaletasun osoa galbidean jartzen du. Begibistakoa da. Eta, horregatik, abertzaleek hausnarketa sakona egin behar dute. Estatu ez demokratiko lotsabako honi erantzuteko estrategia eta metodo berri, eraginkor eta inteligenteagoak behar dira. Zeinek gidatuko du, ordea, erantzun hori? Hor dago koska.

"Estatu ez demokratiko honi erantzuteko molde berriak behar dira"

> **Hauteskundeak** bi urte barru dira. Udalak berritzekoak. Eta, ikusitakoak ikusita, ematen du aurpegi berriak izango ditugula ibarreko alkatetza gehienetan. Seguruen, egoera bereziak baldintzatuta eta ez herritarren nahiak.

> **Egunkari** bat argitaratzearren kartzelan dagoen beste bergarar batek, Elkorok, zioen, duela 30 urte Estatu ahul zegoela eta orduan egin behar zela gogor. Egun, gero eta indartsuago dago eta haren aurka hordagoka ibiltzea ez da zentzuzkoena.



JULEN IRIONDO

Iban Etxebarriaren kontrako epaiketa salatzeke, gose greba Huhezin

Martitzenean itxialdia eta gose greba hasi zuten Mondragon Unibertsitateko Eskoriatzako fakultatean, HUHEZIn, bertako ikasle izandako Iban Etxebarria *Ezkerra*-ren aurkako epaiketa salatzeke. SEGiko kide izatea egotzita egunotan epaitzen ari dira Espainiako Auzitegi Nazionalan. Epaietarako dirauen artean 15 ikasle inguruk gose greba egingo dute Eskoriatzan, eta 25 batek itxialdia fakultateko areto nagusian.

GIZARTEA > DEBAGOIENEN POBREZIA ZERO PLATAFORMA

Pobreziaren aurkako ekimenak egingo dituzte

Eskoriatzan bihar kale-ekintza egingo dute, eta Arrasaten egunean, hitzaldia

egin eta jarraian, manifestuaren irakurketa eta informazio banaketa egingo dute. Trikitilariak, bitartean, ekimena girotuko dute.

'EMAKUMEAK KRISI GARAIAN'

Eguenean, urriak 22, Arrasaten, *Emakumeak krisi garaian* izeneko hitzaldia dago Kulturateko Jokin Zaitegi gelan. Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua Saileko kide Mertxe Larrañagak egingo du. Debagoieneko Pobrezia Zero Plataformak ekimenetan parte hartzeko gonbita egin du.

M.B. > BERGARA

Bihar, zapatua, Pobrezia Amaitzeko Eguna da, eta, horren harira, Debagoieneko Pobrezia Zero Plataformak hainbat ekimen egingo ditu bailaran. Bihar, pobreziarekin amaitzeko kale ekintza izango da Eskoriatzako plazan. 13:30ean hasi da hori, "pertsonen izoztea"

POLITIKA > ATXILOKETEN GAINEN BALORAZIOA

"Errepresioak ez gaitu desbideratuko Euskal Herri aske baten aldeko lanean"

Arrasateko Udal Gobernuak atxilotetak salatu ditu; Aralarrek eta Markel Olanok ere iritzia eman dute

M.B. > BERGARA

Martitzenean izandako ezker abertzaleko hainbat kideren atxiloteten harira, Arrasateko Udal Gobernu Taldeak "elkartasuna" adierazi nahi izan die atxilotuei eta ingurukoei; eta "sumindura eta ardura larria" azaldu. Izan ere, operazio horren helburuak, "oinarri juridikorik ez izateaz aparte, helburu politiko oso zeha-

tza du". Talde horren ustez, ezker abertzalea abiatu nahian dabilen konponbiderako prozesua "ekiditea" da Espainiako Estatuak bilatzen duena. Dena den, gaineratu du: "Errepresioak eta ukazioak ez gaituzte desbideratuko Euskal Herri aske baten aldeko lanean egiten ari garen bidetik".

Bestalde, Gipuzkoako Aralar-ko koordinatzaile Oxel Erostarbek

egoera "larria" dela esan du. Erosarberen iritziz, "konponbidea, bakea eta normalizazio politikoa eskubideen sakontzetik bakarrik etorriko da, ez horiek mugatuz edo urratuz, ez jendea kartzelaratzetik".

Diputatu nagusi Markel Olanoren arabera, "Zuzenbidezko Estatuak ez du eragotzi behar ezker abertzalea ETatik aldendu dadin saiatzen eta bide demokratiko hutsen alde egiten ari diren pertsonen jardura politikoa".

ELKARREARATZEAK

Elkarretaratzeak ere badaude. Herritar talde batek deituta, Arrasaten, gaur, 19:00etan, manifestazioa irtengo da plazatik, *Aldaketa politikoaren alde, errepresioaren aurka* lelopean. Antzuolan ere gaur elkartzeko dira, 19:15ean, Zurrategin.



zabalik

Estepan Plazaola

Senidetzeak

Oñatik 1997an egin zuen lehen senidetze hitzarmena, Mexikoko Zacatecas herriarekin. Arrazoia, oñatiar bat izan zela herri haren fundatzailea. Harrezkero, mundu zabaleko beste lau herriekin ere senidetu zen Oñati. Gipuzkoan senidetzerik gehien dituen herria da gaur egun. Aurten ospatu dute, gainera, Chateaubernard Frantziako herriarekiko senidetzearen 10. urteurrena. Kasu horretan herrien arteko kultur harremanak bultzatu nahiak eraman zituen bi herriok senidetzeri. Solidaritatea izan zen, berriz, Oñati Saharako Gleibat el Fula eta Argentinako Jose C. Paz herriarekin harreman-terza bultzatu zuena.

Arrasate eta Argentinako Sunchales herria kooperatibismoak eraman zituen senidetzeri, biak baitira herri kooperatibistak.

Horien aurretik erne zen Antzuola eta Aiherraren arteko harremana. Eta baditu berezitasun interesgarriak. Lehenengoa, bi euskal herriren artekoa dela; nazio bereko sentitzeak eraman dituela 140 kilometrok, baina batez ere bi estatuko, bereizten dituzten herriok bat egitera. Bigarrena, senidetzearen ardura Aiherratarren aldetik, 20 urtean kultura elkarte batek eraman duela.

Uste dut hurbileko herrien arteko senidetzeak badituela bere abantailak, batez ere, lankidetzari hori gizarteratu eta elikatzeari begira. Herriko elkarteak, eskola-umeak, azken batean herri-arruntak, batean herri baten eta hurrengoan bestean biltzeak indar berezia ematen diola senidetze horri. Bestalde, senidetze honek erakusten du ez dela beharrezko bi udal izatea protagonismoa hartuko dutenak. Bi elkarte, bi ikastola... izan litezkeela. Bultzatzeko eredu.

ustek uste

Mirian Biteri


Skaterrek gune berria dute

Eskoriatzako gazteek dagoeneko ez dute bailarako beste herrietara joan behar skatean ibiltzeko. Zapatuan, kirol jarduera horretan hasiberriak direnendako zein abilezia dutenendako gune ederra estreinatu zuten tren geltoki zaharrean. Oraingoz, harrera ezin hobea jaso du eremuak: inaugurazio egunean, esaterako, ibarreko gaztetxo asko bildu ziren; baita aurreko eta ondorengo egunetan ere. Horrek erakusten du askotan ez dela diru askorik bideratu behar gazteak pozik izateko.

"Hurbileko herrien arteko senidetzeak baditu abantailak, batez ere lankidetzari hori gizarteratu eta elikatzeari begira"

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

Amatianoren ADNa

Luis Aranberri 'Amatiño'
www.eibar.org/blogak/amatino

Ezin gero orain 40 urte inguru asmatu, noizbait Bergarako *Seminario*-ko eliza itxiko zutenik, erdi-erdian zegoen hilobiaren gaineko harlauza jaso eta, azpian zetzan XVII. mendeko jauntxoaren senide ote nintzen ikusteko, ADNa egitea proposatuko zidatenik. Ba ez, ez da zientzia-fikzioa, ezta Toti Lezearen nobela-gidoia ere, gaur goizean bertan gertatua baino. (...)

Patua patu, gaur goizean Bergarara joan behar izan dut lanera eta, 11:25an, Seminarioko arkupeetatik pasatu. Baita eliza-atarian txartela ikusi ere: Indusketa. Bisita gidatuak, 11:30etan eta 4:30etan. Eta, ezin ba aukera-maukerari amain eman gabe jarraitu.

Hamar minutu aski izan dira jakiteko, eta argitzeko, Andres de Madariagaren ama Ana Martinez de Amatiño izan arren, eta Aurora Mendizabal gure ama ere Amatiñonekoa izan, mendizabaldarrak ez

zirela Amatiño leinukoak izan, ez, behintzat, 1848an Francisco Mendizabal (nere aitxixaren aitxix) Bergarako bertako Mendizabal jauretxea utzi eta Amatiño baserrira joan arte. Lastima gero.

Berandu, baina zorionak Euskaltzaindiari

Joxe Aranzabal
www.goiena.net/blogak/faroa

Opari ederra egin digu Euskaltzaindiak bere 90. urteurrenean: orain lau urte paperean amaitutako hiztegia, Orotariko Euskal Hiztegia, sarean ipini du. Hala ere, (...) OEH ez da libre izango, CC lizentzia "ez-komertziala" izango baitu.

Hala ere, zorionak Euskaltzaindiari. Seguruena, ez du asmatu moduan, baina bada zerbaite. Espero dezagun laster izango dugula aukera beru erabiltzeko Euskalbarren, eta tresna berriak sortuko dituela hiztegia zuzentzeko eta osatzeko, wiki moldeari dagokion eran.

koplak

Andere Arriolabendoa

Beldurraren gaixoak

Hotza hasi da eta birusak badatoz gure artera klinesik gabe jada ezin da kalera inor atera.

Nahiz bakunarekin batzuk / duten aurtengo negu hontan jai Gripe A ez dugu hartuko baina inguruko guztiak bai.

Ibili zaitez aurreratu nahian medikuraino bixita eskuak beti poltsikoan ta ahoa ondo itxita

Posible bada inolaz ere lantokian kutsatzea kasu horretan onena dugu lanera ez hurbiltzea.

Familia edo lagunaren bat sukarrarekin badago badaezpada farmaziatik pasatu zaitez lehenago.

Agintariak ez badira gu zentzudun izan gaitzen beldurra sortzeak ez du eta burukominik sendatzen.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailtako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarriko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Ixaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.



OID erakundeak
ikusketutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko
JaurlaritzaGipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiko
UdalaAretxabaletako
UdalaEskoriatzako
UdalaAntzuolako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagako
Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Debagoienak tranbia beharrezkoa duela dio Arantza Tapiak eta bultzatzen duela eskatu dio Jaur-laritzari. Baina, era berean, Jaur-laritzak beste lehentasun batzuk dituela jakitun da eta Foru Aldundiak alternatibak aztertzen diharduela dio. Hainbat herrialdetan abian dagoena eta BRT (Bus Rapid Transit) bezala ezagutzen dena ezarri nahi dutela dio, "Bus azkarra" Debagoienerako.

Arantza Tapia > Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatua

"Gure apustua da Debagoiengan indartzea autobus zerbitzu publikoa"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Arantza Tapiak Eusko Jaur-laritzan jardun zuen aurreko legegandian, Garraio Sailean. Orain, Gipuzkoako Foru Aldundian dihardu, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatua da eta. Garraio publikoaz dihardu hemen.

Zenbat erabiltzaile ditu txartel bakarrak?

150.000 txartel baino gehiago. Oso arrakastatsua izan da eta, horregatik, oso pozik gaude. Hobekuntzak sartzen joan gara apurka-apurka eta aurrerantzean ere espero dugu geroago eta erabiltzaile gehiago edukitzea eta hobetzen joatea eskaintza.

Aurreikuspenak, hortaz, bete egin dira?

Gainditu egin dira. Hasiera batean, bi eta lau urte bitartean, gehienez, erabiltzaile guztien %60ra iritsiko ginela uste genuen. Une honetan, %70ean gaude, espero baino hobeto.

Ze garraiobidetan erabil daitezke txartel bakarra?

Lurraldebus bezala ezagutzen ditugun autobus guztietan eta baita Irungo, Hernaniko eta Donostiako udalen bus zerbitzuetan ere. Orain gabilta harremanetan Renferekin eta Euskotrenekin konpainia horietako tren zerbitzuetan ere erabili ahal izateko eta espero dugu abendurako izatea hori. Bestalde, hau bai abendurako, lurraldeko taxieta ere erabili ahal izango da.

Batzar Nagusietan onartu egin duzue galdetzea Eusko Jaur-laritzari Debagoieneko tranbiaren gainean.

Jaur-laritzari eskatu diogu benetan egin dezala apustu Debagoieneko tranbiaren alde. Denbora luzea da proiektu hori mahaian gainean dagoela. Hainbat gorabehera izan ditu trazatuaren aldaketak direla-eta..., eta, une honetan, badirudi geldidagoela, dirurik ez dagoelako, beste lehentasun batzuk dituztelako... Proposamena da proiektu hori berreskuratzea, ze orain dela bost urte tranbia beharrezkoa bazen Debagoienerako, orain are eta premiazkoagoa da eta.

Debagoiendarrok sentsazioa daukagu tranbia ez dela egingo Debagoiengan. Zein da garraio publiko eraginkorerrako soluzioa hiriburutik urrunen dauden ibarrendako?

Legealdi hasieran, mugikortasunarekin lotutako plan estrategikoarekin hasi ginen lanean eta ikusi genuen bi eremu zeudela bereziki zaindu beharrekoak: Donostialdekoa eta Debagoienekoa. Eskualde honetarako tranbiaren egitasmoa geldidagoela kontuan izanda, alternatibak bilatzen hasi ginen eta pentsatu genuen zer egin garraio publikoa hobetzeko. Esku artean daukaguna da hainbat herrialdetan abian dagoena eta BRT (Bus Rapid Transit) bezala ezagutzen dena. Bus azkarra-edo izango litzateke. Errail bat garraio publikoari utziko genioke, tranbiaren aurrekaria izango litzatekeena. Hala, errazagoa izango da etorkizunean tranbia jartzea.

Gipuzkoa ondo eta modu orekatuan antolatuta dago demografia ikuspegitik; zerbitzuen aldetik...?

Beste herrialde batzuekin alderatuta orekatuta dagoela iruditzen zait, baina ez dago erabat orekatuta. Mugikortasunaren aldetik, Donostia inguruan, hau da, Lasartetik Irunera bitartean, bizi da eta mugitzen da Gipuzkoa osoko %60 baino gehiago. Zentzu horretan ez dago benetako orekarik. Baina batez ere Deba arroan eta kostaldean mugimendu handia egoten da lanerako eta aisialdirako. Horrek esan nahi du dena ez dagoela Donostia inguruan batuta. Zerbitzuen ikuspegitik, hobekuntzak egingo ditugu.

Donostialdeko metroarekin zer egin nahi da?

Lehendik zeuden hiru proiektuetatik abiatu gara: batetik, bazegoen Irun eta Hondarribirako tranbia proiektua; Donostiarako tranbia proiektua; eta, gero, Euskotrenek zeukan proiektua, Donostia eta Irun arteko trenbidea bikoizteko. Hirurak elkartuko bagenitu, hau da, lortuko bagenu tranbia moduko bat Hondarribitik Irunera doana, gero Euskotrenen linea eta, azkenik, Donostiara ailegatutakoan, berriro ere lur gaineko tren zerbitzu bat, lortuko genuke zerbitzu bakarrarekin beste herrialde batzuetan tren-tran moduan deitzen dena. Mugikortasunaren ikuspegitik zerbitzu ona ematen du eta, bestalde, hiria egiten laguntzen du Donostialde guztian barrena, ze autoak kentzen baititugu kaminotik. Gure helburua ez da Donostia barrurako lur azpiko metroa egitea.



Arantza Tapia, martitzenean Arrasaten.

XABIER URTZELAI

BTR DEBAGOIENAN

"Errail bat busari utzi nahi diogu, tranbiaren aurrekaria izango litzatekeena"

PASAIKO PORTUA

"Pasaiko herria porturaino iritsi da eta biztanleek tokia behar dute"

Hirigintza garapenaren gaineko mundu mailako kongresua hartuko du Donostiak datorren urtean, ezta?

Taiwandik etorri berri gara eta 34. kongresua egingo dugu Kursaalaren datorren urteko urrian. Pasaiko badia birgaitzeko egiten gabiltzan ideia lehiketa amaituta egongo da ordura eta egoki etorriko zaigu kongresua. Mugikortasuna, hirigintza ekimen eta parametroak, sorkuntza, berrikuntza, balioak... aztertuko ditugu, hainbat mintegi berezirekin.

Hondarribiko aireportua luzatzea ezinbestekoa da?

Aireportua hor dago eta baliabidea aprobetxatu beharra daukagu. Gaur egun, badaude beste aukera batzuk luzatu gabe ere aireportu hori erabiltzeko eta lehiakorra izateko. Londresen ikusi ditugu honen moduko aireportu txikiak eta segurtasun neurri bereziekin erabiltzen dituzte. Baina luza daitekeen edo ez jakiteko azterketa egingo da eta azterketa egin bitartean, egoera berezia onartuko zaio aireportuari. Eta Abiadura Handiko Trena abian jartzen denean aztertu beharko da aireportuak zer zerbitzu eskaini behar dituen, Autonomia Erkidegoko edo Miarritzeko beste aireportuekin zer-nolako elkarlana egin daitekeen... Gero, pista luzatu behar bada, egin dadila, baina baldintza guztiekin, ingurumena zainduz, afektatuei erreparatuta, neurriak hartuta...

Pasaiko zentral termikoa kritikatu izan da kutsagarria delakoan. Ordezka daitezke? Dagoen zentralik modernoena ez dela argi dago. Baina gaur egun bete egiten ditu bete beharreko baldintza guztiak, ingurumen aldetik-eta. Kanpo portua egiten denean, ordea, zentral hori itxi eta beste modernoago bat egin beharko dugu. Gipuzkoak behar du zentral termikoa.

Diputazioak bat egiten du Pasaiko badia eraberritzeko planarekin?

Gure apustua erabatekoa da. Pasaiko herria porturaino iritsi da eta biztanleek tokia behar dute. Ingurua biziberritu eta itsasoko aktibitatea kanpora atera behar da. Horretarako, kanpo-portua egin behar da. Badian badaude zerbitzuak hobetzeko: kultura, kirol, aisialdirako ekipamenduak... Eta etxebizitzarik gabeko ingururik ez dugu nahi. Oso konplikatuak dira, ze gauez bihurtzen baitira desertu modukoak. Lanpostuak jartzeko aktibitate ekonomikoa ere sustatu nahi dugu...

Kanpoko portuaren aurkako ahotsak ere badira...

Ahots kritikorik ez dute kontuan izaten, esaterako, Bilbora karga guztia eroan egin behar dela. Gaur egun, gure trenbide eta errepideek ez dute hori jasaten. Zentralizazioaren alde egiten dugunean guztiok galdetzen dugu zerbaitekin. Kasu honetan ere bai.

Hordago etsaiari

Garikoitz Iturbe
Aretxabaleta

Azken urteetan, Euskal Herriak bizi duen gatazkaren inguruan idatz daitezkeen liburuetako kapitulu askok hasiera bera izan ditzakete; ezker abertzalearen aurkako operazio berri bat... Behin eta berriz independentziaren aldeko sektorerik konprometituena, pausoak aurrera ematen gehien ausartzen den sektoreak, estatu espainiarraren faxismoaren atzaparrak ezagutu izan ditu. Baina nola uler daitezke inongo base judizialik dituzten eraso hauek ematea?

Nire ustez, eraso hauek ez lukete jarraipenik izango gainontzeko alderdi abertzaleek jarrera irmoagoa izango balute. Eraso ezberdinen aurrean aurreranzko pauso bat emango balute. Legez kanporatzeak aprobetxatuko ez balituzte beraien bozka zakua betetzeko. Udaletxe ezberdinetan herriaren hitza errespetatuko balute. PSOE

edo PPrekin inongo akordiotara helduko ez balira. Sarriago kalera irtengo balira... Zuen jarrera apalarekin, estatu espainiarrari oxigeno poltsa bat ematen diozue, hurrengo eraso baterako indarra eta legitimitatea emanez.

Ezin dugu horrela jarraitu. Euskal Herriak konponbide demokratiko bat behar du eta horretarako alderdi eta eragile ezberdinek eta baita jendarteak tinko ekin beharko diogu erronka horri. Txikitara jokatu beharrean, hordago bat bota beharko diogu estatu espainiarrari. Kartak mahai gainean daude, ez dago aitzakiarik.

Sustraia, enborra eta adarrak

Gurutz Garmendia
Azkoitia

Izenburuan aipaturikoa beste era batetara ere esan daiteke. Jatorria, gaur eguna eta etorkizuna, alegia. Jakinez gero nondik gatozen eta gaur

egungo egoera ondo ulertu ezker, etorkizunaren berri jakin dezakegu. Deitu historia edo aurre-historia berdin dio, historia beti errepikatu egiten baita. Eta jakin badakigu Erdi Arotik, behintzat, bai Debagoiena zein Debarrena ere, oso industrializatutako guneak izan direla eta ia seguru askozaz aurretik ere bai. Placencia de las Armasko herria agertzen zen hainbat arma, ingude edo iltzeren kaxatan. Eta Erdi Aroko plano batean ere, Placencia de las Armas agertzen da beste hiriburu gutxi batzuekin batera Baskoniako lurraldean. Mundu ezagutuko bazter guztietara irteten ziren Debarrena eta Debagoienero ibar arroetako burnioletan egindako produktuak.

Eta industriako zeregin haietarako, burnioletako matxinoek uraren indarra erabiltzen zuten euren burnioia ikaragarriak mugitzeko. Eta handik ateratzen zuten beharrezko zitzaien argindarra. Orain, aldiz, enborra bueltatuz gero, hori guztia bertan behera botata dago. Indar etxeetan argindar agortezina lortzeko aukera bikaina egon

arren. Debako bi arroak edo Azkoitia eta Urretxu arteko bidea, Aizpurutxo aldetik, toki aproposak dira argindarra ateratzeko ur saltoetatik. Eta bide batez, nola lehen sasoi batean izokinak eta amuarriak zeudenez gure ibai eta erreketan, berreskuratzerik ere badago arrain eder hauek.

Eredu berriak asmatu behar dira etorkizunerako eta bi erreferentzia garbi daude begien aurrean: alde batetik, Danimarka, Suitza edo bereziki Zeelanda Berriko ereduak daude. Herri aurreratutzat dauzkagu herrialde hauek eta toki hauetan hauxe ikusten da, Amalurra maite dutela. Bestalde, ordea, eta horren aurretik geure jatorria dauka. Sorraluzen ez ziren bizitzen hasiko toki zabala izateagatik. Hango aberastasuna erreka bizietan zegoelako baizik.

Lehen ondo zebilena orain ere bai eta sasoi hartan energia berriztagarriak erabiltzen zituzten. Behin eta berriz jaisten baita ura erreketatik behera, inongo kosturik gabe. Zoritxarrez, ordea, eta ditugun politiko eskasei eskerrak, oraindik martxan dauden indar etxeak gerra

garaiko teknologiarekin dabilta eta, sinesgaitza dirudien arren, dirua ematen dute oraindik ere. Ez al du inork ere pentsatu Ikerlaneko azken teknologia ezartzea zaharturiko eta ia guztiz desagertutako indar etxeetan? Zergatik ez dira indar etxe berriak egiten teknologia berriekin? Urarena argindar agortezina da eta etorkizunak horra bideratu behar gaitu ganorazko adarrak sendotzen joan daitezten.

ZUZENKETA

Urriaren 9ko GOIENKARIAn, gutunak sailean, *Erretiratuen kontzentrazioa* izeneko idatzian, zuzenketa bat egitea eskatu digute gutunaren sinatzaileek, Oñatiko LABeko erretiratuek. "Oñatiko erretiratu guztientzat Udalak emateko obligazioa daukan zerbitzu horiek ondo betetzen diren edo ez jakitea" da esaldi zuzena eta horren ordez argitaratu genuen hau: "Oñatiko erretiratu guztientzat Udalak emateko obligazioa daukan zerbitzu horiek ondo batzen diren edo ez jakitea". Hortaz, *batzen* zioen tokian behar zuen *betetzen*.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com



"Mi misterio del Interior" antzezlanarekin gozatu bazenuen, ez galdu Ron Lalá taldearen azken ikuskizun hau.

MUNDO Y FINAL

Taldea: Ron Lalá

Non:
Arrasateko Amaia Udal Antzokian.

Noiz:
Urriaren 18an, domekan, 19:30etan.

Sarrera: 10€

Sarrera salmenta

 SERVIKUTXA KUTXAZAIN-SAREA

943 00 12 00

www.kutxa.net



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Kutxa Gordailu Hobaritua

Zenbat eta kutxakoagoa izan, orduan eta interes handiagoa zuretzat.

Urteak igaro ahala harremanak hobeak, baita zure eta kutxaren artean ere. Horregatik, zure leialtasuna eskertzeko, eta ez hitzez bakarrik, Kutxa Gordailu Hobaritua eskaintzen dizugu. Gordailu honekin, zenbat eta gure produktu gehiago izan, orduan eta interes handiagoa zuretzat. Zatoz eta galdetu. Irabazian aterako zara.




zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 kutxa

Debagoieneko GREMIOAK



AROTZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03

T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa
- Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14

T: 943 79 16 10

F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

F: 943 79 68 21

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak
- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5

T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22

F: 943 71 55 15

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA

Arrasate

- Iturgintza

- Berogailua eta gasa

- Bainugelak

Kale Txiki 9 behea

Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa

- Berogailuak eta petrolio-produktuak

- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

T: 943 71 47 14 / 606 007 369

f.oyanguren@ctv.es

TXORROTA

Arrasate

- Berogailua eta gasa

- Galdarak aldatzea

- Obra integralak

- Zaharberritzeak

Bolibar dokorea 5, behea C

Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

F: 943 77 17 13

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak

- Berokuntza eta gasa

- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Hargintza lanak

- Bainugelako altzariak

- Berogailuak

- Erretenak ipini eta garbitzea

Santa Kurtz 7, 3. ezk.

Tel.: 620 178 046

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

- PVC leihoak

- Aluminio termikoko leihoak

- Poliuretanozko leihoak

Zigarrola 1- 8 pab.

Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate

- Metal aroztegia, PVC eta aroztegia

Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia

T: 943 79 11 35

F: 943 77 31 20

YOSU THERMIK

Arrasate

- Lehiho eta ate isolatzaileak

- PVC leihoak

- Aluminio termikoko lehihoak

- Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)

Kataide poligonoa 4 Pab.

Tel: 943 77 01 57

F: 943 77 03 21

IZBAR

BERGARA

- Leiho eta ate isolatzaileak

- Aluminio termikoak, PVC mota

ezberdinak

- Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak

- Horma apaingarriak barrualderako

eta imitazioak harri eta marmolean.

San Lorentzo industrialdea,

Urarte kalea 20

Tel: 943 79 69 91

LOREZAITZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza

- Ureztatzeko sistemak

- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean

- Pareztatzeak

- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-18 Oñati > 23 Aretxabaleta > 24 Eskoriatza > 25 Antzuola > 26 Elgeta > 27 Aramaio > 28 Gatzaga > 28




> **BERGARA**
Eduegi baserria babesteko asmoz, Legebiltzarrera jo du EAJK > 17



> **ARETXABALETA**
Asteak behar izango dira Eroskin egondako kalteak konpontzeko > 24



> **ESKORIATZA**
Perretxiko-batzea, Ezkurtxo eguna eta beste izango dute umeez > 25



> **ANTZUOLA**
Belen Azkarate: "Ilusioa egiten digu aitaitaren bertsoen liburuak" > 26



ARETXABALETA > AZPIEGITURAK

Atzealdean, kiroldegiko lanak ikusten dira; aurrealdean, zelaia.

Zer egin berdegune horrekin? Aretxabaletarrek izango dute hitza

LEIRE KORTABARRIA

BATZARRAK

Udala batzartu egingo da aretxabaletarrek, euren iritzia jasotzeko

BERDEGUNEA

Kiroldegiaren aurrean dagoen zelaiaren zer egin jakin gura du

LEIRE KORTABARRIA > ARETXABALETA
Kiroldegi berria izango denaren aurreko zelaiari zer burubide eman galdetuko die Udalak aretxabaletarrei. Hori egingo du herritarrek Udalarekin batera herriko kontuetan zeresana izan dezaten bultzatzeko Foru Aldundiak bultzatzen duen Kudeatuz programaren barruan. Xehetasunak landu behar ditu orain Aretxabaletako Udalak programa aurrera eramango duen Aztiker enpresarekin, baina Joxe Anjel Antxia zinegotziak, Kudeatuz programaren arduradunak Aretxabaletako Udalean, esaten du "seguruenik, azaro bukaeran"

egingo duela Udalak asmo horren berri emateko informazio kanpaina, eta hortik aurrera, hiru hileko epean bete beharko da partehartze programa.

Xehetasun horiek zehazten dituztenean ere erabakiko dute arduradunek zenbat lagunek parte hartuko duten eta zelan aukeratu dituzten; baina gauza batzuk erabakita daude: adibidez, hiru batzar izango dira, eta Udalak gura du "derrigorrez" parte har dezaten zeresan handien izan dezaketen talde edo eragileek: "besteak beste, kirol arloko ordezkariak, igerilekua eskatzeko sinadura-batzean parte hartu zutenek, eta gura dugu deialdi zabalera ere egin, betiere oreka bat gordez sexu, adin eta bestelakoak kontuan hartuta", esaten du Joxe Anjel Antxiak.

IGERILEKUA ESKATZEN ZUTEN

Kiroldegi berriko proiektua aukeratu zenean, lehiaketa bidez, erabakita geratu zen barruko igerilekua izango zuela kiroldegiak. Zelaian, hainbat kantxa edo instalazio txiki egitea proposatzen du proiektu horrek. Hala ere, obrak bi fasetan edo alditan egingo dira, eta zelaikoak gerorako

utzi dituzte; hortaz, bestelako proposamenak entzuteko eta aztertze aukera du Udalak.

Zelai horretan, kanpoko igerilekua egitea eskatu zuten herritar batzuek, eta horren aldeko sinadurak batu zituzten. Udalak aintzat hartzen du iritzia hori; edozein modutan, kanpoko eta barruko igerilekua, biak, "Aretxabaletarako ez dira bideragarriak", dio Joxe Anjel Antxiak.

"Kanpoko igerilekua egiteko aukera aztertu genuen, baina zerbait eragingarria egin gura genuen", esaten du. Udal arduradunek gura dute herritarrek "garbi" izan dezaten aukera hori zergatik baztertu zuen Udalak, eta batzarretan azalduko dizkietela: "Urte osoan zabalik eta erabiltzeko moduan egongo den zerbait egin behar dela uste dugu. Kanpoko igerilekua hiru hilabetean

erabiltzen da, eta ordu gutxi batzuk", esaten dute.

EZ DA LOTESLEA

Igerilekuaren aukera eta bururatzen diren beste guztiak batzar horietan landuko dituzte. Ondorioak datorren urte hasieran jakingo dira. Ez dira lotesleak izango, baina Udalak dio herritarren gogoak "ahalik eta gehien" betetzen saiatuko dela.



Grafiti bat garaje-ate baten.

LEIRE KORTABARRIA

Herriko garbitasunaren gaineko inkestak egingo dituzte

Kudeatuz programaren barruan, beste ekintza bat aurrera eramango du Aretxabaletako Udalak: herriko kale, plaza, lorategi eta txokoan garbitasunaz galdetuko du. Horretarako, urri bukaeran edo azaroan, telefonoz galdetuta bat egingo die Gizaker enpresak hainbat aretxabaletarri. "Gai horretaz galdetzea erabaki genuen, lehendik ere kezka hori bazutelako herritarrek", azaltzen du Joxe Anjel Antxia zinegotziak.

Horren aurretik, baina, Udalaren jardueraren gaineko inkesta orokor bat egingo dute, telefonozkoa baino jende gehiagori (2.500 edo 3.000 bat inkesta). Udalak hainbat arlotan egiten duen lanari puntuazio bat eman ahal izango diote herritarrek.



Gaur egun Zabaleta eremuan dauden jardueretako batzuk itxita daude, adibidez, eremuaren hasierako pabilioia.

UBANE MADERA

Zabaletarako onartutako jarduerak

- > Ostalaritza (goi mailako sukaldaritza).
- > Hotela.
- > Gimnasio, sauna eta halakoak.
- > Diskoteka eta dantzalekua.
- > 120 m² baino gutxiagoko jarduerak: farmazia eta parafarmazia, produktu naturalen denda, prentsa eta aldizkari saltokia, animalien denda, kutxazain automatikoak, fotokopia-denda eta antzekoak.

HIRIGINTZA > EGITAMU OROKORRAREN ALDAKETA

Zabaletan azalera handiko merkataritzagunea eraikitzea "debekatu" egin dute

Zinema areto, bolaleku, makina zibernetikodun jolastoki, billar eta antzekoak, eta umeendako jolastokiak ere ez dituzte onartuko

UBANE MADERA > ARRASATE

Zabaleta eremuan egin daitekeena eta ezin daitekeena egin zehaztu du behin betiko Udal Gobernuak oraingo astean.

Labur esanda, "debekatu" egin dute Zabaletan "azalera handiko merkataritza" gunea eraikitzea. Lehenago erabakita zeukan hori; orain egin duena da erabakia gauzatu eta behin betiko izaera eman.

DEBEKATUTAKO JARDUERAK

Eta ez hori bakarrik; "debekatu" egin dute, baita ere, beste honako jarduerak egin edo sortzea: zinema areto edo antzokiak, bola-

tokiak, makina zibernetikodun jolastokiak, billar eta antzekoak eta umeendako jolastokiak.

Horrez gain, etxebizitzarik ere ezingo da eraiki; ezin izango da zabaldu pertsona edo etxeetako ekipamendura zuzendutako edozein tamainatako merkataritza jarduerarik, eta industria astunak ezin izango da han kokatu.

BAIMENDUTAKO JARDUERAK

Aldiz, eraiki ahal izango dira honako negozio hauek: ostalaritza (goi mailako sukaldaritza); hotela; gimnasio, sauna edo antzekoak eta diskoteka edo dantzalekua.

Horrekin batera, negozio txikiagoak ere onartuko dituzte, adibidez: farmazia eta parafarmazia negozioak, produktu naturalen dendak, animalien dendak, prentsa eta aldizkari saltokiak, fotokopia-dendak eta antzekoak eta kutxazain automatikoak.

Hori guztiari zehazteko, Arrasateko Egitamu Orokorra, hau da, Arrasateko lurzorua antolamendua ordenatzen duen araudia aldatzea onartu du asteon Udal Gobernuak.

Aldaketok jendaurrean daude orain, gura duenak alegazioak aurkez ditzan.

EREDUA ALDATU BEHARRA

Ino Galparsoro Arrasateko alkateak Zabaletaren gaineko erabakia azaltzeko zera aditzera eman du: "Azalera handiak eta kontsumorako planteamenduak ez dira eredu egokiak, ez dira onargarriak. Besteak beste, herriari bizitzaren kendu egiten diote eta, gainera, Europako hainbat lekutan halakoak kentzen dabilta, eredu horri buelta ematen dabilta. Erosketetarako eta aisialdirako eskaintzen diren guneetan eboluzioa gertatu da. Beraz, gu ez gara hasi behar bultzatzen eredu garri ez diren eremuak".

EROSKIRENA, GELDI

Horren harira, merkataritzaguneekin lotuta, Arrasateko Udalean bada beste proposamen bat, kasu horretan Eroskik eginda daukana. Hain justu, Musakolako Eroski hipermerkatuak baimena eskatuta dauka saltoki hura handitzeko.

Bada, horren gainean Galparsoro alkateari galdetuta, hark aditzera eman du kontu hori "geldi" dagoela. Emandako xehetasunen arabera, oraingoz, Eroskik ez du berriro erakutsi Arrasateko hipermerkatua handitzeko asmorik.

GIZARTEA > EGOITZA BERRIAK ARRASATEN

Gizabidea Fundazioa Zarugaldera dator

Zarugaldeko 30. zenbakian izango du egoitza aurrerantzean Gizabideak

Mundukide Fundazioak ere konpartituko du etxe hori, eta Arrasatera etorriko dira Aretxabaletatik

U.M. > ARRASATE

Herentzia bati esker, Gizabidea Fundazioak Arrasaten izango du egoitza aurrerantzean, Zarugalde kaleko 30. zenbakian, hain justu ere.

Gizabidea Fundazioak, gainera, gonbita egin dio Mundukide Fundazioari etxea konpartitzea, eta bien artean erabiliko dute, bada, etxe hura.

Lehenengo, baina, berrikuntza obrak egin beharko dituztela azaldu du Miren Erdoziak,

Gizabidea Fundazioko idazkariak: "Burokrazia kontuekin gabiltza orain". Eta obra horiek egin ostean estreinatuko dute Arrasaten egoitza berria.

GIZABIDEAREKIN LOTURA ESTUA

Kontxita Azkarate 2007ko azaroaren 13an hil zen. Alarguna izanik (Jose Aialarena) eta Gizabidea Fundazioarekin zuen loturaren inguruetan erabaki zuen bere etxeari erabilera egokia emango ziotela fundaziokoek.



Zarugalde kaleko etxea, Gizabideari eman diotena.

U.M.

GIZABIDEA FUNDAZIOA

Fundazioari dagokionez, On Jose Maria Arizmendiarririk bizi izanako azken urteotan pentsatu eta gerora gauzatu zen egitasmoa da. Hain zuzen ere, 1981ean sinatu zuten sortze akta eta 1983an argitaratu zuten Estatuko Bule-

tin Ofizialean. Jakina, Mondragon Taldearen barruan dago fundazio hori.

Labur esanda, On Jose Maria Arizmendiarririk berak azaldu zuen Gizabidea Fundazioa "hezkuntza, lana eta aisialdia bera gizatiartzeko nahiaren"

emaitza dela. Eta, bide horretan, ikerketan, hezkuntzan eta formazioan sor daitezkeen beharrak asetzeko sortu zen fundazioa. Betiere, eraldaketa sozio-ekonomikoak bultzatze aldera.

Gizabidea Fundazioaren presidente kargua Fagorko presidentek hartu du urteotan. Adibidez, aurrengo presidentea Alfonso Gorroño goitia izan zen; 1990era arte jardun zuen karguan.

Gizabidea Fundazioaren jardunari dagokionez, berriz, besteak beste, Arizmendi Topaketak antolatu ditu 1986a ezkererako.

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Mundukide Fundazioa, berriz, "lan munduko elkartasuna herri pobreen garapenera bideratzeko" helburuarekin sortutakoa da. Helburu hori lortzeko, "esperimentzia kooperatiboaren baliabide eta ezagutzak" eskaintzen dizkiete komunitateei, gara ditzaten.

Ikuspuntu kooperatiboa delata, "bi alderdiek zerbait ikasiko duten eran eraikitzen" dute konpromisoa; "bakoitzak bestea aberastuko duen ekarpenak eginez".

HEZKUNTZA > ESPERIENTZIA ESKOLA

Ikasle kupoa guztiz beteta eman diote hasiera ikasturte berriari

Ekimenak iaz izan zuen arrakasta berretsi egin da aurten; 2010-2011 ikasturterako hasi da jendea izena ematen

ekimen horrek hasieratik arrakasta izan duen seinale.

AURTEN, 30 IKASLE

Hasi berri duten ikasturtean, Garazi Elortza eskolen koordinatzaileak adierazi duenez, arrakasta berretsi egin da: "30 ikasle berrik eman dute izena, eta ikasle kupoa beteta dugu". Are gehiago, datorren ikasturterako -2010-2011- hasi da betetzen itxaronzerranda. Izena emateko 230 euro ordaindu behar dira, eta badago zatika ordaintzeko aukera.

EMAKUMEZKOAK DIRA GEHIEN

Elortzak dioenez, "eskola guztietan gertatzen den moduan" ikasleen artean emakumezkoak dira nagusi. Martitzen eta eguernetan izango dituzte eskolak, 10:00etatik 13:00etara. Maiatzera arte irauango du ikasturteak eta, besteak beste, psikologia, geografia eta komunikabideak izango dituzte hizpide.

Berritasun nagusia da iazko ikasleendako jarraipenerako hezkuntza ikastaroa prestatu dutela; eguenero elkartuko dira.

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Eguaztenean banatu zieten diplomak iaz Esperientzia Eskolan parte hartu zuten ikasleei. Guztira 22 diploma banatu ziren 50 urtetik gorakoei zuzendutako



Eguaztenean diploma jaso zuten iazko ikasleak eta aurten izena eman dutenak, guztiak batera.

TXOMIN MADINA



GOIENKARIA

22 kilo onddo, bost lagunen artean

Argazkiko lagun koadrila perretxikotara joan zen martitzenean Nafarroa aldera. Zortea alde izan zuten, lau orduan guztira 22 kilo onddo -zuriak zein beltzak- batu zituzten-eta. Argazkian ikusten denez, gainera, ez dira nolanhikoak. Koadrila osoarendako izango dute hamaika onddo-nahaski egiteko lehengai nahikoa...

> POKERRA

Bi arrasatearrek hartu zuten parte joan den aste bukaeran 'Vitoria Poker Days' poker txapelketan

Pokerrak arrakasta du Arrasaten, eta, beraz, ez da harritzekoa jokari onak irtetea. Horien artean daude Kaiet Laskurain eta Larraitx Kortabarria. Biak izan ziren joan den aste bukaeran Gasteizen, Gorbeia merkataritza-gunean, *Vitoria Poker Days* deritzon txapelketan. Lan nahiko ona egin zuten arrasatearrek, maila altua nagusi den txapelketan: Laskurainek 143 parte-hartzaileetatik 20. postuan amaitu zuen; Kortabarria ez zen hain ondo ibili.

EDERTASUN NATURAL BATEGATIK

Foto-gaztetzea

Foto-sendotzea

Azido hialuronikoa

Botoxa

Gorputz mesoterapia



Lehen



Orain



Lehen



Orain



Lehen



Orain


Arduratuta zaude, zimur, orban, biguntasun eta zelulitisarekin...

Guk lagunduko dizugu!

Etorri gure udazken-neguko promozioak ezagutzera.



Lehen




Orain

n° R.P.S. 297 / 05.

AG
Amagara

Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09



Josemari Velez de Mendizabal erdian, 1949an jaiotako Jesus Mari Arze eta Elena Velez de Mendizabal lagunekin liburu eskuetan dutela, San Juan auzoan. IKER BARANDIARAN

ARGITALPENA > JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Bere belaunaldiarentzat omenaldi-liburua egin du

'1949 urtea. Arrasate eta mundua' liburuaren 300 ale kaleratu ditu lagunei oparitzeko, baina udaletxean eskura daiteke edo bestela Euskomedia.org-en

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
1949an jaiotakoek Arrasaten urtero egin ohi duten *kintadan* behin baino gehiagotan esan izan diote Josemari Velez de Mendizabali sasoi horren gainean idazteko. Eta hala egin du: esku artean dauka dagoeneko *1949 urtea. Arrasate eta mundua* izeneko lana, 80 orriko liburu arin eta irakurterraz, bere hitzetan "xumea".

ORDURA ARTE INFORMAZIOARIK EZ
"Gure sasoi jasotzen duen literatura oso gutxi dago eta 1949ko oso gertaera gutxi jasota daude;

hortaz, han eta hemen arakutzen hasi nintzen", azaldu zuen idazleak eguaztenean Arrasaten egin zuen aurkezpenean.

Urte hartako egunkariak goitik behera irakurri zituen Arrasateko albisteen bila, eta oharutzan hedabideek Arrasate "ia ahaz-

tuta" zutela: "Askotan esan ohi dugu Donostiatik Arrasatera hemendik Donostiara baino distantzia handiagoa dagoela; eta hala islatzen da hemengo albisteen hutsunea ikusita".

Kirola izango litzateke salbuespen bakarrenetarikoa; hain zuzen ere, futbola eta pilota, bietan arrasatearren emaitzak oso esanguratsuak zirelako.

AURKIKUNTZAK EGIN DITU

Horrez gain, Arrasateko Udaleko osoko bilkuren gaineko aktak ere aztertu zituen. Eta aurkikuntza garrantzitsuak egin ditu: liburu prestatzeko hastapenetan jakin izan zuen Franco ohorezko alkate izendatu zutela 1949an; urte berean Domingo Arzamendi alkatea kargutik kendu zutela eta hauteskunderen ostean San-


tiago Bastida alkateak Arzamendiren alde egin zuela eta bide batez alkate haren desjabetzea egiteko erabilitako engainuak salatu zituela, besteak beste.

BIDEA ZABALIK UTZI DU

Velez de Mendizabalek azaldu zuen helburua ez zela liburu handi bat egitea, eta onartu du gauza batzuk kanpoan utzi dituela, "guztiak kontatzea ez delako komeni". Are gehiago, egileak bidea zabaltzeko gura du, beste idazle batzuek beste urte batzuk azter ditzaten.

Hala ere, 40ko hamarkadako bukaerako Arrasateren erretratu zehatza egiten du, hainbat bitxikeri deskribatuta: hala nola, Cerrajerako langile ezkongabeek 27,70 pezeta irabazten zutela eguneko eta ezkonduak, berriz, 33 pezeta. Horren aldean, etxebizitzak 45.000 pezetatan saltzen ziren, baina 1948an ezkonduetako 51 bikoteetatik zazpi bakarrak erosi ahal izan zuten etxea.

Bestalde, Gurea zinema areto bilakatu zen urte hartan eta Franco Monterron parkean izan zen, besteak beste.



Liburuaren azala.

ANTZERKIA > 'MUNDO Y FINAL'

Munduaren atzerako kontaketa ganberroa antzeztuta

Madrilgo Ron Lala taldearen 'Mundo y final' lanean umorea eta zuzeneko musika batuta

I.B. > ARRASATE
Etzi, domeka, Ron Lala taldeak *Mundo y final* antzezlana egingo du Amaia Udal Antzokian, 19:30ean. Madrilgo konpainia

horren helburua da munduaren txikizioa geldiaraztea edo hori lortuko ez balute, behintzat hori heldu bitartean ahalik eta gehien dibertitzea.

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



Antzezlako bost aktoreak musikariak ere badira.

RON LALA

Ron Lala antzerki konpainia oso arrakastatsua da. *Si dentro de un limón metes un gorrión el limón vuela* lanak sari ugari jaso zituen, baita *Mi misterio del interior* izenekoak ere.

UMOREZKO 20 ESKETX

Mundo y final lanean bost aktore eta musikaririk lan egiten dute, eta oso erritmo azkarrean 20 esketx eskainiko dituzte. Hala, atzerako kontaketa azkarrean

suntsitzera doan munduaren gaineko errepasso ironiko eta komikoa egingo dute. Gainera, gitarra, baxu, bateria eta perkusioarekin, rocka, flamenkoa, tangoa eta reggaea landuko dituzte.

SASKIBALOIA

MUK Ardoi hartuko du bihar Iturripen

X.U. > ARRASATE

Joan den astean Goierriren kantxan galdu ostean (95-77) Mondragon Unibertsitateak Ardoiren bisita izango du bihar Iturripen (18:00)

Ligako lehenengo partidua irabazi ostean, Zurbanoren mutilek denboraldiko lehenengo kolpea hartu zuten Urretxun. Hala ere, Arrasateko entrenatzaileak pozik egoteko moduko detaileak ikusi zituen partiduan zehar, nahiz eta markagailuko zenbaki hotzek horrelakorik erakusten ez duten: "Nahiz eta Goierri zelan jokatzeko duen jakin, ez genuen jakin euren jokoa zelan geratu", adierazi du aste barruan Zurbanok.

Biharko kontrario Ardoik, berriz, jardunaldi bakarra jokatu du orain arte, joan den astean atzeratu egin zuten-eta Lagunaken kontra jokatu beharreko partidua. Eta, jokaturako partidu bakarrean Ardoiko mutilak esku-hutsik geratu ziren.

> MENDIA

Orientazio ikastaroak antolatu ditu Besaide Mendi Elkartek

Mendi hamabostaldiaren barruan Besaidek bi orientazio ikastaro antolatu ditu, Goi Mendi Eskolako laguntzarekin. Urriaren 31n eta azaroaren 1ean iparrorratza erabilita orientazio ikastaroa egingo dute Irunen, Aia-ko Harrietan.

Azaroaren 7ko eta 8ko asteburuan, berriz, GPSa erabilita orientazio ikastaroa egingo dute Arrasaten eta Pagoetan. Ikastaro horietan esku hartzeko beharrezkoa da federatuta egotea, eta urriaren 19a eta 20a dira izena emateko egunak, Besaideko egoitzan (19:30-20:30). Informazio gehiago: www.besaide.org.

Iban Rodrigo > Tenis irakaslea

"Tenisean hutsetik hasi edo teknika hobetu gura duena etor daiteke hona"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Arrasateko Tenis Elkartek urteak egin ditu isilpean, baina herrian kirol hori sustatzeko lanean hasi dira berriro ere, eta ikastaroak antolatu dituzte. Klubeko ordezkariak Iban Rodrigo (Gasteiz, 1978) aukeratu dute ikastaroak emateko, zirkuitu profesionalean jokatzeko zer den ondo dakien gizona.

Orain dela gutxi hasi zarete Arrasaten tenis ikastaroak ematen. Zer moduz?

Oso ondo. Sei-zazpi laguneko bi talde osatu ditugu, baina oraindik lekua dago beste hiru talde egiteko. Oraingoan, eguaztenetan eta zapatu goizetan elkartzen gara tenisean egiteko, baina, alde horretatik, malgutasun handia dugu.

Horrenbestez, tenisean jokatzen ikasi nahi duenak badu lekua.

Bai, oraingoan, taldeak ez ditugu adinaren arabera antolatu, baina aurrerago hori da asmoa. Eta ikastarora datozenek berdin da hutsetik hasi behar duten edo apur bat jokatzeko dakiten. Denendako dago lekua; hau da, teknika hobetu gura duenarendako eta hutsetik hasi nahi duenarendako. Ikastaroen gaineko informazioa nahi duenak idatz dezala honako helbidera: AKE.TENIS@gmail.com.

Orain arte kirol instalazioak oztupo izan dira horrelako ikastaroak abian jartzeko.

Baina egoera hori aldatu egin da, Musakolako tenis kantxak oso ondo daudelako. Gozamina da estalita dauden tenis pista izatea, gu bizi garen lekuan, batez ere. Instalazio onak dituzue.

Zirkuitu profesionalean ibili den irakaslea izatea ere ez da ohikoena.

Bueno, 23 urterekin utzi nuen zirkuitu profesionala, eta Ingenia-



Iban Rodrigo, Musakolako tenis kantxan, joan den zapatuan.

J.A.

"Feliciano Lopez, Toni Robredo, Verdasco, Nadal... haiekin hainbat torneotan egin dut topo"

ritza ikasten hasi. Hiru urtez izan nintzen zirkuitu profesionalean, ATPko rankingean 390. lekuan izan nintzen eta AEBetara ere joan nintzen beka batekin, tenisean jokatzerara. Baina ez da erraza aurrera egitea; izan ere, hasierako urteetan, halako torneotan dirua irabazi baino gehiago, galdu egiten da; emaitza aldetik bola-da txarra izanez gero...

Ezagunak diren tenis jokalariekin lehiatu zara, hortaz.

Bai, gehienekin. Baina euretako asko gaztetxoak ziren oraindik. Nadalekin, esaterako, 2002an egin nuen bat Santanderren, baina oraindik oso gaztea zen. Feliciano Lopez, Toni Robredo, Verdasco... haiekin ere hainbat torneotan elkartu naiz, bai.

Ikastaro hauek herrian tenisa sustatzeko lehenengo pausoak dira.

Bai, ondoren torneoa antolatu, gazteekin lan egin... aukera asko daude. Izan ere, iparraldean tenisarekin lan handia dago egiteko.

Zaldibar

PARTIDUAK

Urriak 17, zapatua	Epaileak
10:30 Betraye-Steaua del Grifo	Iluntz
11:30 Iluntz-Ekaintz	Steaua del Grifo
12:30 Iriztu-Fidel&Disc	Ekaintz
16:00 Abokajarro-Katenatxio	K.Alpargat
17:00 Komando Alp.-Cipris	Abokajarro

Urriak 18, domeka

10:30 McAwenDauen-Lasagab.	AT Celaya
11:30 AT Celaya-Dribling	McAwenDauen
12:30 Aldapa-Dublin	Dribling

SAILKAPENA

	P	J
1. Betraye	0	0
2. Cipris	0	0
3. Iluntz	0	0
4. Lasagabaster	0	0
5. McAwenDauen	0	0
6. Abokajarro	0	0
7. Iriztu	0	0
8. Komando Alpagat	0	0
9. AT Celaya	0	0
10. Aldapa	0	0
11. Dublin	0	0
12. Dribling	0	0
13. Ekaintz	0	0
14. Fidel&Disc	0	0
15. Katenatxio	0	0
16. Steaua del Grifo	0	0

Hastera doa 48. Zaldibarko Txapelketa!

Amaitu dira atsedenaldi eta nagieriak, asteburuan hasiko da eta Zaldibarren baloia batera eta bestera. Aurtengo txapelketa hamasei taldek eman dute izena eta taldeen artean hainbat berritasun daude.

Talde berriak, eta izen aldaketak

Iazko txapelketarekin alderatuta, Steaua del Grifo taldea berria da. Izen hori, baina, erabili zuten orain dela hainbat urte Zaldibarren. Ea Steauak ze maila erakusten duen. Horrekin batera, Fidel y sus Discipulos eta Katenatxiok izena aldatu dute, iazko Urza eta Iturriotz taberna dira-eta.

Amaitzeko, bada txapelketa jokatzeraz animatu ez denik ere, Saukelu, Equus, Total Disaster eta HLB taldeak ez ditugu-eta aurrean Zaldibarren ikusiko. Zorte onena, denei!



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

MEMORIA HISTORIKOA

Fusilatutako bost lagun aldeko meza Osintxun

Etzi, domeka, izango da, 12:00etan, San Zeledonio eta San Emeterio elizan

M.B. > BERGARA

1936ko urriaren 20an fusilatu zituzten auzoko bost gizonen aldeko meza egingo dute etzi, domeka, Osintxun. Bost auzokideak ziren Ricardo Zangitu, Jose Garaiakoetxea, Rufino Akizu, Tomas Iñarra eta Ildefonso Iñarra, hain justu ere.


Osintxuko bi emakumek deitu dute meza hori, eta gerran fusilatu zituztenen alde egingo den lehenengoa da. 12:00etan izango da, San Zeledonio eta San Emeterio elizan.

2011N EKITALDIA

Luis Mari Alberdi auzo alkateari galdetuta, azaldu du auzo batzordeak ere beti egin nahi izan duela zerbait auzotar haiek gogora ekartzeko, "baina gauza bategatik edo besteagatik" ez dutela egin. Hala, gehitu du 2011n gerraren 75. urtemuga beteko dela eta ordurako ekitaldia antolatuko dutela.

JENDARTEA > ERRETIRATUAK

Kultura hamabostaldi oparoa prestatu dute San Joxepekoek



Hamabostaldia iragarriko duen kartela elkarte kideek egin dute.

GOIENKARIA

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

San Joxepe erretiratuen elkarteak XIII. Kultura Hamabostaldia hasiko du astelehenean, hilak 19. Urriaren 31ra bitartean askotariko ekitaldiak antolatu dituzte, guztiak ala guztiak *Familia gaur* izenburupean. Hamabostaldiaren oinarria hiru hitzaldi izango dira, baina, horrekin batera, bestelako kultura ekitaldiak,

belaunaldien artekoak, folklorikoak, mendi irteerak... egongo dira -ikus egitaraua-. Aipatzekoa da, bestetik, herriko taldeez gain, kanpoko askok ere hartuko dutela parte ekitaldian.

Bestelako berrikuntzen artean, hamabostaldia iragarriko duen kartela dago: lehiaketa deitu beharrean elkarte kideek egin dute.

Egitaraua

19, astelehena

18:30 Hamabostaldiaren hasiera eta hitzaldia. Juan Cruz Mendizabal abadeak *Familia gaur* izango du hizpide, Sierbetako elizan.

20, martitzena

19:30 Hitzaldia: Arantza Gomara Familien Orientaziorako Zentroko zuzendariak *Familia gaur* izango du hizpide, Miguel Altunan.

21, eguztena

09:00 Irteera Bizkaira.

22, eguztena

19:30 Hitzaldia: Joseba Urkiolak *Bikoteen arteko harremanak* izango du berbagai, Miguel Altunan.

Erakusketa: Hilaren 25era arte elkarte kideek egindako eskulanak egongo dira ikusgai San Joxepeko egoitzan. Orduetgia da: eguen eta egubakoitzetan, 18:00-20:30 eta zapatu eta domeketan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

23, egubakoitza

17:30 Jaialdia: Jardun elkarte dantzariak eta bertsolariak eta herriko txistulariek jardungo dute, San Joxepe egoitzan.

24, zapatua

16:00 Bisita turistiko, Antzuolara. Autobusa geltokitik abiatuko da.

27, martitzena

19:30 Arantza Gomarak gidatutako mahai-ingurua, *Familia gaur* izenburupean, Miguel Altunan.

28, eguztena

16:00 Toka eta igel jokoak, San Joxepen.

19:45 Bergarako San Joxepe eta Mutrikuko Anaiarte abesbatzen saioa, Santa Marina parrokiaren.

29, eguztena

17:30 Antzerkia: Oñatiko Pake Leku elkarteak Ikusi Makusi antzerki taldearen *¿Cuántos años tienes, amama?* antzezlan, Sierbetako kaperan.

30, egubakoitza

17:30 Lehen Hezkuntzako ikasleen artean egindako lehiaketaren sari ematea, San Joxepen.

31, zapatua

14:30 Herri bazkaria, Zabala jatetxean.

JENDARTEA > EUSKO LABELA

Sukaldaritzazaleendako okela gisatu lehiaketa antolatu dute azaroaren 7rako

Gisatua nork bere erara prestatu ahal izango du, eta izenematea da urriaren 30era arte

M.B. > BERGARA

Azaroaren 7an, Bergarako VI. okela gisatu lehiaketa jokatu da. Txapelketa herrikoia izango

da, eta horregatik, herriko sukaldaritzazale guztiek eta elkarte gastronomikoek har dezakete parte; ez, ordea, sukaldari profesionalek. Lehiaketa hori Debagoienero hainbat herritan egin da dagoeneko, eta herriko irabazleek parte hartuko dute herrien arteko txapelketa handian.

Lehiaketa hori Debagoienero hainbat herritan egin da dagoeneko, eta herriko irabazleek parte hartuko dute herrien arteko txapelketa handian.

HIRU KILO HARAGI

Lehiaketaren helburua da okela gisatu prestatzea, parte-hartzaileek aukeratutako erara. Antolatzailak behiaren zati bereko 3 kilo haragi emango dizkiote parte-hartzaile bakoitzari. Saltsa gertatzeko erabili beharreko berdura kopuruari buruz ez dute araurik jarriko.

Gisatua aurkeztu beharko da 19:00etan San Martin plazan eta sukaldari eta gastronomo ezagunek osatutako epaimahaiak aukeratu du irabazlea.

GISATUA, PINTXOTAN

Lehiaketa amaitu eta gero antolatzailak emango zaie prestatutako okela gisatua. Izan ere, Udalak zozketa bidez aukeratutako herriko talde edo elkarte batek pintxo moduan saltzeko aukera izango du.

Pintxo salmentarekin ateratako dirua talde edo elkarte horren esku geratuko da.

IZENEMATEA ZABALIK DAGO

Izenematea zabalik dago urriaren 30era arte. Horretarako, deitu egin behar da kultura etxera (943 77 91 59), Jon Leturia harategira (943 76 12 23) edo Pello Urzelai harategira (943 76 00 45).

Lehiaketa antolatu dute Udalak eta Ederto taldeak -harakinen elkarte erosteko taldea- eta babesleak dira Giokela eta Bolintxo. Bestalde, parte hartzen duten harategiak dira: Urzelai, Mari Cruz, Leturia, Sebastian Imaz, Luis Mari Rezola, Bixain eta Aldai, guztiak ala guztiak herrikoak.

Urriaren 21ean ATE IREKIAK

Pintzeladak
Arte tailerra



Matrikula zabalik urriaren 30era arte
ETOR ZAITEZ!

Telesforo Aranzadi 3, behea BERGARA Tel.: 627 68 29 38
pintzeladak@aol.es

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Vaquero, Arrizabalaga, Amasorrain, Muruamendiarrak eta Urteaga (kaltetuetako bat), Eduegi atzean dutela.

GOIENKARIA

POLITIKA > AZPIEGITURAK

EAJk eskatu du Eduegi baserria babesteko AHTren aurrean

Desjabetze espedientea gelditzeko ere eskatu du, ADIFeko ordezkariak kaltetuekin batzartu arte

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

EAJk eskatu dio Jaurlaritzako Garraio Sailari AHTren Bergara-Bergara tartean dagoen Eduegi baserria babesteko. Horrekin batera, desjabetze espedienteak gelditzeko ere eskatu dio, "ADIFeko ordezkariak tarte horretako kaltetuekin elkarriketatu arte; kontuan izanda, gainera, Eduegi baserriak Kultura Ondasun eta Monumentu izendapena duela".

Erredakziora bidalitako oharrean azaltzen du Maribel Vaquero legebiltzarkideak "AHTren prozedura aurrera" doala eta "tarte horretan derrigorrezko desjabetzeak hastear" daudela. Hori horrela, eskatzen dute "ekimena

ahalik eta lasterren eztabaidatzea Eusko Legebiltzarrean".

AURREKARIAK

Eskari hori egiteko aurrekariak honela azaltzen ditu Vaquerok: "AHTren EAeko zatia 2000. urteko azaroan onartu zen Espainiako Sustapen Ministerioaren txosten informatiboaren bitartez. Gero, udalek eta kaltetuek aurkeztutako helegiteak direla eta, zati hori hegoalderantz aldatu zen. Hala, Jaurlaritzak eta Sustapen Ministerioak osatutako Batzorde Teknikoak adostu egin zuen Arrasate-Elorrio-Bergara trenbide-begistako oinarritzko proiektua. Horrek kalteak txikitzen zituen eta ingurumen inte-

grazioa hobetu, Eduegiren babesa bermatuz".

Legebiltzarkideak gehitzen duenez, "2008ko apirilean proiektua Bergarako Udalera bidali zen eta Udalak oinarritzko proiektua Lurralde Plan Sektorialarekin bat ez datorrela alegatu zuen, azterlan berria eskatuz. Ondorioz, Sustapen Ministerioa hasierako azterlanera bueltatu zen, 2008ko azaroan". Vaqueroren iritziz, "Arrasate-Elorrio-Bergara loturako proposamen berri horrek Bergara-Bergara zatian aldaketa garrantzitsuak eragiten ditu; esaterako, Eduegi, Loidi, Loidi Etxeberri eta Askasibar Bolue baserrietan".

Horrekin guztiarekin, 2008ko urte hasierako oinarritzko proiektuan jasotzen diren hobekuntzak kontuan har daitezela ere eskatu dute.

JENDARTEA > OMENALDIA

500 lagun elkartuko dira Pelloren Eguneko bazkarian

M.B. > BERGARA

Erabateko arrakasta izan du Pello Garitanoren omenez antolatutako herri bazkariak. "300 txartel salduta gustura geratuko ginateke, baina 500 salduta... aurreikuspenak gainditu egin dira. Pozik gaude omenaldiak izan duen harrerarekin", esan du Aitor Eraña antolakuntza taldekoak.

Horren haritik, Udal Pilotalekuko bazkarira joango diren herritarrei oharra helarazi nahi diete antolakuntzatik: "Jende asko izango gara, eta sartzeko orduan zein mahaietan antolatzeko orduan pazientzia izan dezatela".

Horrekin batera, beste ohar bat ere helarazi nahi diete herritarrei: Labegaraietako meza-tara joateko autobusa antolatu dute. 10:30ean abiatuko da Fraisko zuritik. Bada, antola-

kuntza taldeak ohartarazi du autobus hori dela pertsona nagusiendako edo mugikortasun arazoak dituztenendako.

Pelloren Eguna antolatuta, eskertu egin nahi diote Garitanori herriko hainbat taldetan egin duen lan handia, besteak beste Alai Taldean, Lokatzen, danborradan, Arizetan...

Egitaraua

11:00 Meza, Labegaraietako elizan.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua, Udal Pilotalekuan (bigarren zatia Pellori eskainiko diote).

13:30 Triki poteoa.

15:00 Herri bazkaria, Udal Pilotalekuan. Gero abestiak eta dantzaldia egongo dira.

oharrak

KINTADA

> **1968an jaiotakoek kinto afaria egongo dute**

Urriaren 24an egongo dute afaria. Izenematea da urriaren 15a, eguena, baino lehen Deportivo tabernan. Izena ematerakoan 10 euro aurreratu behar dira.

KINTADA

> **1934an jaiotakoek -55eko kintoak- bazkaria egongo dute**

Azaroaren 21ean egongo dute, Erreki erretegi. 14:00-

etan txikiteoa egongo dute eta 14:45ean izango da bazkaria. Izenematea da Errekin eta aurreratu behar dira 12 euro.

KINTADA

> **1962an jaiotakoek kinto afaria egongo dute**

Urriaren 31n egongo dute, Tartufon. Autobusa egongo da joan-etorritako. Izenematea da urriaren 25a aurretik, Ariznoa, Etxagi eta Deportivo tabernetan (10 euro aurreratu behar dira).

> HITZALDIA

Zahartze aktiboaren gaineko hitzaldia egongo dute gaur, egubakoitza, Miguel Altuna institutuan

Zahartze aktiboa, bizitzen lagunduz delako hitzaldia egongo da gaur, egubakoitza, 18:00etan, Miguel Altuna institutuan. Nagusilane, Bizikasik eta Udalak antolatu dute.

Hitzaldia egongo du gaien aditua den Aitziber Gine psikologoak eta, besteak beste, azalduko du zahartze aktiboa dela bizitzan barrena aukera guztiak aprobetxatzea ongizate fisiko, psikiko eta soziala izateko.

Bestalde, azalduko du, baita ere, pertsona nagusiak modu aktiboan erretiratzen direnean gizartearen baliabide bilakatzen direla, gizarte lanen eta lan boluntarioen bitartez besteen bizitza kalitatea hobetuz.

**EGURRA
SALGAI**

**Pagoa eta haritza
Prestatuta**

699 86 16 19

abontza
clínica estética

- Barizeak
- Kirurgia estetikoak
- Dietetika eta nutrizioa
- LPG zelulitisa
- Fotodepilazio medikoa
- Espain eta zimurrak
- Botoxa
- Tatuajeen ezabatzea

Egiguren kalea, 6 behea - Tel./Faxa: 943 206 044 - Eibar
www.clinica-abontza.com

MUSIKA > ORGANO ERROMANTIKOAREN ZIKLOA

Schmiedlin organo-jole suitzarra bihar San Pedron

Interprete suitzarraren emanaldia zapatuan 20:00etan izango da San Pedron.

Kontzertista gisa, ospe handiko musikaria da Cyrill Schmiedlin

EDU MENDIBIL > BERGARA

Organo erromantikoaren zikloaren barruan, Cyrill Schmiedlin organo-jole suitzarrak emanaldia egingo du bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan.

Latin-greko letra klasikoetako batxilergoa egin ondoren, Schmiedlin organo eskolak jasotzen hasi zen. Diploma eta sari ugari eskuratu zituen eta berehala lortu zuen oso izen ona kontzertista gisa. Ikasten jarraitzeko jasotako laguntzei esker, organo frantsesaren literatura ikasi ahal izan zuen Daniel Roth irakaslearekin batera, Parisen, eta ondoren, Estrasburgoko Kontserbatorio Nazionalan.

Lucernako Musikhochschulen amaitu zituen Schmiedlinek ikasketak, eta musika sakratuan, gregoriano kantuan eta zuzendaritzan espezializatu zen. Gaur



Cyrill Schmiedlin.

GOIENKARIA

egun, Basileako St. Marien elizako organo handien titular eta kaperako maisu da. St. Marien elizako pulpitu garrantzitsuenetakoa da Suitzako musika sakratuari dagokionez. Schmiedlin bere sendiarekin bizi da Basilean, eta musika-irakasle eta abesbatza handien zuzendaria da han.

HIRU PIEZA

Zapatuko emanaldiko egitarauri dagokionez, hiru pieza interpretatuko ditu organo-jole suitzarrak: Cesar Franck-en *Troisième Choral en la mineur*; Maurice Duruflénen *Sicilienne, extrait de la Suite op.5*; eta Charles-Marie Widor-en *Symphonie VI Op.42*.

> ERAKUSKETA

Simon Arrietaren gaineko erakusketa ikusi ahal izateko azken egunak; domekara arte zabalik

Simon Arrieta margolari bergararraren (1915-1969) gaineko erakusketa domekara arte dago zabalik Aroztegi aretoan. Guztira, Arrietaren 30 koadro batu dituzte erakusketan; horietako batzuk ezezagunak, gainera. Gaur, egubakoitza, 18:00etatik 20:30era dago erakusketa zabalik; zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan, goizez bakarrik.

> MUSIKA

Inoren Ero Ni taldeak 'Fosbury' izenburuko diskoa aurkeztuko du bihar, zapatua, gaztetxean

Inoren Ero Ni taldeak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Bergarako gaztetxean, 23:00etan. BAP! taldearen *errautsetatik* orain dela bost urte sortutako taldea da Inoren Ero Ni. Andoaindarrek Fosbury izenburuko diskoa aurkeztuko dute bihar Bergaran. Haien aurretik, Zarauzko Erantzun hardcore taldeak joko du.

> ERAKUSKETA

Martin Garmendiak margo erakusketa ikusgai jarri du Nahikarin, urriaren bukaerara arte

Martin Garmendia bergararrak margo erakusketa ikusgai jarri du Masterrekako Nahikari tabernan. Hamar lan zintzilikatu ditu, eta paisaiak dira nagusi. Azken urteotan Rikardo Azkargortarekin batera ikasten dabil Garmendia. Erakusketa urriaren bukaerara arte izango da ikusgai.

> ZINEMA

'Revolutionary road' eta 'El valiente Despereaux' gaztetxean eta 'El caballero oscuro' gaztetxean

Oraingo aste bukaeran bi film emango dituzte Zabalotegiko aretoan: *Revolutionary road* zapatuan (19:30ean eta 22:30ean) eta domekan (19:30ean) eta *El valiente Despereaux* ere bihar eta etzi, bereziki umeei zuzenduta, 17:00etan. Domekan, gaztetxean, *El caballero oscuro* ikusi ahal izango da, 18:00etan.



JUAN MARI SASIGAIN

Pol-Poleko beteranoak Pirinioetan izan dira

Pol-Poleko beteranoek denboraldiko azken aurreko irteera egin zuten aurreko asteburuan. Aran bailarara joan ziren, Vielha herrira hain zuzen, eta bertan bi irteera

egin zituzten: zapatuan Bonaigua mendetik Baqueirako ski estazioraino, zazpi orduko martxa; eta domekan Portillon mendatetik Es Bordes herrira.

Eguraldia ez zuten lagun izan, baina ederto ibili ziren. Azaroan 15ean denboraldiko azken irteera egingo dute, Errezil aldera, eta ondoren Zestoa bazkalduko dute.

trinmer
telecomunicaciones

t d t t
televisión digital
terrestre


Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitetz TB digitalera.

TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxe: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

ZABALA JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

■ ALBERTO GOROSABEL / MEDIKU ODONTOLOGOA

"Teknologiak abantaila ugari ekarri dizkigu"

EDU MENDIBIL

Bergaran jaioa, Alberto Gorosabelek Valladoliden eta Euskal Herriko Unibertsitatean medikuntza eta odontologia espezialitatea egin zituen; 20 urte darama Bergarako kontsultan lanean. Era berean, Gasteizen egoitza duen Biotecnology Institute delakoko kidea da eta inplantologia eta ehun-birsorkuntza teknikak irakasten ditu.

Zure iritziz, odontologiari dagokionez non egin dira aurrerapen gehien?

Bizitzako arlo guztietan ikaragarriko abiadurarekin aldakuntzak izaten dira eta aldaketa horiek zientzian eta medikuntzan nabari daitezke bereziki. Gure lanbideari dagokionez, haginak inplanteekin ordezkatzen ditugu. Funtzioa berreskuratzeaz gain, estetikoki ere soluzioa ematen da, haginaren itxura emanez.

Zein kasutan aplikatzen dira?

Erradiografien eta eskaneeraren bidez lehenbizi azterketa egin beharra dago, hezuraren kantitatea eta kalitatea neurtzeko. Inplanteak hagin bat edo guztiak ordezkatzeko baliagarriak dira. Hagin guztiak ordezkatu beharra dagoenean, tratamendua askoz ere esker onekoa izaten da.

Zergatik kasu horietan?

Aparailu mugikorrek arazoak dituzten kasuan aldaketa erabatekoa izaten da; onerako, noski. Hain zuzen ere, protepsi finkoak egin daitezke edota protepsi mugikorrek finkatu. Gaur egungo teknologiari esker, modu errazean egin daiteke hori.

Zer esan dezakezu teknika horien gainean?

Punta-puntako teknologiak erabiltzen ditugu kirurgiak, ebakuntzak, erantzun hobeak izateko. Hau da, PRGF bezalako abantailekin lan egiten dugu. Plaketetan aberatsa den prestakizuna da PRGF delakoa, plasma, norberaren odola zentrifugatuz lortzen dena. Horri esker, ebakuntzetan erantzun hobeak lortzen ditugu; hezurra eta hortzoia (entzia) azkarrago eta hobeto eraberritzen dira. Hain zuzen, horrexegatik haginak ateratzean ere PRGF erabiltzen dugu, min sentazioa asko murrutu edo desagertu egiten delako. PRGF

prestakizunak, plasmak, hanturak (inflamazioak) arintzen dituzten hainbat molekula dituelako.

Medikuntzako beste arlo batzuetan ere erabiltzen da plasma edo PRGF hori, ala?

Bai, PRGFren lehen aplikazioa ahoan egin zen, 1990eko hamarkadan. Ondoren, traumatologian eta kirol medikuntzan batez ere, goitik beherako aldaketak ekarri ditu. Lesioen errekuperazioetan denborak izugarri murrizten ditu, eta horren lekuko dugu punta-puntako kiolariek zein azkar gainditzen dituzten hainbat lesio, lehen denbora luzeagoa eskatzen zutenak. Era berean, artrosi kasuetan ere erabiltzen da.

Dermatologian, bestalde, ultzera gaiztoen kasuan erabiltzen da eta orain aurpegiko estetika kasuetan ere bagabiltza.

Aurpegiko estetika kasuak gero eta ohikoagoak dira gaur egun, ala?

Bai, esan beharrik ez dago aurpegiko itxurak sekulako garrantzia daukala gaurko gizartean. Gure kontsultan egiten ari garen tratamendua nagusiki aurpegian eta lepoan da, bioestimulazioan eta azalaren berrindartzean oinarrituta. Azaleko mikroinjekzioak zimurretan jar-



Alberto Gorosabel.

GOIENKARIA

tzen ditugu plasmarekin, estetika hobetzeko helburuarekin. Emaitza onak lortuz gainera, teknika honek ez duelako inolako arriskurik, norberaren plasma erabiltzen dugulako.

Zein dira etorkizunerako aurreikuspenak?

Ama zelulekin ikertzen ari da gaur egun, hezurra onera ekarri

ahal izateko. PRGF delakoari dagokionez, ikerketak egiten dihardute medikuntzaren beste arlo batzuetan erabili ahal izateko. Etengabeko hobekuntzan murgilduta gabiltza.

Dena den, ahoko gaixotasunei dagokionez, prebentzioa da funtsezkoena. Horrekin lotuta, Bergaran ahoko osasunaren gaineko jardunaldi batzuk egingo ditugula aurreratu nahi dut. Azaroaren 5ean eta 6an izango dira, ahoko minbiziaren prebentziorri zuzendutakoak. Egoki prestatutako autobus bat jarriko dugu Fraisko zurin, nahi duten guztiek doaneko errebisioa egin dezaten. Era berean, herriko ikastetxeetan eta beste hainbat tokitan hitzaldiak izango dira.

"PRGF delakoari esker, ebakuntzetan erantzun hobeak lortzen ditugu"

"Ahoko gaixotasunei dagokionez, prebentzioa da funtsezkoena"

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea



- **INPLANTEAK** Punta-puntako teknologiarekin
- Aho zirugia
- Ortodontzia
- Odontologia orokorra

Orain, aurpegiaren estetika plasmarekin!

Aseguruak: PADI (Osakidetza)
AEGON

Tel. : 943 76 56 88

Fraisko zurin 5A, 1-D. BERGARA

20 urte zuekin Bergaran, eskerrik asko denoi

■ HAURTZAINZTA

"Gurasoek asko zaintzen dute segurtasuna"

MIREIA BIKUÑA

Guraso izan behar duten biko-teek haurrendako erosi behar dituzten gauzekin zerrenda luzea egiten dute: ume-kotxea, autoetan eramateko aulki homologatua, etxean egoteko etzaulkia, kuma... Haurtzaintzarako gauza guztiak ez dituzte aldi berean erosten, baina galdera mordoarekin joaten dira halako gauzak saltzen dituzten dendetara.

Bergarako Markeliñen haurtzaintzarako gauzak eta arropak saltzen dituzte. Arantxa de la Fuentek ume-kotxeak erostera doazen gurasoak aholkatzen ditu. "Gure dendara datozen guraso batzuek oso garbi dute ze ume-kotxe gura duten, aurretik Interneten begiratu dutelako edo kalean ikusi dutelako. Beste batzuek, ordea, ideia garbi izan barik etortzen dira. Nire lana da ahalik eta informazioa zehatzena ematea", esan digu De la Fuentek.

Egun, guraso gehienek lau gurgpileko ume-kotxeak eskatzen dituztela esan digu: "Orain arte hiru gurgpileko kotxeak saltzen genituen gehienbat, baina azkenaldian laukoak saltzen ditugu gehiago. Gainera, ume-kotxe arinak eskatzen dituzte, batez ere etxean igogailua ez dutenek. Egia esan, etxe gehienek egiten dituz-

ten kotxeek denetarik daukate. Alde batetik, kotxea dute; eta beste alde batetik, aulkia. Gainera, euritarako plastikoa dute". Gurasoek 0 taldeko aulkitxoak erosteko aukera dute. "0 taldeko aulkia aparte saltzen dugu, baina umearendako kotxeak 600 eurotik gora balio du".

Umeendako kotxeen diseinua ere asko aldatu da azken urteotan. "Lehen, klasikoagoak ziren eta kolore bakarrekoak. Orain, kolore neutroak eta biziagoak tartekatzen dituzte. Baina, azkenaldian, kolore neutroak dituzten ume-kotxeak saltzen ditugu gehien, eta bizitasuna emateko koloredun lozakuak erosten dituzte", azaldu digu Markeliñeko Arantxa de la Fuentek.

AUTOAN IBILTZEKO AULKIA

Azken urteotan jaioberriaren segurtasuna indartu egin dute, kalean ibiltzeko ume-kotxeetan eta bidaiatzeko autoetan. Garai batean haurrak ume-kotxean joaten ziren autoaren atzeko jarle-

kuetan, segurtasun-uhalarekin lotu barik. Gurasoek asko zaintzen dute arlo hori. "Orain badaude umeendako kotxe batzuk homologatuak direnak, autoaren atzeko jarlekuetan eraman daitezkeenak. Baina halako ume-kotxerik ez duenak bestelako segurtasun aulkia erosi behar du", azaldu digu.

Autoetan umeak erosteko aulkia pisuaren arabera sailkatzen dira: 0 taldekoak dira jaiotzen direnetik 10-12 kilo izan arte; 0-1 taldekoetan 0-18 kilo artekoak sartzen dira; eta 2-3 taldean 15-36 kilo artekoak. Horiek guztiak Isofix segurtasun sistemarekin edo barik erosi daitezke. Gainera, 9-36 kilo arteko umeendako aulkia daude, baina Isofix sistema barik.

AUTOAN IBILTZEKO AULKIAK

Haurtzaintza dendetan jaioberrien segurtasunerako beharrezkoak direnak saltzen dituzte, baina badira gauza batzuk farmazietan saltzen dituztenak. "Biberoiak, tetinak, txupeteak eta txupetearendako lokarriak farmazietan saltzen dituzte. Gu ez gara alor horretan sartu. Ez ditugu saltzen", dio Arantxa de la Fuentek.

Aspaldian, Markeliñen asko saltzen dute umeendako pureak egiteko tresna. Barazkiak egosi egiten ditu, eta ez du proteinarik galtzen. Bidaietan erabiltzen dute

"Umeendako lau gurgildun kotxeak saltzen ditugu, eta arinak badira, askoz hobeto"



Markeliñe dendako Arantxa de la Fuente.

MIREIA BIKUÑA

askok. "Egia esan, oso praktikoa da; besteak beste, autora entxufatzeko aukera ematen digulako eta purea edozein tokitan berotu dezakegulako", dio.

NEGURAKO, KOLORE ILUNAK

Markeliñen, haurtzaintzarako gauzak erostez gain, umeendako arropak ere erosi daitezke.

Autoetan umeak erosteko aulkia umearen pisuaren arabera sailkatzen dituzte

Negurako kolore ilunak datozela esan digu: "Beltza, grisa eta urdin iluna datoz negurako, bai helduen arropetan eta baita haurretan ere". Dena den, kolore biziak gura dituztenek badute non aukeratu: "Guk ez dugu ume jaioberriendako eta txikiendako beltz koloreko arroparik ekarri. Aukerara, kolore biziagoak ditugu. Baina 7 edo 8 urtetik aurrerakoendako kolore ilunak nagusi dira".

Helduendako eta haurrendako kolore berak egotearen arrazoia garbi dauka Markeliñekoak: "Helduendako arropak egiten dituzten etxeak umeendako erro-pak egiten hasi dira, eta, patroiz ezberdinak erabili arren, kolore berberak erabiltzen dituzte".



markeline
haurrentzako moda
0 hilabetetatik 16 urtera



■ ANGELA GARTZIA / ANGELA ESTETIKA ZENTROA

"Bizia duen organoa da azala eta zaindu beharra daukagu"

MIRARI ALTUBE

Arrasateko Ferrerías kaleko 35. atartearen dago Angela Estetika Zentroa. Zazpi urte egingo ditu otsailean, eta hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, ohiko kontuez gain. Azalaren tratamenduetan adituak dira eta Donostiako Sacher klinikako medikuekin kolaborazio lanak egiten dituzte. Gainera, lasaitzeko masajeak ematen dituzte; txokolate masajea, esaterako.

Estetika kontuak asko aldatu dira azken urteotan, ezta?

Bai, izugarri. Lehen depilazioak deitzen ziguten, baina orain irudi zaintzaileak gara.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzue Angela Estetika Zentroan?

Depilazioak egiten ditugu, bai gorputzekoak, bai aurpegikoak –elektrikoa, laserra eta argizaria–; baita manikura eta pedikura ere. Aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak dauzkagu. Gainera, Donostiako Sacher klinikako medikuekin kolaborazio lanak egiten ditugu. Eta lasaitze tratamenduak ere baditugu: txokolate bidezko masajea, harri beroekin... Jon Apraiz masajista eta osteopata arduratzen da.

Tratamenduak berritzen joan dira; teknikak ere bai?

Bai; guk ditugun aparailuen artetik aipagarriena aurpegiko erradiofrekuentzia da. Aurpegia oxigenatzen du eta bi arazo garrantzitsurendako da onuragarria: aknea eta azalaren zahartzea.



Angela Estetika Zentroko nagusi Angela Gartzia, aurpegiko tratamendua egiten.

MIRARI ALTUBE

"Uda ostean hidratatu eta berritu egin behar da azala, bitamina eta oxigenoarekin"

Zimurren kasuan, fibroblastoak mugimenduan jartzen ditu, eta zimurtze prozesua atzeratu. Horregatik, zenbat eta lehenago hasi, hobeto. 30 urteren inguruan azala biguntzen edo jausten hasten da, eta orduan da une ona.

Uda pasatu ostean zer behar du azalak?

Hidratatzea eta berritzea. Eguzki gehiegi hartzen dugu eta behar bezalako kremarik ez dugu ematen sarritan. Bitaminak eta oxigenoa behar ditu azal horrek.

Zein tratamendu da egokia?

Aurpegi garbiketa, esfoliazio on bat, masaje drainatzailea edo shiatsua –norberaren azalaren arabera– eta maskara. Hori guztia guk eskaintzen dugu, baina gero oso garrantzitsua da etxeko mantentze tratamendua.

Gorputzari dagokionez, C

"Aurpegiko erradiofrekuentzia aknearendako eta zimurrendako apartekoa da"

bitamina duen tratamendua gomendatzen dut: eguzkiaren kolorea denbora luzeagoan gordezten du, eta gorputza zaindu.

Zein adinekin hasi beharko genuke azala zaintzen?

25 bat urterekin zelulen hazkundera geratu egiten da; hortaz, orduan hasi beharko genuke. Izan ere, krema horiek guztiak zimurtzearen kontrakoak dira, eta ez zimurrak kentzeko. Bestalde, aurpegiko garbitasunarekin gura denean has daiteke.

Eta badakigu etxean zaintzen?

Ez, behar bezala ez. Ezinbestekoak dira garbitzailea, tonikoa eta esfoliatzailea –astean behin edo birritan–. Gero, maskarak jar daitezke noizbehinka. Tratamendu berria hasterakoan hobe da profesionalen aholkuak jasotzea, norberaren azalak zer behar duen jakiteko.

Atsedean hartzea garrantzitsua da azal polita izateko?


Bai, zalantza barik. Era berean, oso garrantzitsua da azal garbiarekin oheratzea, orduan oxigenatzen delako. Ur asko edateak ere on egiten dio. Ez dugu ahaztu behar azala bizirik dagoen organoa dela eta zaindu beharra daukagula, ez duelako ordezkorik.

Hondatuta dagoen azalak badu konponbiderik?

Bai, beti hobe daiteke. Zimurrak ezin dira kendu, baina bai disimulatu. Eta bizitarik ez duen azala suspertu egin genezake.


Lasaitze tratamenduak ere badituzue.

Bai; txokolatearekin, harriekin, belarrez betetako zakuekin... egiten ditugu. Estresatuta datozenak lasaitu egiten dira eta animu barik daudenak bizitu.



EGUNEKO FOTODEPILAZIO MENUA

GUNEA	SAIOAREN PREZIOA
1. BULARRA + BIZKARRA	245€
2. HANKAK OSORIK, INGLEAK ETA AXILAK	195€
3. HANKA ERDIAK, INGLEAK ETA AXILAK	145€



Gaur zer nahi duzu?

Aste honetan bakarrik eta bezero berrientzat

Promozioa

www.angelaestetika.net - Ferrerías 35 - Arrasate - tel: 943 79 88 23

■ AITOR ODRIUZOLA ETA OIHANA LOITI / FISIOTERAPEUTAK ETA OSTEOPATAK

"Minaren jatorria bilatzeko osotasunean ikusi behar da"

ARANTZAZU EZKIBEL

Orain dela urtebete ireki zuten Aitor Odriozola eta Oihana Loitik Gihar fisioterapia zentroa. Arrasatearrak izatez, Eskoriatzan ireki zuten zentroa, eta orain arteko esperientziarekin oso pozik daudela adierazi dute. Fisioterapia ikasketaz gain, osteopatia ikasketak ere badituzte Odriozolak eta Loitik. Euren lanaren gainean berba egin digute.

Zorionak! Urtebete da Gihar zentroa ireki zenutela. Zernolako esperientzia izan da?

Oso pozik gaude Eskoriatzako herriak eman digun harrerarekin. Hasieran geneukan asmak bete egin dira eta uste genuena baino hobea izan da urtea.

Zuen berezitasun bat da gorputza osotasunean ikusten duzuela, eta ondoren hainbat teknikaren bidez mina sendatu.

Besteekiko bereizten gaituen da paziente bere osotasunean ikusten dugula; hau da, ez gara bakarrik mina duen lekuan zentratzen. Balorazio globala egiten dugu pertsona horren mina nondik datorren jakiteko.

Erabiltzen duzuen teknika bat, adibidez, osteopatia bisterala da. Zertan datza?

Osteopatia bisteralaren bitartez, bizkarreko edo gorputzeko beste atal batzuetako minak erraietatik -biszerak- senda daitezke. Adibidez, norbaitek sorbaldan izan dezake mina, baina

minaren jatorria erraietan duen arazo batean egon daiteke. Horrek ez du esan gura erraietan gaixotasun bat duenik; esan gura du erraiak ez direla behar bezala mugitzen eta horrek min eragiten dio gorputzeko beste atal batean. Azken finean, erraiak, beste edozein gihar bezala, luzatu egin daitezke.

Osteopatiaren barruan beste bi atal ere badaude, osteopatia kraneala eta estrukturala. Ze teknika dira horiek?

Osteopatia kranealak minak sendatzen ditu burezurrea tratatuz. Burukominak, mareoak, antsietatea... adibidez, umeek izan dezaketen kontzentrazio arazoak ere tratatzen ditugu; baita bularreko umeen kolikoak ere. Arazo horiek guztiak burutik etor daitezke; hau da, hainbat nerbio burutik ateratzen dira;

"Erraiak, beste edozein gihar bezala, ondo mugitu eta luzatu egin daitezke"

"Argi utzi gura duguna da fisioterapia masajea baino gehiago dela"

hortaz, nerbio horiek ez badaude ondo, gorputzeko beste atal batean eman dezakete min.

Osteopatia estrukturalak, berriz, gorputzeko artikulazioak tratatzen ditu.

Terapia kraneo-sakroa da erabiltzen duzuen beste teknika bat. Ez da oso ezaguna. Non oinarritutako teknika da?

Sakroak eta burezurrak mugimendu sinkronikoa izan behar dute. Egoera normalean biak batera mugitzen dira, erritmo berean; baina, adibidez, auto istripu baten ondoren galdu egin daiteke mugimendu hori. Ondorioz, gorputz osoan alterazioak gerta daitezke.

Terapia kraneo-sakroaren bitartez, hasierako mugimendu hori berreskuratzea lortzen dugu. Teknika hori eskaintzen dugun bakarrenetarikoa gela esan daiteke. Hemen teknika berria den arren, ekialdetik, antzinatik datorren teknika da.

Argi utzi gura duzue fisioterapia masajeak ematea baino gehiago dela.

Hala da. Jende asko etortzen da masaje gura dutela esaten; baina fisioterapia hori baino gehiago da. Hainbat teknika erabiltzen ditugu lesioak tratatzeko: adibidez, mobilizazioak, luzaketak, elektroterapia, fibrolisia... eta hori guztia ez da masajea.

Gaitz bat tratatzeko teknika asko daude; zaila izaten dena da ze puntu tratatu behar den jakitea, teknika non aplikatu behar den jakitea da gakoa.



Loiti eta Odriozola, Gihar fisioterapia zentroko bulegoan.

A.E.

gihar fisioterapia
osteopatia

Tel./ Faxa: 943 71 43 41
Aranburuzabala 6, behea
20540 Eskoriatza
gihar@hotmail.com

Aseguruak

- Lagun Aro
- Mapfre
- Aresa (Mutua Madrileña)
- Brokers aseguruak
- Trafikoko aseguruak ere bai.

Beste tratamendu batzuk

- Erreabilitazioa
- Podologia
- Dietetika
- Terapia kraneosakra
- Fisioterapia obstetricoa
- F.I.M. (gantxoak)



Eskerrik asko

urtebete honetan gurekin izan duzuen konfiantzagatik

HEZKUNTZA

Elkartrukea Holandako Mill-Hill eskolarekin

Elkar Heziko eta Herbehereetako ikasle eta irakasleek bat egingo dute

M.B. > OÑATI

Azken urteotan gogor lan egin ondoren, gaurtik hilaren 24ra arte, Elkar Heziko eta Holandako Mill Hill College-ko ikasleek eta irakasleek elkartrukea egingo dute. Herbehereetako 24 ikasleek eta bi irakasleek aste osoa egingo dute Elkar Hezikoeekin bizi izaten eta ikasten.

Ikasturterako duten helburua da bi herrialdeen arteko ezberdintasun eta berdintasun kulturalak zehaztea. Gainera, bi herrialdeek Europako Batasunean duten eragina aztertuko dute.

ESKOLAK ETA IRTEERAK

Hori guztiori gauzatzeko, Herbehereetako ikasleek euskara eskolak jasoko dituzte. Gainera, ingelesezko eta gaztelaniazko eskolak batera emango dituzte. Era berean, irteerak egingo dituzte; besteak beste, Donostiara, Aizkorriara eta Arantzazura.

> OHARRA

Danborradako arropak bueltatzeko eskatu dute

Danborradako antolatzaileek esan digute haur danborradan parte hartu zutenetako batzuek ez dituztela arropak itzuli. Hortaz, arropa etxean duenak lehenbailehen eroan dezala kultura etxera. Bestalde, danborradakoen lokalean hainbat gauza jaso dituzte: zira gorri bat, euritako tolesgarri bat, gerriko beltza eta 36 neurriko zintadun zapatilak.

> ESKERTZA

Eskerrak eman gura dituzte ageriko pintura lehiaketakoek

Oñatiko Margo Taldekoek eskerrak eman gura dizkiete ageriko pintura lehiaketan parte hartu zutenei eta herri guztiari. Era berean, lehiaketako babesle eta laguntzaile diren kultura etxeak, Ulmak, Natra Zahorrek, Euskadiko Kutxak eta Gotzon Huegunek modu batera edo bestera egindako lana ere azpimarratu gura izan dute.

JENDARTEA > EUSKARA ELKARTEAK

Laixan elkarteak guztiz etengo dio jarduerari urtarriletik aurrera

Urte berrian ez diete kuotarik kobratuko bazkideei eta ez dute dirulaguntzarik eskatuko

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Aspaldian herrian zabalduko zurrumurrua baieztatu egin da: Laixan Euskara Elkarteak guztiz etengo du jarduera urtarriletik aurrera. Irailaren 10ean egin zuten bilera, eta han hartu zuten erabakia. Laixango bazkideek zuzenean jaso dute bileraren berri eskutitz baten bidez. Jakiarazi diete ekintzarik antolatuko ez dutenez, hurrengo urtean ez dietela kuotarik kobratuko

eta ez dutela dirulaguntzarik eskatuko, ez Oñatiko Udalean, ezta Eusko Jaurlaritzan ere.

HIRU LAGUN LANEAN

Egun, hiru lagun daude lanean; hain zuzen ere, diruzaina, teknikaria eta presidentea, baina ekintzak antolatzeko lantaldeak ez du lanik egingo. Elkarteak *stand by* egoeran dago. Horren harira, urtero sanmigeletan Laixanek antolatzen zituen bi ekitaldi, hain justu

tu ere, balkoitik balkoira bertso saioa eta paella jana, Bertso Eskolak eta Txosna batzordeak antolatutuzte, hurrenez hurren.

ESTATUTUAK BERRITU

Laixango estatutuak ez daude 2007ko legeari egokituta. Hortaz, erakunde moduan ez dago legearen barruan, eta arazoa konpontzeko estatutuak berrituko dituzte. Teknikariak eguneratuko ditu urtea bukatu aurretik, eta bilera egingo dute bazkideekin aldaketa onartu ahal izateko. Laixanek lortu gura duena da urtarriletik aurrera denbora bat barru, bes-

te talde batek elkarte berriro martxan jarri nahiko balu, lege aldetik arazorik ez edukitzea.

ASKOTARIKO EKITALDIK

Laixan Euskara Elkarteak 1991n sortu zuten Oñatiko euskararen egoerarekin kezkatuta zeuden hainbat lagunek. Beti bi ardatz nagusiren gainean egin dute lan: alde batetik, normalizazioa eta sentsibilizazioa; eta beste alde batetik, kulturagintza. Urte hauek ekintza asko antolatu dituzte: Arrasate-Oñati, San Juan sua, Laixan Eguna eta jaietako pegatina lehiaketa, besteak beste.



San Martin auzoan etxeak egiten dihardute.

MIREIA BIKUÑA

ETXEBIZITZAK > BERRIAK

San Martingo etxe tasatuen zozketa, azaroaren 4an

M.B. > OÑATI

San Martingo egiten diharduten etxebizitza tasatuak azaroaren 4an zozketatuko dituzte. Hala aurreratu zuen Lourdes Idoiaga alkateak eguazteneko zozketan. Hain zuzen ere, San Martin auzoko 20. zenbakiko 12 etxebizitza zozketatuko dituzte. Baina kasu horretan ez dute Etxebideko

zerrenda erabiliko: udal bulegoetan izena eman dutenen artean egingo dute zozketa.

BABES OFIZIALEKOAK

Bestalde, eguaztenean egin zizuten babes ofizialeko azken etxeren zozketa. Hain zuzen ere, Ugarkaldeko 40 etxe eta San Martingo 44 banatu zituzten.

Ugarkaldeko 40 etxeak

ADJUDIKAZIODUNAK	ETXEBIZITZA*	ADJUDIKAZIODUNAK	ETXEBIZITZA*
Zabala Carrascal, Aitor	11-behe-A	Zozketatu barik	12-behe-A
Irizar Arregi, Jaione	11-behe-B	Aizpurua Somalo, Iker	12-behe-B
Martinez Lazkano, Idoia	11-behe-C	Muñoz Contreras, Andoni	12-behe-C
Lasagabaster, Amaia	11-behe-D	Zozketatu barik	12-behe-D
Blazquez Jimenez, Francisca	11-1-A	Samaniego Arijia, Urtzi	12-1-A
Teixido, Hernan	11-1-B	Orueta Markuleta, Iban	12-1-B
Elkoroiribe Izurritegi, Edurne	11-1-C	Corrales Alonso, Amaia	12-1-C
Igartua Lopez, Ilargi	11-1-D	Lopez Telleria, Iker	12-1-D
Barbarias Berezibar, Kuir	11-2-A	Perez Veloso, Elena	12-2-A
Aizpurua Arkauz, Larraitx	11-2-B	Rueda Nogueiras, Ismael	12-2-B
Graña Fernandez, Jon	11-2-C	Aranburu Arregi, Iñigo	12-2-C
Rodriguez Zabaleta, Deiane	11-2-D	Bikuña Martinez., Gorka	12-2-D
Ferreiro Lucas, Virginia	11-3-A	Martinez de Alegria, Amaia	12-3-A
Vzaino Mateo, Jesus Maria	11-3-B	San Miguel Ugarte, Jon	12-3-B
Guridi Gesalaga, Izaskun	11-3-C	Santos Fernandez, Andoni	12-3-C
Zabaleta Herrera, Ainhoa	11-3-D	Bernal Azpitarte, Gorka	12-3-D
Aranburu Urtaza, Ainhoa	11-4-A	Aranburu Urtaza, Nerea	12-4-A
Goitia Arenaza, Amaia	11-4-B	Zabala Beitia, Jon	12-4-B
Marko Lopez, Lander	11-4-C	Mendiola Ramos, Nerea	12-4-C
Ariztimuño Oruno, Oskar	11-4-D	Castillo Altube, Asier	12-4-D

*ATARIA-SOLAIRUA-ATEA

ITURRIA: OÑATIKO UDALA

San Martingo 44 etxeak

ADJUDIKAZIODUNAK	ETXEBIZITZA*	ADJUDIKAZIODUNAK	ETXEBIZITZA*
Galdos Ezeola, Itziar	9-behe-A	Markuleta, Imanol	10-1-C
Igartua Olalde, Soledad	9-behe-B	Bellido Gartzia, Miguel Angel	10-1-D
Gonzalez Blanco, Jose	9-behe-C	Santos Soñora, Pilar	10-2-A
Zozketatu barik	9-behe-D	Olalde Forkada, Egoitz	10-2-B
Zurutza Anduaga, Jon Ander	9-1-A	Lukas Etxarri, Aitor	10-2-C
Alvarez Aristegi, Carlos	9-1-B	Puerto Alcala, Xabier	10-2-D
Garcia Junco, Jose Pablo	9-1-C	Pombar Perez, Cristina	10-3-A
Ugarte Gartzia, Jon	9-1-D	Zabaleta Albiz, Julen	10-3-B
Igartua Lopez, Amaia	9-2-A	Leibar Larrañaga, Egoitz	10-3-C
Martija Hernandez, Itxaso	9-2-B	Campo Feijoo, Marcos	10-3-D
Fernandez de Arroiabe, Ane	9-2-C	Dimitrov Kaszandzhiev, Pavel	18-1-A
Vernaza Colobon, David	9-2-D	Caceres Llorente, Jonathan	18-1-B
Pardo Cortes, Sheila	9-3-A	Aranburu Agirre, Roberto	18-1-C
Lizarralde Aranburu, Iban	9-3-B	Telleria jauregiatzo, Iban	18-1-D
Villar Iturbe, Irma	9-3-C	Korkostegi Elortza, Garikoitz	18-2-A
Bower Uribarri, Eugenia	9-3-D	Ferreiro Lukas, Nagore	18-2-B
Zozketatu barik	10-behe-A	Ugarte Ugarte, Amaia	18-2-C
Axe Zubia, Ainhoa	10-behe-B	Lopez Hernandez, Oihana	18-2-D
Sologaitoa Agirre, Amaia	10-behe-C	Kortabarría Korkostegi, Itziar	18-3-A
Lopez Gonzalez, Rakel	10-behe-D	Lopez Balanzategi, Jose	18-3-B
Jimenez Martin, David	10-1-A	Galdos Zubizarreta, Andoni	18-3-C
Sanchez Perez, Maria Vega	10-1-B	Mateos Bueso, Gemma	18-3-D

*ATARIA-SOLAIRUA-ATEA

ITURRIA: OÑATIKO UDALA

GIZARTE ZERBITZUAK > JOKAERA ARAZOAK

Adinekoak zaintzen dituztenendako ikastaroa azaroan

Hainbat adinekok izaten dituzten portaera aldaketak ulertu eta bideratzeko da; Lahar elkarteak antolatu du Udalaren eta Aldundiaren laguntzarekin

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Edonork eman dezake izena, baina bereziki etxean adinekoak zaintzen dituztenei edo adinekoekin lan egiten dutenei –etxerik etxeko laguntza, zaharren egoitza, eguneko zentroa...– bideratu diete. Adinekoek izaten dituzten jokaera aldaketak ulertu eta ondorioz sortzen diren arazoak bideratzeko antolatu du ikastaroa

Lahar esku-hartze sozialerako elkarteak. Udaleko Gizarte Zerbitzuen oniritzia dauka eta Aldundiko Gizarte Politika Departamentuaren dirulaguntza jaso du; horregatik, deialde da.

Bost egunetan emango dituzte eskolak (17:00-20:00): azaroaren 2an, 3an, 4an, 5ean eta 6an. Basotxo erretiratuen egoitzan izango dira eta Sonia Rodriguez psiko-

logoak bideratzeko du. Izenemate epea zabalik dago: telefono bidez (663 05 72 23) edo helbide elektronikoko bidez: *formakuntza@laharelkargoa.org*. 20 lagunitik gora ez dute onartuko.

JARRAIBIDEAK ESKAINI

Ikastaroaren helburuak bi dira: adinekoen jokaerak ulertzeko hainbat jarraibide teoriko

eskaintzea eta jokaera aldaketa horien ondorioz sortutako arazoari irtenbide samurrak topatzen laguntzea.

Lau gaitan sailkatuta daude bost egunetan emango dituzten eskolak: demetziaren ezagutzea –motak, ezaugarriak, bilakaera–; gizakiaren jokaera eta horren gaineko argibideak –inguruneak duen eragina, arazoak sortzen dituzten jokaerak...–; portaerak sortutako arazo zehatzari aurre egiteko jarraibideak –metodoak, egoera ezberdinak...–; eta adinekoekin, batez ere demetzia dutenekin, lan egitean sor daitezkeen beste arazo batzuen gaineko argibideak.

PARTE-HARTZEAN OINARRITUA

Gaiak lantzeko Lahar elkarteak erabiliko duen metodoa parte-hartzailea izango da; hau da, izendatutako gaiak azaldu ostean, kasu zehatzak baloratu eta eztabaidatu dituzte. Norberaren zalantzak, kezak eta esperientziak azaltzeko tartea izango dute partaideek eta ekintza berririk landuko dituzte guztien artean.



Mitarte kalean dagoen Eroski saltokitik ateratzen zen ke beltzari begira herritarrak, martitzenean.

M.A.

EZBEHARRA > SUTEA

Hozteko makina batean piztutako suak Eroski saltokia erre zuen martitzenean

Egiturak ez du izan kalterik baina denda guztiz berritu behar dela esan dute perituek

M.A. > ARETXABALETAKO

Sua piztu zen Eroski dendan martitzenean, 18:50 inguruan; urdaitegian zegoen hozteko makina bat hondatzerakoan sortu zen sutea. Ordu hartan 100 bat bezero zeuden saltokian, eta sei langile. Guztiak atera ziren eta ez zen zauriturik izan. Ondoren, gaineko etxebizitako bizilagunak aterarazi zituzten ertzaiek, ke handia ateratzen zelako dendatik. Ikusmin handia eragin zuen herrian keak, su garririk ez ikusi arren ateratzen zen kea beltz-beltza zelako. Suhiltzaileek euren lana bukatu ostean utzi zieten sartzen bizilagunei etxeetan, baina batzuek –eztarriko eta arnas-

teko arazoak zituztenak– etxetik kanpo lo egitea erabaki zuten, usain sarkorra zegoelako.

PRODUKTU GUZTIAK HONDATUTA

Negargarri zegoen hurrengo egunean Eroski: urdaitegi inguruaren erreta eta gainerakoa guztiz zikinduta. Perituek etorri ziren kalteen eragina zenbaterako zen jasotzera eta erabaki zuten guztiz berritu behar dela denda: "Egiturak ez du izan kalterik, urdaitegiko hor-

mak eta sabaiak bakarrik, baina denda guztia berrituko dugu", azaldu zuen saltokiko arduradunak. Bien bitartean, produktuak botatzen jardun dute langileek –eguztaztenean bost edukiontzi handi bete zituzten– jenero guztia hondatu duelako sortutako ke kaltegarriak.

Bizilagunen etxeetan ere ke usaina zegoen oraindik eguztaztenean eta zikinkeria handia. Horietako batzuek aseguru etxeekin berba egiteko asmoa azaldu zuten.

GAZTELEKUA

Bitxiak egiteko eta hankapalu ikastaroak

M.A. > ARETXABALETAKO

Hainbat ikastaro antolatu dituzte Atxagazte gaztelekuan udazkenerako. Eguenetan, atzo hasita, hankapalukin zelan ibili ikasten dabil-tza gazteak, Etor Larrañaga irakaslearekin. Hurrengo eskolak hilaren 22an eta 29an izango dira (18:00); interesatuek gaztelekuko hezitzaileei eman diezaietela izena.

Aste bukaeran, ostera, fimo ikastaroa egingo dute. Fimo izeneko orearekin zelan egin bitxiak –belarritakoak, eraztunak, lepokoak...– ikasiko dute Nere Uribeetxeberria irakaslearekin. Bihar eta etzi izango dira eskolak (18:00). Ikastaroa egin gura duten gazteek aurrez eman behar dute izena gaztelekuan bertan. Prezioa 2 euro da.

oharrak

ANTZERKIA

> 'Yo prota-agonizo' antzezlanak

Helduendako antzerkia dago gaur (22:00) Arkupen, Ester Bellverren eskutik. Prezioa, 8 euro.

KONTZERTUA

> Labordeta, bertan behera

Gaixotu egin da Aragoiko abeslaria eta bertan behera geratu da biharko kontzertua.

PAILAZOAK

> Gari, Montxo eta Joselontxo

Martingala ikuskizuna eskainiko diete umeei hiru pailazoez domekan (17:00), Arkupen. Prezioa, 3 euro.

KINTOAK

> 1969an jaioetakoak Oriora

Urriaren 31n joango dira Oriora, egun-pasa, 1969an jaioak. Izenematea Belar Meta jantzi dendan, 20 euro ordainduta. Azken eguna, urriak 22.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

AISSIALDIA > ASKOTARIKO EKIMENAK

Gertu daude perretxikoak, Ezkurtxo eta triala

Luis Ezeizako guraso elkarteak perretxikoak biltzeko irteera du; erakusketa ere egingo du

Arizmendi ikastolaren eskutik, berriz, Mendiola elizatea ezagutuko dute umek Ezkurtxorekin

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Ekimenei dagokienez, aste bukaera potoloa da oraingoa. Batetik, Luis Ezeiza ikastetxeko guraso-en elkarteak perretxikoak bildu eta sailkatu ondoren, erakusketak egingo du domekan. Arizmendi ikastolakoek, berriz, Ezkurtxorekin umeendako jaia izango dute. Hori gutxi balitz, egun berean Euskal Herriko trial txapelketa jokatu da.

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Luis Ezeizako umek eta gurasoak perretxikotan joango dira zapatuan. 09:00etarako jarri dute hitzordua, herriko plazan. Han bertan erabakiko dute bilaketa non egin; iaz, esaterako, Arantzazu aldera joan ziren.

Bazkaldu ostean, berriz, goizean batutako perretxikoen sail-

kapena egingo dute ikastetxeko jantokian. Errotari Mikologi taldeko kideek egingo dute zeregin hori. Guraso elkartetik gogorazi dute irteeran parte hartu ez dutenek ere aukera izango dutela Luis Ezeizara perretxikoak eramateko eta mikologian adituekin dituzten zalantzak argitzeko. Azkenik, domeka eguerdian erakusketa jarriko dute plazan.

ARIZMENDIN, EZKURTZO

Bestalde, Arizmendi ikastolako Jose Aranako eta Almengo guneek Ezkurtxo eguna egingo dute bihar umeendako. Urtero egiten duten ekimen horren helburua da Eskoriatzako elizateak ezagutzea. Aurten, Mendiola bisitatu dute bi eta hamar urte bitar-



Eder to pasatzen dute urtero neska-mutikoez Ezkurtxorekin.

ARIZMENDI IKASTOLA

teko neska-mutikoez. Jose Arana guneko Miren Segurak azaldu digu 15:30erako jarri dutela hitzordua. Lehen Hezkuntzako lehen mailatik beherakoak autobusez joango dira Mendiolaraino eta hortik gorakoak, berriz, oinez.

Lehenik eta behin, elizatea ezagutuko dute eta jarraian, han-

go elizan ipuin-kontaketa izango dute. Horrekin amaitzean, aspaldiko jolasekin gozatu ahalko dute, hala nola tiragomak eta goitiberak. Ezkurtxo eguna amaitu aurretik, txokolate jana izango dute elizatean.

Segurak nabarmendu gura izan du ekimena herritar guztiei zabalik dagoela. Horrekin bate-

ra, aipatu du 16:00etatik 19:00etara iraungo duela.

TRIALA

Kirol hitzordurik ere ez da falta asteburuan, Euskal Herriko trial txapelketa egongo da-eta bihar. Lehia Apotzagan hasiko da, 15:30ean. Interesatuak Aretxabaletatik joan beharko dira.

KULTURA > MUSIKA

Rockaren klasikoak Inkernun

Bikustik taldeak kontzertua eskainiko du gaur, 22:30ean, eta sarrera libre da

M.B. > ESKORIATZA

Kontzertuak itzuliko dira gaur, egubakoitza, Inkernu tabernara. Aitzorrotz kultura elkartearen eskutik, Bikustik taldea agertokira igoko da, 22:30ean. Betiko moduan, kontzertu horretarako sarrera libre da izango da.



Irudian, Bikustik taldea.

GOIENKARIA

BERTSIO AKUSTIKOAK

Bikustik Patxi Zabaleta (gitarra nagusia eta koroak) eta Jon Gurrutxaga (ahots nagusia eta gitarra laguntzailea) elgoibartarrek osatzen dute. Aspaldiko lagunak eta Arima Beltza musika taldeko kide ohiak badira ere, proiektua ez zuten joan den

urtera arte martxan jarri. Taldearen izenak adierazten duen moduan, proiektu akustikoa da; hain justu ere, bertsio akustikoen egitasmoa. Rock klasikoaren bertsio akustikoak ardatz hartuta datoz elgoibartarrak proiektu berriarekin.

TALDE MITIKOEN KANTUAK

Besteak beste, The Beatles, Creedence Clearwater Revival, Led Zeppelin, Queen eta Chris Robinson talde mitikoen bertsioak eskainiko dituzte gaur gauean Inkernu tabernan egingo duten musika emanaldian.

oharrak

UMEAK

> **Domino erraldoia egingo dute gaur Tortolis ludotekan**

Egubakoitzero bezala, gaur ekintza berezia egingo dute ludotekan. Domino erraldoia egiteko asmoa dute, 18:00etan.

GAZTEAK

> **Mahai jolasak eta monozikloak aste bukaeran gaztelekuan**

Gaztelekuan ere hainbat ekimen daude datozen egunotan. Bihar, 18:00etan, mahai jolasak egongo dira; eta domekan, ordu berean, monozikloak.

ERAKUSKETA

> **Hiesaren gaineko erakusketa**

Gaur arte (egubakoitza) dago aukera Ibarraundin jarrita dagoen *Hiesa: 8 artista*. Gaur egungo 8 gogoeta delako erakusketa ikusteko.

BISITA GIDATUAK

> **Atxorrotzeko lanak ezagutzeko azken bisita egingo dute bihar**

Bihar, zapatua, herritarrek azkeneko aukera izango dute

arkeologoek Atxorrotzen egin dituzten lanen nondik norakoak ezagutzeko. Interesatuak Ibarraundi museoa eman behar dute izena eguerdia baino lehen.

KIROLA

> **Kirol hitzorduak kiroldegian**

Gaur, 16:00etan, junior mailako nesken saskibalo partidua dago; Zarauz Zast taldea izango dute etxekoek aurrean. 18:00etan, berriz, Ohorezko Ligako areto-futbola egongo da: Eskoriatza eta La Parrilla lehiatuko dira.

TAILERRA

> **Gurasoen tailerra dago eguaztenean Luis Ezeiza ikastetxean**

Eguaztenean, hilak 21, Luis Ezeiza eskolako aretoan, guraso elkarteak martxan jarriko du eskolako gurasoie zuzendutako tailerra, 18:30ean. Familiaren eguneroko egoerei buruz gogoeta egin ondoren, seme-alaben heziketan sortzen diren arazoak konpontzeko abileziak landuko dira.

Belen Azkarate > Kruz Azkarateren biloba

"Aitaitak zeuzkan bere bertso guztiak koaderno batean jasota"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Auspoa bildumako beste liburu bat kalean da. *Ondorengoak jakin dezaten* izenburupean Kruz Azkarateren bertsoak jaso dituzte. Etxekoek lagundu dute aitaitaren lanak jasotzen. Belen Azkaraterekin, Kruzen bilobarekin izan gara liburua eta aitaita bertsolariaren gainean dituen oroitzapenez berbetan.

Zer izan da, zuendako, liburua argitaratuta ikusteak?

Sekulako ilusioa egin digu. Batik bat, etxe inguruan jarduten zuen, ez da inoiz bertsolari hain ezaguna izan, eta bere bertsoak liburu batean argitaratuta ikusteak eta jendeak gustura hartu dituela jakiteak asko poztu gaitu.

Libururako materiala batzen lagundu duzue etxekoek, ezta?

Lan erraza izan da, aitaitak berak zeuzkalako bizitzan barrena idatzitako eta botatako bertsoak koaderno batean jasota. Gu arduratu gara argazkiez-eta.

Askotan entzun zenuten aitaita bertsoetan?



Belen Azkarate, liburuarekin eta aitaita-amamen argazkiarekin. I. AGIRREAZALDEGI

Sarritan. 92 urte zituela hil zen eta bere azken urtebetetze ospakizuneari ere bota zituen bertsoak. Gainera, etxekook zirikatatu egiten genuen bertsoetan egin zezan.

Bilobon urtebetetze egunetan ere urtero idazten zizun bertsoen bat. Soziedadean, plazan noiz-bait, jaietan... egin arren, batik bat etxe bueltan jarduten zuen.

Kantuan ez ezik, bertsoak idazten ere ibiltzen zen.

Beti ibiltzen zen bertsoak idazten eta jasotzen. Inoiz enkar-guz ere egiten zituen, edo nik egingakoak zuzentzen zizkidan edo laguntzen zidan bertsoak egiten. Bestalde, niri oso bitxia iruditzen zitzaidan nola ibiltzen zen bertso txapelketak entzun eta puntuatzen; askotan asmatzen zuen zeinek irabaziko zuen.

Nondik jaso zuen zaletasuna?

Aitaitak ez dakit nondik jaso zuen bertsoarako zaletasuna. Izan ere, etxean ez dute gogoan familian aurrekorik bazenik bertsoetan jarduten zuenik. Berezkoa zuen; gainera, oraingo gehienak ez bezala, eskolarik gabeko bertsolaria zen, eta hori harro egoteko modukoa da.

Ondorengoak zaleak zarete?

Hark nahi baino gutxiago, beharbada, baina erakutsi egin zizun bertsoa maitatzen. Nik inoiz idatzi izan ditut eta anai-arrebek ere noizbehinka entzuten dituzte; orain, lehen baino gehiago, agian.

bere ustez



Alaitz Jauregi

Plastikozko poltsa famatuak

Aspaldi honetan besterik ez dogu entzuten: plastikozko alde batera utzi behar ditudugula, ez erabiltzeko, merkatutik kentzeko... Bat-batian sekulako boom-a sortu da kontu honen inguruan.

Nere belarrietara heldu da estatistika batzuen erantzuna, eta hau da: benetan plastikozko birziklatzeko aste gutxi batzuk besteik ez dala bihar. Orduan honen guztian atzian zer dago? Ba baten batzuen poltsikuak hartu bihar daben betekadia!

"Konturatu zate zenbat dihardugun gastatzen poltsa 'ekologikuen' erosten"

Konturatzeko zate zenbat diru dihardugun gastatzen poltsa "ekologikuen" erosten, edo kapazuak, edo karruak, edo...

Eta zenbat gauza datozen plastikotik derrigorrez? Arraindegira juten ganean nun emungo dozkue ba arraina? "Hartu sardinak eskura zuzenian!"; Ta esnia? Eta jogurtak? Eta berduria? Eta fruta? Eta... eta... eta...?

Ba topau deixela beste materialen bat, baina ez guri diru gehixau gastatu eragin, eta herak aberastu! Akaso prezioak jaitsi ein bihar dia poltsekin aurreratzen dabela-ko, ala? Ba ez!

Azkenian kaltetuenak gu, A gripiakin bezala, zenbat medikamentu saldu ditue bildurran kontura?

JAIK > FOLKLOREA

Haur Dantzari Egunean 175 ume izango dira herrian

I.A. > ANTZUOLA

Azken 35 urteotan bezala, Haur Dantzarien Eguna antolatu du Oinarin taldeak domekarako, urriaren 18rako. Bost talde izango dira herrian: Antzuolako Oinarin, Arrasateko Lore Gazteak, Oñatiko Oñatz, Legazpiko Korosti eta Soralezuko Urrats.

Goizeko hamarretako txistularien kalejiraren ostean, taldeei harrera egin eta haiek herrian barrena kalejiran ibiliko dira eta gero, 12:45ean, plazan dantza saioa egingo dute. Neskek esku-dantza, arku-dantza eta makil

dantza egingo dituzte; mutilek launakoa, jorrai-dantza eta txankarrankoa; denek batera, gorulari, fandango eta arin-arina.

ANTZUOLAN IA 60 UME

Arratsaldeko saioa 17:30ean hasiko da eta talde bakoitzak bere dantzak eskainiko ditu. Antzuolakoek Trokeo dantzetako maki handi-dantza egingo dute.

Oinaringoek esan digutenez, Antzuolako taldean, orain, 55-60 ume inguruk dihardute eta aurtengo berriei aukera emateko asmoa dute.

> HEZKUNTZA

Jangela eta garraio zerbitzuaren gaineko batzarra izango da Ipintzako DBHko ikasleen gurasoendako

Ipintzako DBHko ikasle antzuolarren gurasoek batzarra egingo dute urriaren 20an, 19:00etan, Orlaranen, ikasleen garraioaren eta jangelaren gaineko zalantzak argitzeko. Azalduko dute garraioaren eta jangelaren orain arteko funtzionamendua, gaur egungo egoera eta jangela zerbitzuan izango diren aldaketak. Etorkizunaz eta diru poltsaren erabileraz ere jardungo dute.

> FUTBOLA

Getariako Keta futbol taldearen aurka jokatuko dute Antzuolako mutilek zapatuan Eztalan

Zumaiako taldearen aurka Aita Mari zelaian 3-0 galdu ostean, Antzuolako erregional preferente mailako mutilek etxean jokatuko dute aste bukaeran. Getariako Keta futbol taldea izango dute aurrez aurre Eztalan. Norgehiagoka zapatuan izango da, 16:00etan. Sailkapenean bosgarrenetik bederatzigarren postura jaitsi da Antzuolako taldea, azken partidua galduta; zazpi puntu ditu guztira.

LARREA
TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegori 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

4 t'erdiko txapelketa

Lehenengo partiduak asteburuan

L.Z. > ELGETA

Gaur, barikua, eta etzi, domeka, jokatuko dituzte Gabonetako pilota txapelketako lehenengo norgehiagokak. Aurreikusitako egutegia betetzen bada, hemendik eta azaroaren 29ra bitartean 47 partidu jokatuko dituzte lehiaketan izena eman duten herriko 20 bikoteek.

URRIAK 16, 20:30

1. Pello Larrea - Jesus Belamendia / Luisan Alkorta - Gorka Bolinaga

2. Jabier Bolinaga - Iñaki Izagirre / Alex Arantzabal - Koldo Goenaga

3. Julio Calleja - Mikel Arkarazo / Joseba Arbulu - Mikel Elkoro

URRIAK 18, 10:30

1. Asier Osoro - Sergio Bouzas / Samuel Gorrotxategi - Luis Atorrasagasti

2. Angel Ibarluzea - Alberto Telleria / Asier Morales - Fernando Zenitagoia

3. Iban Retolaza - Jabier Larrañaga / Satur Ramos - Gaizka Etxeberria

4. David Peñalver - Txomin de Vega / Jon Irazabal - Mikel Ormaetxea

oharrak

KIROLA

> Umeendako errugbitu saioa egingo dute, domekan

Errugbi baloiarekin jokatzen da errugbitu, baina neurri txikiagoak dituen kantxa batean. Umeendako saioa egingo dute domekan, hilak 18, 11:00etan hasita.

Udalak Elorrioko errugbi taldearekin elkarlanean antolatutako ekimena da. Eguraldi txarrarekin kiroldegiko gimnasioan egingo dute saioa.

JAIA > ERAKUSKETA

Perretxiko erakusketa eta pintxo lehiaketa domekan

Erakusketa 11:30ean zabalduko dute; pintxo lehiaketako sariak 13:30ean banatuko dituzte herriko plazan

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Hiru hitzorduk bat egingo dute domekan herriko plazan. Goiztiarrenak umeak izango dira; izan ere, perretxikoak batzeko irteera egingo dute, 10:00etan abiatuta.

PERRETXIKO ERAKUSKETA

Hainbat herritar perretxikoak batzen aritu dira egunotan. Batutako ale ederrenak -onak eta txarrak- herriko plazan ipiniko dituzte ikusgai 11:30etik 13:30era. Perretxiko bakoitza bere kartelarekin lagunduta joango da, ona, txarra edo hilkorra den ondo desberdintzeko. Mikologia eskola jasoko dute, hortaz, herritarrek.

PINTXO LEHIAKETA

13:30 aldera, pintxo lehiaketako sariak banatuko dituzte herriko plazan. Elgetako zazpi tabernak hartuko dute lehiaketan parte, tartean Ostatu tabernako Arantza Aretxagak, iazko irabazleak. Epaimahaiko kideak tabernaz taberna ibiliko dira pintxoak puntuatzen. Epaimahaikoek emandako iritziaz gain, aurten herritarrek ere hitza izango dute lehiaketan. Tabernetan ipiniko duten fitxa batean botoa emateko aukera izango dute.

'ELGETAKLIK'

Bestade, lan gutxi jaso ditu Udalak lehenengo aldiz antolatu duen *Elgetaklik* argazki lehiaketan. Gaztelekuko gazteak, baina, animatu egin dira parte hartzera. Argazkiak ikusgai egongo dira domekan herriko tabernetan. Sari banaketa ere egingo dute.



L.Z.

Benedikta Bergaretxe > Perretxikozalea

"Jatea baino gehiago, perretxikoak batzea da niri aspalditik gustatzen zaidana"

L.Z. > ELGETA

Basoan ibiltzea gustatzen zaio Benedikta Bergaretxe elgetarrari, eta ondo ezagutzen ditu Elgeta inguruan daudenak. Perretxiko sasoia den honetan, makina bat ekartzen du etxera. Egunotan batuko ditu domekan ikusgai ipiniko dituenak.

Zer moduzko uzta izan da aurten?

Siku joan dira ekaina eta uztaila, eta ezagun izan da hori. Aurreko astean, baina, onddo bolada handia izan da. Jende asko ibili da. Saitxo baten lau lagun ere ikusi ditut!

Zenbat perretxiko eraman dituzu etxera?

Ez dakit, baina asko. Jatea baino gehiago, basoan perretxikoak batzea gustatzen zait niri. Ahal dudan guztietan joaten naiz, perretxiko sasoia izan edo ez. Eta ez naiz segidan leku berera joaten; beti aldatzen dut. Jende asko dabil basoan!

Emakumea perretxikotan. Ez dira, ba, asko ikusten!

Ez, eta batzuei gaizki ere iruditzen zaie. Duela lau bat urte arazo txiki bat izan nuen eibartar batekin. Makila ere altxatu zidan egun hartan. Bizkor isildu nuen. Gizonen moduan ibilita nago baserrian lanean; bada, perretxikotan, zergatik ez?

Zenbat perretxiko klase ezagutzen dituzu?

Asko, baina batu sei bat klase batzen ditut. Gustatzen zaizkidanak bakarrik: onddoak hiru bat klase, urritxak, saltsak, lanpernak... Elgeta paraje ona da perretxikotarako, eta gizona jale amorratua dut. Soberan ditugunak lagunen eta senitartekoen artean banatzen ditugu.

Onddo kiloa 30 eurotan saldu omen dute Durangoko azokan.

Entzun dut, bai. Deigarriagoa egin zait saltsaren prezioa: kiloa 18-20 eurotan ikusi dut. Pila ederra ekarri dut nik etxera aurten!

Non ikasi zenuen perretxikotan?

Txikitan, gurasoekin. Orduan, estimu handian genituen, ez zegoen-eta beste askorik jateko. Gauzak asko aldatu dira hemen. Aukeratzeko gauza asko ditugu orain.

Gazteak ibiltzen dira perretxikotan?

Baten bat bai, baina gutxi. Gehienbat, erretiratuak ibiltzen dira perretxikotan. Denbora luzeen haiek dute, egia esan.

Elgetako basoak nola daude?

Zikinak. Pistak ere arantzaz josita daude. Laster ehiztariak hasiko dira eta zabalduko dituzte bide batzuk, baina leku askotatik ezin daiteke pasa.

Zer iruditzen zaizu herrian egiten den perretxiko erakusketa?

Ondo, zer irudituko zait ba! Aurten, baina, mahaia non ipini zaindu behar dugu. Iaz eguzkitan egon zen eta laster sikatu ziren perretxiko guztiak. Lastima izan zen.

POLITIKA > EAJ-HAMAIBABAT

Oposizioa: "Aralar eta Rebeka Ubera: umiltasun handiagoa eta gutxieneko aitortpen bat aurretik lan egin dutenendako"

L.Z. > ELGETA

Elgetako EAJ-Hamaikabat haserre agertu da haurreskola berriaren irekieraren inguruan Udal Gobernuako kideek erakutsitako jarrerarekin. "Gure taldea asko poztu da lanen amaierarekin, baina haur eta gazteendako egoitza hori eskura izatearekin ere. Beti

egon gara proiektu horren alde". Hori esanda, pare bat zehaztapen egiteko beharra ikusi dute oposiziotik: "Urteak dira haurreskola zerbitzua herri eskolan martxan dela. Gaztelekua, berriz, Ozkarbin hasi zen eta eskola zaharretara pasa zen gero. Ludoteka Kultura etxean egon da".

"Hiru zerbitzuok EAJ-EAren agintaldietan martxan ipinitakoak dira", gogoratu dute oposiziotik. "Eta Torrealdeko egoitza, berriz, gure taldeak babes ofizialeko etxebizitzekin egindako gestioei esker lortu zen, doan. Egokitzapena, noski, agintaldi honetan egin da".

UMILTASUN HANDIAGOA

EAJ-Hamaikabat taldearen ustez, egoitza berriaren proiektua aurreko udal gobernuek hasitako lanari esker atera da aurrera. "Horregatik, faltan sumatu dugu Aralarrek, eta bereziki Rebeka Ubera zinegotziak hedabideei egindako adierazpenetan aurretik egindako lan hori guztia aipatu ere egin ez izana."

Eskaera bat ere egin dute EAJ-Hamaikabat taldeak: "Aralar eta Rebeka Ubera andrea: umiltasun handiagoa eta gutxieneko aitortpen bat, Aralar existitu aurretik ere lan egin duten pertsonendako zein alderdi politikoendako".

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Urriko zozketa

Sariak irabazteko

HARPIDETU!

Tel.: 943 08 10 50

harpidetza@goiena.com

Kuota: 20 euro

XABIER LETE IKUSTEKO SARRERAK



Bidali AG ESPALIOA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



LIBURUA



Bidali AG ATXAGA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



KAMISETA



Bidali AG KAMISETA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



MP3 BAT



Bidali AG EROSKI
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



SARI NAGUSIA

IRAILA-AZAROA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



AHTEC NETBOOK LUG N011
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270
Diamondville (533Mhz/512Kb).
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3
Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik



- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa.
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

Amillaga 32 • 943 76 59 60
(auto garbigailu ondoan)

Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotuan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

Pello Añorga > Ipuin kontalaria

"Aramaion egingo ditudan hitzaldietan gurasoei irakatsiko diet liburu batekin nola gozatu"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Bularretik mintzora kanpaina abian da Aramaion. Egitasmoaren helburua da umeengan irakurketa ohiturak sustatzea; horretarako, guraso eta irakasleei zuzendutako hitzaldiak egingo dituzte hainbat adituk. Pello Añorga ipuin kontalaria eta idazleak *Helduentzat nola kontatu, irakurri, begiratu liburu bat* izeneko ikastaroaren lehenengo hitzaldia egin zuen atzo.

Umeei liburuak kontatzen irakatsiko diezu gurasoei?

Liburuak irakurtzen baino gehiago, liburuak kontatzen irakatsiko diet gurasoei eta irakasleei. Nire helburua da gurasoei batera liburuak begiratzeko eta irakurtzeko, eta konturazteko gaur egun ume txikiendako, eta euskaraz, merkatuan badaudela gauza zoragarriak. Horren harira informazio falta handia dagoela uste dut; merkatuan dauden liburuei buruzko segimendua eskasa da eta informazio hori guraso eta irakasleei eskaintzea oso baliagarria izan daiteke. Modu horretan ikusiko dute nola eta noiz has daitezkeen umei liburuak kontatzen; izan ere, oso txikitatik has daitezke, baina horretarako, liburuak ezagutu egin behar dira. Lehen kontutxoak noiz kontatu eta *Txanogorritxo* eta halako klasikoekin noiz hasi; hori guztiak azalduko dit.



Pello Añorga.

GOIENKARIA

Nola antolatu duzu ikastaroa?

Lehenengo, guraso eta irakasleen kezka jakin nahi ditut. Ondoren, lehenengo egunean lekuan zentratuko naiz: non eta nola irakurri ipuinak haurrei. Lehen esan bezala, merkatuan euskarazko ze liburu dauden ere azalduko dut, baita Interneten ere. Eta bukatzeko, gomendio batzuk emango ditut, gurasoak beldur barik umei ipuinak kontatzen has daitezten.

Lekua aipatu duzu. Zein da leku aproposa?

Garrantzitsua da espazio egokia aukeratzea: interferentzia eta soinu gutxi dagoen toki bat aukeratzea. Leku bildua eta lasaia, non guraso eta haurra bakarrik eta intimitatean egongo diren. Zu eta ni bakarrik.

Haur literaturak umeen garapenean garrantzi handia daukela uste duzu?

Noski. Nire kasuan, helburua da gurasoei liburuak kontatzen irakastea. Zertarako? Hizkuntzaren bitartez guraso eta haurren arteko harreman afektiboa sendotzeko; izan ere, adin tarte horretan hizkuntzaren bidez harreman afektiboa lantzen ez bada, etorkizunean hizkuntza horrek ez du inongo gozamenik sortuko eta ez du balioko emozioak konpartitzeko.

Egitaraua

Urriak 22, 28 eta 29

Helduentzat nola kontatu, irakurri, begiratu liburu bat
Hizlaria: Pello Añorga.

Azaroak 3

Irakurketaren garrantzia haurren garapen emozional eta intelektualean
Hizlaria: Juan Karlos Alonso.

Azaroak 18

Haur literatura eta hizkuntza afektiboa
Hizlaria: Juan Kruz Igerabide.

OHARRA:

Hitzaldi guztiak 18:00etan izango dira kultura etxean.

LEINTZ GATZAGA

Erretiratuak Nafarroara egun-pasa hilaren 23an

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Toki Eder erretiratuen elkar-teak irteera egingo du urriaren 23an, egubakoitza. Udazkeneko irteera da, eta Nafarroa aldera joango dira oraingoan: Artaxonako harresia eta gaztelua ezagutu eta Aiegi herriko Iratxe hotelean bazkaldu. Egundak polita proposatu dute Toki Ederko zuzendaritzako kideek, bazkalostean dantzaldia eta guzti izango da-eta.

Irteerara joan gura dutenek aurrez eman behar diete izena zuzendaritzako kide diren Tere Aranburuzabalari edo Pedro Mari Elkorobarriari. Izena lehenbailehen ematea komeni da, gero autobusa eskatzeko.



TXARRANTATEGI

LEINTZ GATZAGA

Hori bai astaputz ikusgarria!

Onddo asko eta handiak jaso dituzte udazken honetan perretxi-kozaleek, eta, tartean, a zelako astaputza topatu duen Txarrantategi baserriko Ander Beitialarriingoiak Goierri auzo inguruan. Lastima jateko ez izatea...

MENDIKO BIZIKLETA > BI MARTXA ASTEBURUAN

Ezetz egin bi martxak!

Zapatuan Arrasateko mendiko bizikleta irteera egingo dute, Musakolatik irtenda

Domekan Eskoriatzak hartuko du errelebu, Debagoieneko zirkuituko azken irteerarekin

XABIER URTZELAI > BERGARA

Asteburuan egingo dituzte Arrasateko eta Eskoriatzako mendi bizikleta martxak, Debagoieneko zirkuituko azkenak. Ibarreko eta gainontzeko lekuetako bizikletazaleek izango dute non aukeratu. Eta antolatzaileek hor bota dute erronka: ezetz egin bi martxak!

ARRASATEKOA, BIHAR

Arrasateko martxa Besaidek antolatzen du, mendi hamabostaldien barruan. Besaidekoek 33 kilometroko ibilbidea prestatu dute, eta 10:00etan irtengo dira Musakolatik. Antolatzaileak, berriz, 09:15ean hasiko dira izenak hartzen. Hala, aurtengo ibilbidea egiteko antolatzaileek azken bi urteotako ibilbideak batu dituzte. Ez dira metro askoko maldak gainditu behar, baina zirkuituak etengabeko gorabehera du, bizpahiru jaitsiera oso politekin -Bedoñatik Aretxabaletara doana, Ikutixora jaisten dena eta Anporretakoa.

ESKORIATZAKOA, DOMEKAN

Eskoriatzako martxak, berriz, 20 urte egingo ditu domekan, eta Areka BTT taldeak eta Eskoriatzako Udalak antolatzen dute irteera hori. Antolatzaileak 08:15etik izango dira plazan izenak hartzen eta 09:00etan da irteera ordua. Gainera, Eskoriatzako bizikletazaleek bi ibilbide izango dituzte

aukeran, luzea (42 km) eta motza (21 km). Esan behar da bi irteera horietan jatekoak eta edatekoak emango dituztela -bai ibilbidean zehar eta baita proba amaieran ere-, aseguru egongo dela eta kiroldegietan dutxatu eta kiroldegi kanpoan jarriko dituzten mangerekin bizikletak garbitu ahal izango direla. Eskoriatzan, gainera, oroigarria emango dute, urtero moduan.

ZIRKUITUKO AZKENAK

Asteburuko bi hitzordu horiekin ibarreko zirkuituak agur esango du datorren urtera arte. Gatzagako, Oñatiko eta Bergarako martxak oso arrakastatsuak izan ziren -guztietan egon ziren 200 txirindularitik gora-, eta badirudi oraingo asteburuan, eguraldiak lagunduta, arrakasta horiek errepikatu egingo direla.

Aurtengoa bizikleta irteerak batzeko lehenengo ahalegina izan da, eta hasteko, zirkuitua osatu dute. Datorren urterako, berriz, antolatzaileen asmoa da Debagoieneko zirkuitua gehiago indartzea, nahiz eta martxa bakoitzak orain arte izandako izaerari eutsiko dion.


Irail hasieran Gatzagako martxa egin zutenetik www.goiena.net/blogak/debagoienamtb helbidean batu dituzte martxetako informazio eta erretratuetan. Datorren astean izango dituzte asteburuko argazkiak.




Eguraldiak lagunduta, orain dela 15 egun Bergarako bizikleta martxan 205 ziklista batu ziren.

GOIENKARIA

Arrasateko martxa



Eskoriatzako martxa



LAUDIO

0-1

ARETXABALETA

Laudio > Jorge, Lope, Alain, Goñi, Iker Rodríguez, Mendaza, Xabi (Tuto, 56. min), Otegi, Javi Garcia (Etxeba, 49. min), Kali (Pastrian 56. min), Iker Martínez, Rezagorri.

Aretxabaleta > Gaizka, Aritz, Alain, Ruben, Amutxas, Gotzon, Aspiazu (Iñaki, 70. min), Borja, Unai (Oinatz, 65. min), Garai (Orueta, 56. min), Imanol.

Golak > 0-1eko Oinatzek, 73. minutuan

Epalea > Alvaro Masero jauna. Laudiori aterako txartel horiak: Alain, Kali, eta Garrido. Aretxabaletari aterako txartel horiak: Aritz, Borja, Garai, eta Iñaki.

Bestelakoak > 130 ikusle Ellakurien.

FUTBOLA > HIRUGARREN MAILA ETA OHOREZKO ERREGIONALA

Etxetik kanpora duen eraginkortasuna Ibarran erakutsi nahi du UDAk domekan

Gordobilen mutilek beste hiru puntu baliotsu batu dituzte aste barruan, Laudion

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Aretxabaletak (15 puntu) aurrealdeko postuetatik gertu jarraitzen du eguaztenean Laudion batutako hiru puntuei esker.

Etxetik kanpora ezusteko bat bestearen atzetik ematen dabil-tza Aretxabaletako mutilak, eta orain, etxean dute erronka: zale-

en aurrean kanpoan bezala jokatuta eta ate aurrean eraginkorrak izan. Eguazteneko partiduan txukun ibili zen UDA. Lehenengo zatian etxekeok estutu zuten gehiago, baina UDAk ondo eutsi zion. Eta bigarren zatian Oinatzek eman zuen kolpe erabakigarria. Zelaira irten eta bost minu-

tura, kontraeraso bat ederto amaitu zuen, Jorge atezaina gaindituz (0-1).

ZALLA, DOMEKAN

Oraingo domekan (16:30) Aretxabaletak laugarren postuan dagoen Zalla hartuko du, kategoriko beste oilar bat. Aurrekontu handiarekin egindako taldea da Zalla, baina oraingoan, euren etxean bakarrik erakutsi dute aparteko sendotasuna.

OHOREZKO ERREGIONALA

Oraingo asteburuan etxetik kanpora jokatu dute Mondrak, Aloñak eta Bergarak.

Aloña Mendik Andoainera egingo du bidaia domeka arratsaldean (16:30), Euskaldunaren kontra jokatzera. Bergara, berriz, Pasai Antxora joango da zapatuan Trintxerperen kontra jokatzera (17:00), eta Mondrak Hernani izango du aurrean, zapatuan (16:30), Zubipe futbol zelaian.

FUTBOLA > HARROBIAREN HITZARMENA

Bergarak barkatu egin dio Realari diru-zorra

Debagoieneko gainerako futbol elkarteek ez dute ekimen horren berri izan

XABIER URTZELAI > BERGARA

Badiolaren zuzendaritzapean Real zorretan geratu zen Gipuzkoako gainontzeko klubekin, talde txuri-urdinak ez zien-eta ordaindu harrobi lana egitearren jaso beharreko ordainsaria. Ondoren etorri zen lege konkurtsala, eta baita zuzendaritza aldaketa ere. Orain bestelakoa da egoera, baina Realaren ekonomiak larri segitzen du, eta Gipuz-

koako hainbat taldek keinu polita izan dute: Realak eurekin zuen zorra barkatzea, hain justu.

Guztira, hamalau taldek hartu dute erabaki hori; tartean, ibarreko ordezkari bakarrak, Bergarak: "Kobratzekotan ere, hiru urte barru hasiko ginen kobratzen zor zaigun kopurua, eta, gainera, Realak 40 urtetan ordainduko liguke zor diguna", adierazi dio Bergarako presidente Pedro Ricok GOIENKARIAri. Realak 10.000 euro pasatxo zor dizkio talde mahoneroari, eta kopuru hori jasotzeko pasa behar duten urteak ikusita, Bergarak zorra barkatzea erabaki du: "Keinu txiki horiek mesede handia egiten diotelako Realari".

BESTEAK EZ DUTE BERRIRIK IZAN

Gainontzeko klubek, baina, ez dute ekimen horren berri izan, eta albiste horren berri komunikabideen bitartez izan dutela onartu dute, besteak beste, Mondrako eta Aloñako presidentek. Hain zuzen, Gipuzkoako federazioko hauteskundeetan Barriusoren alde egin zutenek egindako ekimena izan da zorra barkatzearena, eta ez dute ekimen hori Larrearen alde egin zutenekin partekatatu.

Kontuak kontu, ibarreko taldeen artean harremana oso ona bada ere, badirudi Gipuzkoako beste talde batzuen artean oraindik errezeloa dagoela. Eta horrek ez dio onik egiten ez Realari, eta ezta Gipuzkoako futbolari ere.



Edu Orgaz jokalariei aginduak ematen, Corazonistas talde gasteiztarraren kontrako partiduen une batean. JOSETXO ARANTZABAL

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Lider dauden Barakaldo eta Ford Mugarri Arrasate aurrez aurre domekan

Edu Orgazen mutilak geraezin bilakatu dira, orain arte jokatuak partidu guztiak irabazita

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Arrasateko eskubaloitzaileak ezin hobeto hasi du Euskadiko Txapelketako liga. Orgazek orain dela aste gutxi aitortu zion GOIENKARIAri aurten taldea ezin dela kategoriari eustearekin konformatu, gauzak ondo eginez gero lehenengo bost taldeen artean egoteko gauza direla. Arrasateko taldeko entrenatzailea motz

geratu zen aurreikuspenetan, Arrasateko dagoeneko lider daudelako jokatuak lau partiduak irabazita, Barakaldorekin batera. Baina bai, liga luzea da.

Pena da kategoriari bi oilarren arteko lehia ez dutela Iturripen jokatu, Barakaldon baizik (domeka, 12:30, Lasasarre kiroldegia). Ford Mugarriekin batera Barakaldok ere ez du bakarra bar-

katu. Bizkaitarrak beterean dira kategorian horretan, eta jokalarien sendotasunean oinarritzen dute jokoak.

ASTEBURU LUZEARI ETEKIN ONA

Saillkapenean aurrean egoteko Ford Mugarri joan den asteburuan egin zuen aurrerapauso galanta. Zapatuan Basauriren kantzara egin zuten bidaia (24-32) eta astelehenean, kategoriar iritsi berri den Usurbili zortzi goleko errentarekin irabazi zioten (35-27). Markagailuek ondo irabazitako partiduak izan zirela erakusten badute ere, garaipena eskuratzeko bi norgehiagoketan ondo estutu behar izan zuten Arrasateko mutilek; kategorian horretan opari gutxi izaten diren seinale. Barakaldo euren kantzaxan mendean hartzeak uste baino balio handiagoa izango luke.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila

Levante-Reala
Domeka. 17:00. Valentzia.

Hirugarren maila

Aretxabaleta-Zalla
Domeka. 16:30. Ibarra.

Gazteen liga nazionala

Sestao River-Aretxabaleta
Zapatua. 17:30. Sestao.

Gazteen euskal liga

Bergara-Amorebieta
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

Ohorezko erregiona maila

Euskalduna-Aloña Mendi
Domeka. 16:30. Allurralde.
Trintxerpe-Bergara
Zapatua. 17:00. Don Bosco.
Hernani-Mondra
Zapatua. 16:30. Zubipe.

Erregional preferentea

Antzuola-Getariako
Zapatua. 16:00. Estala.
Aretxabaleta B-Zestoa
Zapatua. 17:45. Ibarra.

Lehen erregionala

Gazteak-LDA Arizmendi
Zapatua. 15:30. Unbe.
Mondra-Eibartarrak
Zapatua. 18:00. Mojategi.
Bergara-Urki
Zapatua. 17:30. Ipintza.

Gazteen ohorezko maila

Mondra-Beasain
Zapatua. 16:00. Mojategi.
Aloña Mendi-Aurrera Ond.
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Gazteen lehen maila

Urki-Bergara
Domeka. 15:30. Unbe.
Aretx. Arizmendi-Arizmendi
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Ohorezko kadeteak

Aretx. Arizmendi-Zumaia
Zapatua. 12:00. Ibarra.
Aloña Mendi-Eibar
Zapatua. 11:15. Azkoagain.
Beasain-Bergara
Zapatua. 18:00. Beasain.

Kadete gizonzkoak

Arizmendi-Elgoibar
Zapatua. 11:00. Almen.
Urki-Aloña Mendi
Domeka. 17:30. Unbe.
Bergara-Eibartarrak
Domeka. 17:00. Ipintza.
Aretxabaleta-Arrasate
Zapatua. 10:00. Ibarra.

Infantil ohorezko maila

Iliintxa-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Bikuña.
Bergara-Aretx. Arizmendi
Domeka. 11:30. Ipintza.
Arrasate-Lagun Onak
Zapatua. 11:00. Mojategi.

Infantil maila, partaidetza

Aitzgorri-Leintz Eskola Kir.
Domeka. 11:00. Segura.

Infantil txikiak

Beasain-Bergara
Zapatua. 16:00. Beasain.
Aretx. Arizm.-Eibar B
Domeka. 11:30. Ibarra.
Lagun Onak-Arrasate
Domeka. 11:30. Azpeitia.

Infantil txikiak, partaidet.

Aloña Mendi-Eibartarrak
Domeka. 11:30. Azkoagain.
Anaitasuna-Bergara
Domeka. 10:15. Mintxeta.

Emakumezkoen liga

Aloña Mendi-Eibar B
Zapatua. 16:30. Azkoagain.
Mondra-Bergara
Domeka. 16:00. Mojategi.

Emakumezk. F11 kadeteak

Zumaia-Mondra
Zapatua. 11:00. Zumaia.
Lagun Onak-Arizmendi
Zapatua. 13:15. Garmendipe.

Emakumezk. F8 kadeteak

Aloña Mendi-Amaikak Bat
Domeka. 10:00. Azkoagain.
Bergara-Ordizia
Zapatua. 11:30. Ipintza.

SASKIBALOIA

Lehenengo maila

MU-Ardoi
Zapatua. 18:00. Iturripe.

Senior autonomikoa

Aloña Mendi-UPV Alava
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Gipuz. senior gizonzkoak

Oiartzun-Soraluce BKE
Zapatua. 18:45. Oiartzun.
Soraluce BKE B-MU
Domeka. 17:15. Labegaraite.
Baloncesto-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Ipurua.

Gazte gizonzkoak, erren.

MU A-Easo Basoa
Zapatua. 10:00. Musakola.

Gazte gizonzkoak, partai.

MU B-Carnicas San Marcial
Domeka. 11:45. Musakola.
Krafft Atco-Aloña Mendi
Zapatua. 09:00. Donostia
Krafft Atco-Soraluce BKE
Zapatua. 12:30. Donostia.

Gazte emakumezkoak

Eskoriatza-Zarautz
Zapatua. 16:00. Intxaurtxu.

Kadete gizonzkoak

Easo A-MU A
Zapatua. 16:00. Donostia.

Kadete gizon. partaidetza

Soraluce BKE-MU B
Domeka. 10:30. Bergara.

Kadete emakumezkoak

Eskoriatza-Soraluce BKE
Zapatua. 16:00. Intxaurtxu.
Aloña Mendi-Arizmendi Esk.
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

Infantil gizonzkoak

Zast Lizardi-LEK Ointxe
Zapatua. 16:45. Zarautz.
Aloña Mendi-Salleko
Zapatua. 11:45. Zubikoa.
TAKE Oria-LEK
Zapatua. 10:30. Tolosa.

Infantil emakumezkoak

LEK Arrasate-Ambolo
Zapatua. 10:30. Musakola.
Soraluce BKE-Uz-Goierrri
Zapatua. 12:00. Mariaren.
LEK Eskoriatza-BKL
Zapatua. 12:00. Musakola.

ESKUBALOIA

Euskadiko seniorrak
Barakaldo-Ford Mugarri
Domeka. 12:30. Lasasarre.

Euskadiko gazte mailako emakumezkoak

Verkol Aloña-Bera Bera
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Euskadiko kadete mailako emakumezkoak

Verkol Aloña-Bera Bera
Zapatua. 16:30. Zubikoa.

Lehen territorial maila

Donibane-Aloña Mendi
Zapatua. 18:45. Paisai Do.
Irungo gazt.-Soraluce BKE
Zapatua. 16:00. Artaleku.

Bigarren territorial maila

Arrasate-Donibane
Zapatua. 17:30. Musakola.

Gazte mailako gizonzko.

Bergara Soralu-Aloña Mendi
Domeka. 12:15. Labegaraite.

Gazte mailako emakum.

Jauja-Bergara Soraluce
Zapatua. 16:00. Mutriku.
Citroen Chapime Ar.-Pulpo
Zapatua. 16:00. Musakola.

Kadete gizonzkoak

Arrate-Talleres Chapime Ar.
Zapatua. 17:00. Ipurua.
Legazpi-Berezoa Aloña Me.
Domeka. 09:45. Bikuña.
Leizaran-Bergara Soraluce
Domeka. 11:30. Andoain.

Kadete emakumezkoak

Ereintza-Verkol Aloña
Domeka. 10:15. Pasaia.

PILOTA

Eskoriatzan

Gaur. 19:00etan hasita:
Eskoriatza-Zumaia
Eskoriatza-Ataun
Eskoriatza-Azkoitiko.

Elgetan

Gaur. 19:15ean
Ozkarbi-Aurrera Saiaz2
Ozkarbi2-Tartaloetxel.

Bergaran

Gaur. 20:00etan hasita
Bergara-Hernani
Bergara-Aurrera Saiaz.

Arrasaten

Zapatua. 10:30.
Arrasateko1-Erniopie
Arrasateko2-Oiarpe
Arrasateko-Lizardi Igeldo.

Aretxabaletan

Zapatua. 16:30.
Aretxabaleta-Eibar
Aretxabaleta-Hernani
Aretxabaleta-Oiarpe

XAKEA

Arrasate Hiria torneoa
Gaur. 19:00. Altamiran.

MENDI BIZIKLETA

Arrasateko mendi
bizikleta martxa
Zapatua. 10:00. Musakola.

Eskoriatzako mendi bizikleta martxa

Domeka. 09:00. Plazan.



Mondrako eta Bergarako neskek derbia jokatu dute

Domekan (16:00) jokatu dute Mojategin Mondrako eta Bergarako neskek Gipuzkoako Ligako lehenengo derbia.



> GOSE
Talde arrasatearra, Japoniara, gorri koloreko disko berriarekin > 32



> MUSIKA
Des-kontrolak disko berria aterako du azaroan > 33

> EDURNE URTEAGA
ETEOn, Zuzendaritza Idazkaritza ikasketak egiten ari zela, Turismo Bulegoan hasi zen praktikak egiten. Realzale amorratua da > 34



'Handitzen, handitzen' jaten ikasteko liburua

TXIKIEI Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarrak txikiei zuzendutako liburua atera du

ERREZETAK 'Handitzen, handitzen' liburuan etxean erabiltzeko moduko 200 errezeta batu ditu

OHITURAK Ahal den neurrian etxeko ohiturak hobetzen laguntzea da liburuaren helburuetako bat

EDU MENDIBIL > BERGARA

Handitzen, handitzen izenburuko liburua aurkeztu du Amaia Diaz de Monasterioguren dietista nutrizionista oñatiarrak. Gaur, egubakoitza, goizean egitekoa zen aurkezpena, Donostiako Elkar aretoan, eta egilearekin batera, Mugaritz jatetxeko Leire Etxaide sukaldariak eta Idoia Arozena editoreak hartu behar zuten parte.

Ibilbide luzea dauka Diaz de Monasterioguren. Iruñean ikasketak egin ondoren, hamabi urte dira lanean hasi zela. Era berean, hainbat komunikabiderek kolaboratu izan du azken urteotan, besteak beste Euskadi Irratiarekin eta Goiena Telebistarekin, Orain gutxira arte GOITBko *Zaharrak berri* saioan elikaduraren gaineko gomendioak plazaratu ditu oñatiarrak.

Gaur aurkeztutako liburuan, Diaz de Monasterioguren etxeko txikiei zuzendutako 200 errezeta batu ditu. Haren hitzetan, "txikitatik ongi jaten ikastea funtsezkoa da etorkizunera begira, eta hori azpimarratzen saiatu

gara. Izan ere, garapen fisiko eta psikikoaren oinarrietako bat elikadura da eta etxean erabiltzeko moduko errezetak jaso ditugu: barazkiak eta entsaladak, lapikoak, arrozak eta pastak... Dieta begetarianotara jo dugu gehienbat, arraina eta haragia alde batera utzita. Beti ere, umeen kasuan plateren aurkezpenak garrantzi handia dauka eta irudimena erabiltzea lagungarri izan daiteke, bistara erakargarri ez den jakiren bat modu ezberdin baten aurkeztuz. Batzutan aspertu egiten gara modu berdinean jaten eta ahal den neurrian hori saihestu behar da. Ni ez naiz sukaldaria eta errezeta ideiak ematen ditut, besterik ez. Eta etxeko ohiturak hobetzen laguntzen badugu, askoz hobeto".

Elikaduraren abenturan murgiltzeko, gida atsegin eta praktikoa osatu du. Esan bezala, elikadurari buruzko gomendioak eta 200 errezeta goxo eta osasungarri eskura jarri ditu. Liburua 25 eurotan izango da salgai; gaztelaraz eta frantsesez ere atera dute.



"Gaurko haurrek txartoago jaten dute eta elikaduran oreka topatzea ezinbesteko da"

Haurren elikadura betitik aintzakotzat hartu du Diaz de Monasterioguren; "asko gustatzen zait beraiekin lan egitea. Urte mordoak noa eskolekin kolaboratzen. Jaten duguna garelako eta txikitatik elikadurarekin kontaktua izatea garrantzitsua delako; jakiak nondik datozen, zapore, egitura eta usaiekin gozatzen jakin...". Oreka topatzea ezinbestekoa dela dio: "Gaurko haurrek txartoago jaten dute; ume gizen gehiago dago, besteak beste, sukalde lanari behar beste denbora eskaintzen ez diogulako. Umeei noizean behin txokolata ematea ez dago gaizki, baina fruta eta barazkiak ere jan behar dituzte". Errezetak jasotzeko, sukaldari ari diren lagunengana eta baita ere familiarengana jo du. Aipatutako errezetak Xabi Landaren eta Maika Garciaren argazkiekin lagunduta datoz.



Amaia Diaz de Monasterioguren dietista nutrizionista oñatiarra.

ARTXIBOA

ELKAR



Bengoa, Osoron eta Ines Osinaga, astelehenean Bilboko Los Incomprendidos elkartean egindako aurkezpen kontzertuan.

KAP PRODUKZIOAK

MUSIKA > DISKOAREN AUZKEZPENA

Bost kontzertu egingo ditu Gosek Japonian

Hirukote arrasatearrak astelehenean aurkeztu zuen Bilboko Los Incomprendidos gastronomia elkartean gorri koloreko diskoa

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Arrasateko Gose taldeak astelehenean aurkeztu zuen gorri koloreko diskoa Bilboko Los Incomprendidos gastronomia elkartean. Lagunez inguratu ziren. "Ez zaizkigu aurkezpen hotzak gustatzen. Aurretik arropa denda baten eta sex-shop baten egin genituen aurkezpenak", esan digu taldeko kidea Ines Osinagak.

Lagunartean aurkeztu ondoren, lehen bost kontzertuak Japonian egingo dituzte urriaren 31tik azaroaren 3ra arte. Ondoren, Espainian, Donostian eta Bilbon egingo dituzte zuzenekoak. Urteko azkena Arrasateko gaztetxean egingo dute, abenduaren 26an.

Goseren hirugarren diskoa taldekideen "sukalde lanaren" emaitza da, eta, aurrekoetan ez bezala, ez dute diskoetxe bat atzean izan. "Abestiak sortzen hasi ginenetik diskoaren diseinuare-



Goseren disko berriaren azala.

ESANAK

"Guk ekoiztako diskoa da hasieratik bukaerara; horregatik oso berezia da guretzako"

Ines Osinaga > Gose taldeko kidea

ELGETAKO II. PINTXO LEHIAKETA

Urriak 18, domeka

10:00: Plazatik, irteera gaztetxoendako perretxikoak biltzera.

11:30: Plazan, **perretxiko erakusketa.**

12:30: ELGETAKLIK lehiaketaren **argazki irabazleen erakusketa** plazan. Tabernetan argazki lehiaketaren argazkiak ikusgai. Espaloia Kafe Antzokian argazki guztien proiektzioa.

13:00: Elgetako II. pintxo lehiaketa. Pintxoen erakusketa plazan.

Pintxoak: 1€ tabernetan
Non: HAIZEA tabernan, BOLA TOKI tabernan, OSTATU jatetxean, IÑAKI jatetxean, PATXI tabernan, ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN eta HOTELAN (6. ZENTZUMENA)

13:30: Pintxo lehiaketaren sari banaketa. TXAPELA.
Epaimahaikideak: OZKARBI, INTXORTA eta MENDI MENDIAN ELKARTEETAKO ORDEZKARIAK.

14:00: Babajana 15 €. **Herriko tabernetan.**

Goizean zehar elgetako trikitilariak arituko dira.

Patxi Taberna
Salbador kalea Elgeta
Tel.: 660 20 19 93

Haizea Taberna
Salbador 5 • Elgeta
Tel.: 943 76 82 56

Seigarren Zentzumena jatetxea
Elgeta hotela
San Roke 26 • Elgeta
Tel.: 617 03 39 89

BOLA TOKI taberna
Artekale 4
943 76 82 84
Elgeta

Elgetako Udala
Turismo saila

ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA
Maala 2 • Elgeta
Tel.: 943 78 90 85

OSTATU
Gudarien bidea 4 • Elgeta
943 76 80 23

IÑAKI
Jatetxea
San Roke 2 • Elgeta
Tel.: 943 76 82 83

MUSIKA > DES-KONTROL

Des-kontrol arrasatearren hirugarren diskoa, azaro erdialderako kalean

'Aurrera begira' izenburuko diskoan 13 kantu batu dituzte; abenduaren 5ean Durangoko Plateruena Kafe Antzokian joko dute arrasatearrek

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Des-kontrol talde arrasatearrak diskoa kaleratuko du azaroaren erdialderako. Iraupen luze hiru hirugarren lana izango dena *labean* dago jadanik; grabazioa Azkarate estudioetan egin dute uztailetik hona eta azken ukituak baino ez dira falta.

LAU SAIO

Hain zuzen ere, lau saiotan burutu dute grabazioa Nafarroako Azkarate estudioetan, eta, Des-kontrol taldeko kideek aurreratu dutenez, *Aurrera begira* izango da diskoaren izenburua. 13 abesti batu dituzte; tartean, diskoari izenburua ematen diona, kan-



Des-Kontrol taldeko kideak.

GOIENKARIA

tu akustiko bat eta Maritxu Kajoiaren bertsio bat. Des-kontrol taldeko kideek ekoiztutako lana da eta, aurrekoetan bezala, Baga-

Biga diskoetxeak editatuko du disko berria.

Esan bezala, Arrasateko hirugarren disko luzea izango

da. Aurretik, *Behin eta berriz* (2001) eta *Duintasunez eutsi!* (2006) diskoak etorri ziren, eta beste formatu bateko beste hainbat lan;

besteak beste, taldearen 10. urteurrena ospatzeko 2007an argitaratutako bilduma. Dagoeneko ibilbide luze taldea da Des-kontrol, hain eta hemen jarraitzaile ugari dituena.

Oraindik ez dute zehaztu zein egunetan kaleratuko den diskoa, baina azaroaren 14aren bueltan izan daiteke. Egun horretan zuzenean emanaldia egingo dute Iparaldean, Azkainen. Era berean, Durangoko azokan ere ez dute hutsik egingo arrasatearrek. Abenduaren 5ean joko dute Plateruena Kafe Antzokian eta egun horretarako eszenografia berezia prestatuko dute. Aurretik, baina, *etxean*, lagunaren aurrean joko dute. Azaroaren 7ko Ikasle Egunerako iragarrita dago Des-kontrol Arrasaten; hain zuzen, Ikasle Egunerako kantua egin dute.

NAFARROA OINEZ-EN

Oraingo domekan, berriz, Nafarroa Oinez jaialdian izango dira Des-kontrol taldekoak. Domekan Nafarroako ikastolen aldeko jaian joko dute, 20:00etan. Ez da Nafarroa Oinez-en jotzen duten lehen aldia.

ARRASATEKOBASERRIKO PRODUKTUENAZOKA

09:00 - 14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

Urriak 17

Azaroak 21



Edurne Urteaga > Oñatiko Turismo Bulegoko langilea eta Realzalea

"Bost urterekin hasi nintzen partiduak ikusten; orain Real zale amorratua naiz"

Edurne Urteagaren aurpegia ezaguna da Oñatin. ETEOn, Zuzendaritza Idazkaritza ikasketegiten arizela, Turismo Bulegoan hasi zen praktikak egiten eta ordutik hona han dihardu lanean. Lanaz gain, futbolzalea eta, bereziki, Realzale "amorratua" dela aitortu digu. Horren harira, jakinarazi digu laster bazkide egiteko asmoa duela, partiduak ikusteko.

MIRIAN BITERI > OÑATI

Oporretan harrapatu dugu Edurne Urteaga 25 urteko oñatiarra. Udan lanean jardun ostean, asteon merezitako oporrak hartu ditu. Herrian topatu dugu eta tartetxo bat atera du dituen zaletasunak azaltzeko.

Oñatiko Turismo Bulegoan egiten duzu lan. Zure bizitzako lana?

Espero dut; oso gustura nago zeregin horretan. 2003an hasi nintzen han. Zuzendaritza Idazkaritzarekin lotutako praktikak egiten hasi nintzen, lehen eta hiru garren mailakoak. Ordutik hona, aldizka ibili naiz lanean.

Oñatiko Turismo Bulegoan lan eginda, udalerriko txoko guztiak ezagutuko dituzu. Zein duzu zuk gustukoena? Zer gomendatuko zenioke bulego-ara sartzen denari?

Zaila da toki bakarra aipatzea; dena aipatuko nioke. Unibertsitatea, esaterako, berezia da, Euskal Herriko lehena izan zen eta. Artea gustuko duenari eliza bisitatzeko gomendioa egingo nioke. Niri, elizan dagoen kriptatxo asko gustatzen zait; baita Arrikruz eta Arantzazun eta Oñatiko ingurunean dauden mendiak ere.

Bidaiatzea gustuko omen duzu... Are gehiago, bidaiak guztietatik, Irlandarekin txundituta geratu zinela badakit...

Bai, hala da. Dagoeneko bitan egon naiz Irlandan. Behin, lanean egon nintzen eta bigarren, berriz, lagun batekin oporretan.

Zein izan da egin duzun azken bidaiak?

Nebarekin egin dudana; Eskoziara eta Londresera. Ingurune hori oso gustuko dut.

Buruan daukazun hurrengoa, hortaz, eremu hartara izango da?


Oraindik ez dut pentsatu. Hurrengo oporretan erabakiko dut nora joan.

Futbolzalea ere bazara...

Bai; Realzalea. Txikitatik gusatu izan zait futbola, aitarekin joaten nintzen Aloña Mendi ikustera. 5 urte nituenean hasi nintzen partiduak ikusten eta orain Realzale amorratua naiz.

Aurten, behingoz, Realak lehenengo maila igotzea lortuko duela uste duzu?

Espero dut. Taldea, behintzat, ondo ikusten dut. Gustuko



MIRIAN BITERI

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 25 urte. **Ikasketak:** Zuzendaritza Idazkaritza. **Zaletasunak:** Zinema, musika eta futbola. **Gorrotatzen duzu ezer?** Komunikabideetan entzuten ditudan gezurak. **Bertuterik bai?** Memoria ona daukat. **Liburu bat:** *El señor de los anillos*.

Abesti bat: Blur taldearen *Universal*. **Musika estilo bat:** Momentuaren araberakoa. **Bidaiatzeko toki bat:** Irlanda, bitan egon naiz han. **Bizi izateko:** Oñati. **Bizitzarako lelo bat:** *Carpe Diem* edo *Save water, drink beer*.

ditut aurten dauden jokalariek; batzuek taldea utzi badute ere, futbolari gehienak taldean mantendu dituzte, eta hori ondo dago. Gainera, gehienak etxeok dira, harrobikoak. Hortaz, lehenengo mailara igotzea lortzeko aukera dutela iruditzen zait.

Partiduak ikustera joaten diren horietakoa zara...

Orain, gutxitan joaten naiz. Baina bazkide egin nahi dut; modu horretan, Anotara partiduak ikustera joan ahalko naiz.

Kirol jarduerarik praktikatzen duzu...

Egia esan, ez askorik. Mendia gustatzen bazait ere, ez naiz oso mendizalea. Bisitariei ingurune mendien gaineko gomendioak ematera mugatzen naiz.

ETBko telesail ezagunena eta,aldi berean, luzeena ere ikusten duzu: *Goenkale*. Noiztik jarraitzen duzu?

Ikusi, telesaila emititzen hasi zirenetik ikusten dut. Etxean apustua egiten dut aitarekin. Horko pertsonaiekin gertatu behar dena asmatzen saiatzen gara; hain justu ere, pasarteak asmatzen ditugu.

Zer dauka telesail horrek horrenbeste urtez irauteko?

Gure kasuan, ikusten jarraitzen dugu ez dugulako bestelakorik topatu telebistan; horrenbesteraino erakartzen gaituena, behintzat. Etxean telebista bakarra dago eta, hortaz, batzuetan derrigorrez ikusi behar izaten dugu. Dena den, beste batzuetan gustura ikusten dut.

Ez naiz aspertzen. Gainera, aitarekin dudana apustu moduko horrek erakargarriagoa egiten du. Baina bestelakorik ere ikusten dut; esaterako, oso gustuko dut *Perdidos* telesaila.

Reala eta *Goenkale*-z gain, zer beste zaletasun dituzu?

Zinema eta irakurtzea gustuko dut. *The Hobbit* ingelesezko bertsoan askotan irakurtzen hasten banaiz ere, oraindik ez dut lortu guztia irakurtzea. Bestalde, musikazalea ere banaiz. Aretxabaletan, Loquilloren kontzertuan izan nintzen eta oso pozik irten nintzen handik.

Kontzertua hitza aipatu duzu. Zein talde edo abeslari ikusiko zenuke gustura?

Bon Jovirena. Garai batean, oso gustuko izan nuen talde hori.



Ino Galparsoro Arrasateko alkatea izango da lehen gonbidatua.

GOIENKARIA

'Alkateak zuzenean' saioa hasiko da berriz hilaren 22an

Ikus-entzuleek lau bide izango dituzte euren galderak alkateari egiteko zuzenean

OIHANA ELORTZA > ARRASATE
Alkateak zuzenean izeneko programa berriz hasiko da GOITBn. Hilaren 22an izango da lehen programa, datorren egunean, eta Ino Galparsoro Arrasateko alkatea izango da lehen gonbidatua. Eneko Azkarate eta Arritxu Barruso kazetarien galderak

erantzun beharko dituzte alkateek, baina baita ikus-entzuleek zuzenean egingo dituztenak ere, bide hauetako edozein erabilita: telefonoz (943 25 05 03), Skype bidez (*goienatelebista*), Facebook sare soziala erabiliz (*www.facebook.com/goitb*) edo mezu bat bidaliz helbide honetara: *goitb@goiena.com*. Erostarbe, Barruso, Idoiaga, Agirre, Iturbe, Garro, Lasagabaster eta Villar etorriko dira gero, hurrez hurren.

GOITB, 'Alkateak zuzenean'
> Eguena, 19:45

TELEBISTA

Bertsolari txapelketa jarraituko du GOITBk

Txapelketako saioak emango ditu eguenetan, 'Puntuz puntu' programan

O.E. > ARRASATE

Euskal Herriko bertsolari txapelketako saio batzuk emango dituzte GOITBn astero, datorren eguenetik aurrera. Tokiko telebistekin batera ekoiztuko ditu saio horiek Goiena Telebistak. Iñaki Apatategik egingo ditu aurkezle eta kazetari lanak eta lehen programa datorren egunean, urriak 22, eskainiko dute, 22:15ean.

ORDU ERDIKO SAIOAK

Tokiko telebistak heltzen diren eremuetan egingo dituzten bertso saioak emango ditu GOITBk. Saio bakoitzetik ordu erdiko bi programa aterako ditu. Abenduaren 13an BECen jokatuiko duten finalaren saioa, ordea, ezberdina izango da, berezia.

Puntuz puntu izeneko bertso programako lehen atalean, Bilbon egindako emanaldiko bertsoak emango dituzte. Asier Otamendi, Iñaki Zelaia, Maddalen Arzallus, Jesux Mari Irazu, Julio Soto eta Amaia Agirre bertsolariek egin zuten bertsoan Arriaga antzokian, eta haiek botatako bertso sorta bat eskainiko dute GOITBn egunean.

GOITB, 'Puntuz puntu'
> Eguena, 22:15

Disko eta sarrera zozketa

O.E. > ARRASATE

Mikel Urdangarinen azken diskoaren beste zozketa bat egingo dute Arrasate Irratian datorren astean. Lehen zozketak arrakasta handia izan du eta bigarrena egitea erabaki dute esatariek, zornotzarren lan berriaren ale gehiago zozketatuz. Horrez gain, Maria del Mar Bonet abeslariak hilaren 24an Amaia antzokian emango duen kontzerturako sarrerak ere zozketatuko dituzte entzuleen artean.

Arrasate Irratia, 'Igo autobusera'

> Aste barruan, 10:30



GOIENKARIA

Euskal Herriko dantza solteko txapelketa

Dantza solteko Euskal Herriko txapelketa emango du oso-osorik GOITBk. Seguran izan zen txapelketa hori hilaren 11n eta 14 bikotek egin zuten dantza txapela eskuratzeko. Irabazlea Bergarako Aitzol Enak eta Maite Lazkanok ostaturatuko bikotea izan zen.

'Dantza solteko txapelketa' > Zapateria, 14:30. > Domeka, 21:45

arrasate irratia

FM 107.7

Zapateria

10:00 Asteko gainbegiratua.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Uda Giroan

Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...
Astearen errepassoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*))

12:05 Euskadi Irratiko albistegia

12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak

13:00 Euskadi Irratiko albistegia.

14:00 Uda Giroan

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

astea GOITBn

Egubakoitza, 16	Zapateria, 17	Domeka, 18	Astelehena, 19	Martitzena, 20	Eguaztena, 21	Eguena, 22
13:15 Marrazki bizidunak	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Barrebusa.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.	10:30 Barrebusa.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.
14:15 Eltze beroa.	11:30 Kantari.	11:30 28 klip.	14:15 Eltze beroa.	14:15 On Ein.	14:15 Udazken loreak.	14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.	14:00 Elkartasun bideak.	12:00 Erloklip	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Elkartasun bideak.	14:30 Dantza solte txapelketa.	12:30 Ikusmira.	15:15 Sakonduz.	15:10 Harmailatik.	15:10 Ilunpean.	15:15 Gipuzkoa kultura.
15:45 Ur eta lur.	15:00 GipuzkoaKultura.	13:00 Erreportajea.	15:45 Ikusmira.	15:50 Ikusten.	15:50 Sakonduz.	15:45 Kalekantoï.
16:15 Ikusten.	15:30 Barrebusa.	13:45 Solaskide.	16:15 28 Klip.	16:20 Itsasoari begira.	16:20 28 Klip.	16:15 Ikusmira.
16:45 Berriak.	16:30 Marrazki bizidunak.	14:15 Eltze beroa.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.	18:00 Wazemak.	15:45 Kantari.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Ilunpean.	18:30 Solaskide.	18:15 Barrebusa.	17:45 Kalekantoï.	17:35 Wazemank.	17:35 Harmailatik.	18:00 Sakonduz.
18:45 Berriak.	19:00 Ikusmira.	19:15 Erreportajea.	18:15 Ilunpean.	18:15 Gipuzkoakultura.	18:15 Ur eta lur.	18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.	19:30 Ur eta lur .	19:45 Solaskide.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.	20:00 Erreportajea.	20:15 Wazemank.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.	20:30 Golb tb.	21:15 Ur eta lur.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.	21:00 Ikusten.	21:45 Dantza solte txapelketa.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.	21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Erreportajea.	21:30 Ilunpean.	22:45 GipuzkoaKultura.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Puntuz Puntu.
22:45 Ilunpean.	22:15 Solaskide.	23:15 Ilunpean.	22:15 Harmailatik.	22:15 Ilunpean.	22:15 GipuzkoaKultura.	22:45 Erreportajea.
23:45 GipuzkoaKultura.	23:30 Wazemank.	00:00 Itsasora begira.	23:00 Gipuzkoakultura.	23:00 Wazemank.	23:00 Kalekantoï.	23:20 Itsasoari begira
00:45 Emisio amaiera.	00:30 28 klip.	00:30 Emisio amaiera.	23:30 Goiena Magazinea.	23:30 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.
	01:00 Emisio amaiera.		00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. Prezio negoziagarria. 659 64 67 38

Bergara. Alde zaharrea etxebizitza salgai. Bi logela. Berritua eta jantzita. 605 73 37 39.

La Mongie (Frantzia). Apartamentua salgai. Eskiatzeko pistetan bertan, logela literarekin, komuna, sukalde-egongela ohe-sofarekin eta terraza pistetara begira. Trastelekua eta garajea ere baditu. 80.000 €. 629 32 84 53.

Oñati. Kale Zaharrea etxebizitza salgai. Bilogela, sukalde, egongela, trastelekua eta komuna. Kanpoaldera begira. Ia berria. Saltzeko prest. 230.000 euro. 606 24 21 21.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Urriburu kalean. Unibertsitate ondoan. Sukaldea, komuna eta hiru gela. Guztia kanpora begira. 652 71 16 20 edo 943 79 81 63

Luz Saint Sauveur. Etxebizitza ematen da errentan eski denboraldirako. Deitu 670 49 84 28 telefono zenbakira.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarki iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera utzerik ere.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com | http://www.goiena.net/sailkatuak

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.

Iragarki partikularren astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Oñati. Apartamentua ematen da errentan. Bilogelakoa. Bikote batentzat aproposa. Deitu 20:00ak eta 22:30ak bitartean. 699 78 47 49 telefonora

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzita. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta

egongela. 675 euro. Deitu 645 71 98 84 telefonora.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Logela bateko apartamentua alokatuko genuke Arrasaten. Egoera onean ego-

tea ezinbestekoa izango da. 658 74 82 17.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan. 270 €. Deitu 618 00 08 28 telefonora.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garaje itxia salgai Santakruz 25-27an. Deitu 630 46 36 71 zenbakira.

Arrasate. Garaje itxia salgai Usaetxe plazan. 686 02 56 56

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Garajea errentan hartuko nuke. 679 62 69 64.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Pertsona behar dugu urtebeteko haurra goizez zaintzeko (08:00etatik 10:00-11:00ak arte). Deitu 17:00etatik aurrera. 607 57 73 73.

402. ESKAERAK

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). 618 00 08 28 edo 943 79 82 43.

Arrasate. Neska euskalduna eguerdian etxe zein atariak garbitzeko prest. 663 04 53 99.

Arrasate. Umeak zaindu edo garbiketarako egongo nituzke. 649 30 13 60.

Bergara eta Arrasate. Gidabaimena duen mutila atariak gar-

bitu, elkarrekar garbitu edo beste edozein lan egiteko gertu. 685 70 76 25.

Bergara. Neska beragarra gertu etxeak garbitu, nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. 943 53 29 18.

Debagoiena. 30 urteko gaztea gertu lanerako. Geriatzia laguntzaile titulua daukat. Beste edozein lanetan aritzeko ere prest egongo nintzateke. Orduetegi arazo barik. 685 70 76 25.

Debagoiena. Antzeko lanetan esperientzia duen emakumezko batek lan egingo luke helduak zein umeak zainitzen. Orduetegi malgua eta lanerako prestutasuna. 669 02 91 30.

Debagoiena. Emakume arduratsua arratsalde edo aste buketan pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 697 93 73 32.

Debagoiena. Emakumea edozein lan egiteko prest. Socorro Mora Soria. 627 14 63 79.

Debagoiena. Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luis de los Santos. 671 27 78 36.

Debagoiena. Esperientziadun emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Etxean beran ere biziko nintzateke. Bost urte daramatzat hemen eta legezko papearak daukat. 646 78 81 40.

Debagoiena. Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxe lanak egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informa ditut. 671 35 22 60.

Debagoiena. Garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko gertu nago. Eli Cerezo. 630 20 12 03.

Debagoiena. Instalazio elektrikorako eta mantenturako lanak egiteko gertu egongo nintzateke. Elektrikaria naiz, teknikari komertziala. Javi. 669 49 83 24 edo 680 30 30 52.

Debagoiena. Iturgin laguntzaile lanak egingo nituzke. Magno Alberto. 600 76 43 14.

Debagoiena. Lau urteko esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bizitzen ere bai. 626 78 22 95.

Debagoiena. Mutil esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizitzen. Gauze ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. 648 06 84 71.

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: tabernan, garbiketarako lanetan, baserriko lanetan... 671 45 96 26.

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zainduko nituzke, orduka edo etxean bertan bizitzen. 680 30 24 64.

Debagoiena. Neska esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizitzen. Gauze ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. Deitu 660 37 20 47 zenbakira.

Debagoiena. Neska euskalduna gertu lan desberdinak egiteko: umeak zaindu, garbiketa lanak... Deitu 636 05 36 18 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska gertu ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Zerbitzari ere bai. 660 56 65 58.

Debagoiena. Ordenagailuak konpontzen ditut etxean bertan. 697 66 79 37.

Nagusiak zaindu. Neska euskalduna gertu goizetan pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 635 25 54 44 telefonora.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Arrasate. Neska euskalduna Lehen Hezkuntzako eskola partikularreko emateko prest. Eguerdian 663 04 53 99 telefono zenbakira deitu.

Bergara. LH, DBH eta batxilergo zientifikoa dituen neska euskalduna naiz. Orain Enpresari-tza ikasketak egiten ari naiz. Idurri. Deitu 676 25 22 22 edo 943 76 03 34 zenbakietara.

Ingelesko eskolak emango nituzke Bergaran. Maila guztiak, azterketetarako prestakuntza barne. Ingeles komertzialean esperientzia dut. 618 91 32 89.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Citroen Xsara 1.9 D salgai. 1998koa. 166.000km. Oso egoera onean. 1.200 euro. Deitu 629 15 79 29 telefonora

Honda Varadero motorra salgai. 1.000 cc. 2006koa. 10.000 km. Deitu 615 76 49 14 telefono zenbakira.

Peugeot 206 autoa salgai. 7 urte dauka. Oso prezio onean. Deitu 699 57 43 51 telefonora.

BERGARA

BERGARAKO industrialdean PABILIOIA ERRENTAN. 1.000 m². Tarteko solairuan 120 metro koadro bulego eta zerbitzuetarako. Instalazioa eginda dago. 630 96 71 00

Toyota Previa monobolumena salgai. 7 plaza. Oso ondo zainduta. 650 40 25 66.

Viano Marco Polo 2.2 CDI, 1502P, 2004koa, 155.000km, gris kolorekoa. Jatorrizko Westfalia ekipamendua eta extra askorekin. 29.000 euro. Deitu 609 26 40 41 telefonora.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Kanarioak salgai. Interesatuak deitu zenbaki honetara eta galdetu Mikelengatik. 635 75 54 53.

Lau umbi salduko nituzke. Deitu 17:30etik aurrera. Deitu 665 74 91 27 telefonora.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Altzariak salgai. Etxe aldaketagatik. Egongela, bikote logela, ordenagailu mahaia eta Fagor etxe etxetresnak. Denak batera (prezio hobean) zein bana-bana. Oheretan. Informazioa eta argazkiak: *mikel muebles @live.com*. 943 00 23 11.

Masaje aparailu. Hankak urarekin masajeatzeko aparailu elektrikoak salgai. 608 36 26 07.

Patinetea. Umeen karrorako patinete unibertsala salgai. 650 96 23 08.

Routerra. Haririk gabeko routerra salgai. Telefoniko Amper Zyklerarekin batera. 608 36 26 07.

Stokke kuma eta mini-kuma moldagarria salgai; 2 koltxoi, eltxo-sarea eta izarak barne. O hilabetetik 5-6 urtera arte moldatzen da, egoera oso onean. Prezioa 330 euro. 639 02 02 75 edo 943 76 55 88.

9/ HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Oñati-Gasteiz. Egunero Oñatitik Gasteizera joaten naiz. Lakuan lan egiten dut. Norbaiti autoa konpartitzea interesatuz gero, deitu 635 20 33 14 telefono zenbakira.

bono fotoa




Urkila mendilerroa igoz gero handik ere Arabako lautada ederki ikus daiteke. Mendi tontor honetan aurkituko duzue menhir ikusgarri hau. Nola ezagutzen da mendi tontor hau?

Argazkia eta galdera > Jose Fernandez

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Aramaioko **Montse Hernando**. Zorionak!
Erantzun zuzena: Antzuolakoak.



Garmendia Ardoek emandako **Ardo botila packa*** zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileen artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa botila bat. Larchago beltz berezia botila bat. Larchago kriantza botila bat.

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK
HERRIA TELEFONOA.....

ULMA

ULMA Taldeko Sustapen Zentroaren kooperaba berriak, txertatutako sistemen ingeniartza gidatzeko bokazioa duenak, honakoak behar ditu:

TXERTATUTAKO SOFTWARE INGENIARIA
TXERTATUTAKO HARDWARE INGENIARIA

SW eta HW-aren diseinuan, kodifikatzean, egiaztatzean eta mantentze lanetan jarduteko lantaldean parte har dezan, hauxe eskatzen da:

- Arlo hauetan formazio tekniko osatuta izatea: elektronika, informatika edo antzekoak.
- Ezagutzak eta esperientzia eskaintzea txertatutako sistemen eta denbora errealeko aplikazioen garapenean.
- Ingeles maila handia.

Hautatuaren ezaugarriak:

- Proiektu desberdinetan parte hartzeko ardura.
- Jarrera ekintzailea negozio teknologiko berri bat garatzeko, talde lanean arin eta modu dinamikoan jardunez.
- Teknologiaren ikuspegi praktikoa baten bidez lan egin nahi izatea.

Lantalde oso kualifikatuan parte hartzea eskaintzen da; ordainsaria eskaintako ezagutzen eta esperientziaren arabera izango da.

Bidali curriculuma helbide honetara:
ULMA Taldea, Giza Baliabideen Saila. PK 22, 20560 Oñati



Olatz Manuel eta **Jon Gurutz Alberdi** urriaren 10ean ezkondu ziren Antzuolan. Etxe-Aundin ospatu eta bidaian, safaria Kenyan eta Zanzibarren relaxa egingo dute. Zorionak eta eskerrik asko, lagunak eta familiakoen partetik. Afrikatik bufalo baten burua ekarri!



Ainhoa Umerez oñatiarra eta **Urko Egaña** azpeitiarra bihar, zapatua, Santa Lutzia-ko ermitan ezkonduko dira. Gero, Etxe-Aundi jatetxean egingo dute bazkaria. Egun zoragarria izan dezazuela opa dizuzte koadrilakoek eta familiakoek. Ondo ibili eztei-bidaian!



Marilu Azurmendi Irizar eta **Satur Guridi Mendizabal** ezkondu zirela zapatuan bete ziren 50 urte. Urrezko ezteietan, zorionak, eta patxo handi bana, biloben eta seme-alaben partetik. Animo, jefa!



Oñatiko **Daniel Fuentes** eta Arrasateko **Laura Gartzia** urriaren 17an ezkonduko dira Arantzazun. Ondoren, Zumaia-ko Marina Berri jatetxean ospatuko dute lagunekin eta familiarekin; eta bidaian Argentina eta Brasilerara joango dira. Zorionak, lagunak partetik.



ESKER ONA

Jaio Ugarte Urrutia

Aramaion hil zen 2009ko urriaren 8an, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Aramaion, 2009ko urriaren 16an.

ESKER ONA

Juanito Garate Unzetabarrenetxea

Bergaran hil zen 2009ko urriaren 5an, 96 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Urak dakarrena urak darama, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.



Bergaran, 2009ko urriaren 16an.

ESKELA

Julian Uribe-Etxebarria Galdos

Rufina Belokiren alarguna

Eskoriatzan hil zen 2009ko urriaren 15ean, 96 urte zituela.

Bere seme-alabak: Jose eta Arantza, Iñaki eta Maite, Miren, Josu eta Ana; bilobak: Nagore eta Ruben, Maider, Maite, Oxel eta Iñaki; birloha: Enaitz; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren aldeko hileta elizkizuna gaur, egubakoitza, 19:00etan, Eskoriatzako Pedro Deunaren parrokian.



Bertaratuko zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Remigio Agirrezabalaga Pradera

Donostian hil zen 2009ko irailaren 30ean, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko urriaren 16an.

ESKER ONA

Juan Jose Ibarluzea Larrañaga

Donostian hil zen 2009ko urriaren 9an, 69 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2009ko urriaren 16an.

ESKELA

Mikel Zelaia Yarza

'Pintxe'

Oñatin hil zen 2008ko urriaren 18an, 37 urte zituela.

Zure lagunek ez zaitugu ahazten.



Atxandere.
Oñatin, 2009ko urriaren 16an.

URTEURRENA

Rosarito Letamendi Zelaia

Hirugarren urteurreneko meza zapatuan, urriaren 17an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

Beti topatzen zenuen barre egiteko arrazoiren bat eta horrela gogoratuko zaitugu, irrifarrez.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Mikel Odriozola Igartua

Oñatin hil zen 2005eko urriaren 17an, 50 urte zituela.

Laster arte ezpainetan utzi gaituzu penetan orain gure ametsetan bizirik zaudete benetan zeruko izarretan eta gure bihotzetan.



Etxekoak.
Oñatin, 2009ko urriaren 16an.

URTEURRENA

Mikel Zelaia Yarza

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 18an, 12:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Bizitza deitzen den ipuin hontan ibili gara zurekin, alaitasuna izan da izata maiztasuna etekin, gure eredu bihur zaitezten egingo dugu ahalegin, mundu hobe bat lortu nahi dugu nahiz ta zaila dela jakin, urte hauetan guk zureganetik ikasita oarekin.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Luis Irizar Balzategi

Lehen urteurreneko meza, zapatuan, urriaren 17an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Urtebete pasau da gure ondok fan zinanetik, domeketan Arantzazu jadanik eztago zurelako lagunartetik, Aizkirrin sartu zittuen arbolak irauten daue bizirik, maiztasunez zaittuko ditugu guk eta datozenak atzetik, noizbait alkartuko gurien itzaropenarekin, jakin gure bihotzian egongo zariela beti.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Agustin Urrutia Zubizarreta

Seigarren urteurreneko meza domekan, urriaren 18an, 11:30ean, Aretxabaletako Ama Jasokundearen parrokian ospatuko da.

Emazteak, seme-alabek, familiak eta lagunek ez zaitugu ahazten.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Manoli Ubierna Imaz

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 18an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Urriak 16-23

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Musika



ESKORIATZA

> Bikustik bikotearen emanaldia gaur Eskoriatzan eta bihar Arrasaten

Jon Gurrutxaga (ahotsa eta gitarra laguntzailea) eta Patxi Zabaleta (gitarra eta koroak) dira Bikustik. Rockaren klasikoak modu akustikoan ekarriko dituzte. Gaur, Inkernun, 22:45ean eta bihar, zapatua, Arrasateko Gure Lekun, 23:00etan.

Antzerkia




ARRASATE

> Ron Lala taldearen 'Mundo y final' antzezlan domekan Amaian

Musika eta umorea uztartzen dituen antzezlan, Ron Lala taldearen eskutik (*Mi misterio del interior* ekarri zuten aurretik). Munduaren amaiera modu dibertigarrian lantzen dute antzezlaneko bost aktoreek. Domekan, 19:30ean, Amaia antzokian.

Erakusketa



OÑATI

> Gorka Salmeron argazkilaria erakusketa kultura etxean ikusgai

Ilunpetan argazki taldeak antolatuta, Gorka Salmeron argazki legazpiarren *Erretratuak* erakusketa ikusgai dago Oñatiko kultura etxean. Azaroaren 6ra arte izango da zabalik, egunero, 18:00etatik 20:00etara.

dutako ikastaroa da. Urriaren 26an, 14:00etatik 17:00etara. Era berean, ostalarien zuzendutako beste ikastaro bat izango da urriaren 28an eta 29an, 16:00etatik 19:00etara. Argibideak 943 53 33 03 telefonoan.

ARRASATE

> Hastapen mailako joskintza

Urriaren 19tik azaroaren 18ra, Itsaso Del Rey irakaslearekin. Ekin Emakumeak eta Bizikasiren eskutik.

Argibideak eta izenematea 943 79 83 70 eta 651 707 936 telefono zenbakietan.

ARETXABALETA

> Dantza afrokaribearrak Jaiki elkartearen eskutik

Martitzenero, 18:30etik 20:00etara, Aretxabaleta kuartel zaharrean. Abendura arte. Plaza mugatuak.

Izenematea 653 70 50 68 zenbakian edo jaikielkarte@yahoo.es helbidean.

Musika

BERGARA

> Cyrill Schmiedlin organo-jole suitzarraren emanaldia bihar

Organo erromantikoaren zikloaren barruan.

Bihar, zapatua, San Pedroko parrokiari, 20:00etan.

ARETXABALETA

> Jose Antonio Labordetaren emanaldia, bertan behera

Zaragozako abeslaria gaixorik dago eta zaturako iragarrita zegoen emanaldia bertan behera geratu da.

dion erakusketa. Guztira, 30 koadro batu dituzte Aroztegin; horietako batzuk lan ezezagunak, gainera

Aroztegi aretoan, urriaren 18ra arte. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta jaiegunetan, goizez bakarrik.

BERGARA

> Martin Garmendiaren margolanak Nahikarin

Dozena bat koadro ikusgai jarri ditu Martin Garmendia bergararrak.

Nahikari tabernan, urriaren bukaerara arte.

BERGARA

> Argazki erakusketa Gure Ametsa elkarte

Benito Cantero eta Agustin Gurrutxagaren argazkiak.

San Antonioko Gure Ametsa elkarte, urriaren 18ra arte.

ARRASATE

> 'Reuters, munduari begira' Kulturaten

Mundu zabalean ateratako argazkiak dira, testuen laguntzaz hainbat gatazkaren berri ematen dutenak.

Kulturaten, urriaren 18ra arte. Asteburuan 17:30etik 20:30era zabalik.

Ikastaroak

ARRASATE

> Dantza garaikideko ikastaroa Arrasate Musikalen

Eskolak astelehenetan eta eguaztenetan, 20:00etatik 21:00etara.

Izena emateko epea urriaren bukaerara arte izango da zabalik, Monterron jauregian, asteburuan, 16:00etatik 20:00etara.

OÑATI

> Elikagaien erabiltzaile ikastaroa

Bereziki dendariei zuzen-

BERGARA/ARRASATE

> Mendekotasuna duten adinekoen zaintza ikastaroa

Azaroak 3, 5, 10 eta 12, 15:30etik 18:30era Bergaran; eta Arrasaten azaroak 16, 18, 23 eta 25, 15:30etik 18:30era.

Argibide gehiago 943 76 93 94 telefonoan (Miren) edo info@bizikasi.com helbidean.

BERGARA

> Pintura eta marrazketa ikastaroa haurrendako

Bearten lokalean 5-16 urte bitartekoandako pintura eta marrazketa ikastaroak.

Antzerkia

ARETXABALETA

> 'Yo prota-agonizo' antzezlan gaur gauean

Ester Bellver aktorearekin. Gaur, egubakoitza, Zariaia aretoan, 22:00etan. Sarrerak, 8 eurotan.

ARETXABALETA

> 'Martingala', Gari, Montxo eta Joselontxorekin

Bereziki haurrei zuzendutako pailazo ikuskizuna.

Domekan, hilak 18, 17:00etan Zariaia aretoan. Sarrerak, 3 eurotan.

Erakusketak

ARETXABALETA

> 'Pertsonaien erakusketa: madarikatuak eta apartekoak'

Urriaren 31ra arte. Aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Zapatuetan 11:00etatik 13:00etara.

BERGARA

> Simon Arrietaren gaineko erakusketa Aroztegin

Simon Arrieta margolari bergararraren (1915-1969) lanari gainbegiratu egiten



BERGARA

> Inoren Ero Ni eta Erantzun gaztetxean bihar

Inoren Ero Ni taldeak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Bergarako gaztetxean. Nolabait esateko, BAP! taldearen *errautsetatik* orain dela bost urte sortutako taldea da Inoren Ero Ni. Andoaindarrek *Fosbury* izenburuko diskoa aurkeztuko dute bihar Bergaran. Haien aurretik, Zarauzko Erantzun hardcore taldeak joko du. Abiadura, amorrua eta zarata dira haien ezaugarrietako batzuk.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 23:00etan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

Ordutegia: Astelehenetan itxita. Asteartetik ostiralera 10:00-19:00 eta asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00.

ERAKUSKETA IRAUNKORRA: 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimendu eta objektuen manipulazioa erabiliz

PLANETARIUM BERRIA

Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta. 12:00 (eusk.), 13:00 (gazt.), 15:30 (fran.), 17:00 (eusk.) eta 18:00 (gazt.)

Donostiatik zerura begira: Zuzeneko saioa.

Itsua izar begiekin: Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.

Biziaren jatorria: Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.

Infinity Express: Unibertsoa eta Eguzki Sistemaren zehar bidaia.

Kartoizko suziaren sekretua: Haurrei zuzendutako saioa.

Eboluzioa: Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu.

ANIMAZIO, IKUSKIZUN ETA ERAKUSTALDIAK...

Elektrizitate ikuskizuna: Ilek puntan jarriko dizkizun esperientzia ahaztezinaz

Fakirren ohea: Milaka iltzez osatutako ohe baten gainean etzan nahi al duzu?

1, 2, 3 ... Matematika!:

Matematikarekin ere jolas egin daiteke!

Zinema: Haurrei eskulan baten bidez, zinemaren printzipioa azalduko diegu.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramón.org

Astelehenetan 17:00etatik
19:30era edo zapatuetan
10:00etatik 13:00etara.
Argibideak 653 71 53 82 (Mayra) eta
635 71 32 69 (Maite) telefono zenbakietan.

BERGARA
> **Oinarrizko jostintza ikastaroa Bizikasiren eskutik**
Azaroaren 2tik 13ra,
astelehenetik egubakoitzera,
10:00etatik 12:00etara.
Argibide gehiago 943 76 93 94
telefonoan (Miren) edo info@bizikasi.com
helbidea

ARRASATE
> **Hastapen mailako jostintza tailerra**
Nork bere baserritar
jantzia egiten ikasiko du eta,
bidez batez, patrioiak egin,
patrioiak moztu eta josten ika-
siko du, gure kulturen murgil-
duz. Urriaren 19tik aurrera.
Ekin Emakumeek elkarkidetzatza
bultzatzeko antolatuta.
Izenematea 943 79 83 70 edo 651 70
79 36 zenbakietan.

Hitzaldiak

BERGARA
> **'Zahartze aktiboa' hitzaldia gaur, egubakoitza**
Zahartze aktiboa, bizitzan
zehar, ongizate fisikoa, psiki-
koa eta soziala izateko aukerak
aprobetxatzea da. Nagusila-
nek, Bizikasik eta Bergarako
Udalak antolatuta.
Gaur, egubakoitza, Miguel Altuna
instituituan, 18:00etan.

OÑATI
> **'Haurrak eta heriotza' hitzaldia egunean**

Nola lagundu heriotzak
dakarren galeraren aurrean.
Horren gainean jardungo du
Patxi Izagirre adituak.
Urriaren 22an, 18:30ean, Elkar Hezi
Ikastetxeko Haur eta Lehen Hezkuntzako
eraikineko liburutegian.

Lehiaketak

BERGARA
> **Film laburren lehiaketa**
Debagoienean bizi den
edozeinek har dezake parte.
400 euro irabazlearentzat, 300
euro bigarren sarirako eta 150
euro bergarar onenari.
Lanak jasotzeko epea azaroaren 2ra
arte zabalik. Argibideak: 943 77 91 58.

DEBAGOIENA
> **Txatxilipurdiren gazteendako argazki lehiaketa**
Arrasate, Aretxabaleta,
Eskoriatza eta Zaldibarko gaz-
teleku eta gazte txokoen arte-
an. 12-17 urte bitarteko gazteek
parte hartu ahal izango dute.
Argazkiak urriaren 30a baino lehen
aurkeztu beharko dira. Argibideak 943 79
54 46 telefono zenbakian.

ANTZUOLA
> **XV. Argazki lehiaketa**
Antzuolan jaio edo bizi den
edozeinek parte har dezake.
Lanak jasotzeko epea urriaren
30era arte dago zabalik.
Argibideak Antzuolako udaletxean, 943
76 62 46 zenbakian.



Agora **

Zuzendaria: Alejandro Amenabar.
Aktoreak: Rachel Weisz, Max Minghe-
lla, Oscar Isaac. Espainia, 2009. 141 min.

Alejandro Amenabarrek
zineman egindako bidea
jarraituz gero, gizon
ausarta dela eta ikuslearekin
konektatzen jakin izan duela
ikus daiteke. Oso gazte zene-
an, *Tesis* filmatu zuen eta egun
batetik bestera oso ezagun
egin zen. *Thriller*-arekin
jarraituz, horri puntu konple-
xuago bat eman nahi izan zion,
Abre los ojos eginez, eta
hurrengo pausoa ingelesez eta
zinemako izar batekin, Nico-
le Kidmanekin, filmatzea izan
zen: *Los otros*. Gero, *Mar aden-
tro* egin zuen eta orain, inge-
lesez filmatutako ekoizpen
handi batekin, *Agora*-rekin,
ausartu izan da. Espainia mail-
lan hasi eta bere mugak zabal-
du ditu, munduko ikusleen
arreta eskuratu nahian. Eta
hori ondo baino hobeto lortu
du. Lehenbiziko astean ikus-
le pila bat joan da *Agora* ikus-
tera. Filmak alde ekonomiko-
tik arrakasta handia izan badu
ere, alde artistikoari dagokio-
nez, bide erdian geratzen da.

Egipton, 391. urtean koka-
tzen da filma. Honek suposa-
tzen du diru pila bat behar dela
garai hartako bizitza, giroa eta
eraikinak jasotzeko. Eta era-
bilitako dirua ondo nabari-
tzen da irudietan. Zuzendariak
plano zenital ugari erabiltzen
ditu kaleak, eraikinak eta kon-
tratututako jende pila erakus-
teko. Alde horretatik argi dago
ekoizpen ikusgarria lortzeko
lan handia egin dela, baina
Amenabarrek ez du ikusgarri-
tasunean bakarrik geratu
nahi eta filmari mezua sartu
nahi izan dio: istorioan zehar
emakumeek izan dituzten tra-
bak, erlijioen alde fanatikoak...
Baina, esan bezala, bide erdian
geratzen da. *Agora*-k ez du
funtzionatzen entretenimen-
dusko film moduan; nahiko
planoa da, azkeneko partean
zerbait gora egiten badu ez du
bizitasunik ezta indar epiko
eta dramatikorik. Eta edukia-
ri dagokionez, ez du sakonta-
sunik: ez du denbora luzerik
erabiltzen agertzen diren
gaiak edo ideia filosofikoak
lantzeko. Egoerak eta pertso-
nariak nahiko eskematikoak
dira eta horrela zaila da film
on bat lortzea.

Antonio Zabala

Zinema

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Malditos bastardos
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Kika superbruja y el libro de los hechizos
Zapatua: 17:00.
25 kilates
Eguena: 20:30.

ARETXABAETA

ZARAIA

Bienvenidos al norte
Eguena: 19:30.

OÑATI

KULTUR ETXEA

Enemigos públicos
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

La pantera rosa 2

Zapatua eta domeka:
17:00.

The visitor

Eguena: 20:00.

BERGARA

ZABALOTEGI

Revolutionary Road
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

El valiente

Despereaux
Zapatua eta domeka:
17:00.

Honeydripper Blues Bar

Eguena: 20:00.

GAZTETXEA

El caballero oscuro

Domeka: 18:00.

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA

G-Force
Zapatua eta domeka:
17:00.
La cruda realidad
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

COLISEO 1

La cruda realidad
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.
Desgracia
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

COLISEO 2

Mapa de los sonidos de Tokio
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30,
22:30.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

GURIDI

Agora
17:15, 20:00, 22:30.
Malditos bastardos
18:45, 22:00.
Vicky el vikingo
17:00.
Yo, también
17:30, 20:00, 22:30.
La cruda realidad
17:00, 18:45, 20:35, 22:30.
G-Force
17:00, 18:45, 20:35.
Rec 2
17:00, 18:45, 20:35, 22:30.

La huérfana

17:30, 20:00, 22:30.

Zorion perfektua

22:30.

Egubakoitzetik domekara.

FLORIDA-GURIDI

Checkpoint rock

18:00, 20:15, 22:30.

The frost

17:30, 20:00, 22:30.

Vicky el vikingo

17:30 (euskaraz).

Moon

18:40, 20:30, 22:30.

New York, I love you

18:00, 20:15, 22:30.

Si la cosa funciona

17:00, 18:45, 20:35, 22:30,
22:30.

Katyn

18:00, 20:15, 22:30.

El secreto de sus ojos

17:30, 20:00, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

YELMO CINEPLEX

Oceanworld

(3-D emanaldiak)

23:30 (egubakoitzean eta
zapatuan); 21:30 (dome-
katik egunera).

G-Force

(3-D emanaldiak)

15:30, 17:30, 19:30, 21:30
(egubakoitzean eta zapa-
tuan); 15:30, 17:30, 19:30
(domekan).

La cruda realidad

16:10 (zapatuan eta
domekan), 18:10, 20:10,
22:10, 00:10.

La huérfana

15:35 (zapatuan eta dome-
kan), 17:50, 20:10, 22:30,
00:45.

Yo, también

16:25 (zapatuan eta
domekan), 18:25, 20:25,
22:25, 00:25.

Infectedos

16:45 (zapatuan eta
domekan), 18:30, 20:15,
22:00, 23:45.

Txori urdin

16:15 (zapatuan eta
domekan), 18:15.

G-Force

16:00, 18:00, 20:00.

Agora

15:30, 17:40, 20:00, 22:25,
00:50.

Up

15:45 (zapatuan eta
domekan), 17:45.

Los sustitutos

20:30, 22:30, 00:30.

Malditos bastardos

17:00 (zapatuan eta
domekan), 18:30, 20:00,
21:30, 23:00, 00:30.

Rec 2

17:30, 19:00, 20:40, 22:00,
00:00.

Vicky el vikingo

16:20 (zapatuan eta
domekan), 18:20, 20:20.

Si la cosa funciona

20:15, 22:15, 00:15.

Jennifer's body

15:30 (zapatuan eta
domekan).

Gordos

16:00 (zapatuan eta
domekan), 18:15.

Los hombres que no amaban a las mujeres

21:45, 00:30.

Pequeños invasores

16:30 (zapatuan eta
domekan).

El secreto de sus ojos

19:45, 22:05, 00:25.

District 9

22:20, 00:40.

Urriaren 16tik 22ra.
Gauerdiko emanaldiak
egubakoitzean eta zapa-
tuan.



Malditos bastardos

Zuzendaria: Quentin Tarantino. AEB, 2009. 165 minutu.

II. Munduko Gerratean kokatu du Quentin Tarantino bere azken filma. Naziek Frantzia okupatu dute, eta Shosanna Dreyfusen ikusi du familia nola hil dioten. Shosannak ihes egingo du Parisera, eta zinema areto bateko arduradun hasiko da, beste izen batekin. Bien bitartean, soldadu juduekin osatutako taldea osatuko du Aldo Raineek, naziei aurre egiteko asmoz...

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

Transformers 2

AEB, 2009. Zuzendaria: Michael Bay.

Bi urte pasatu dira Sam Witwicket unibertsoa salbatu zuenetik. Hala ere, Samek beste gazteek dituzten arazo berak ditu. Ezustean, abentura berriak izango ditu. Shia LaBeouf, Megan Fox eta John Turturro aktoreekin.

San Valentin sangriento

AEB, 2009. Zuzendaria: Patrick Lussier.

Jaioterrira itzuli da Tom, San Valentin egun batez gertaturiko sarraskiaren 10. urteurrenean. 1981ean estreinatutako filmaren remake hau hiru dimentsiotan ikus-
teko aukera dago Euskal Herriko zenbait aretotan. Jensen Ackles eta Jaime King aktoreak dira protagonista nagusiak.

District 9

Zeelanda Berria-Hego Afrika, 2009. Zuzendaria: Neill Bloomkamp.

Estralurtarren ontzi erraldoi batean Lur planetara helduko dira, Hegoafrikako Johannesburgo hirira, baina errefuxiatu gisa. Estralurtarrak kontzentrazio esparru moduko batean sartuko dituzte eta apart-
heid erregimena ezarriko diete.

Gordos

Espainia, 2009. Zuzendaria: Daniel Sanchez Arevalo.

Irautearen inguruko komedia koral bat da Daniel Sanchez Arevaloren (*Azuloscurocasinegro*) azken filma. Gizentasun arazoekin obsesionatuta dauden lagun batzuk dira protagonista. Antonio de la Torre, Raul Arevalo eta Roberto Enriquez aktoreekin.

Ponyo en el acantilado

Japonia, 2007. Zuzendaria: Hayao Miyazaki.

Sasuke bost urteko umearen eta Ponyo arrainaren arteko harremana kontatzen du Hayao Miyazakiren (*El viaje de Chihiro*) marrazki bizidunetako film honek. Gizaki bihurtzea da Ponyoren ametsa...

Hotel Woodstock

AEB, 2009. Zuzendaria: Ang Lee.

1969. urtea da. Elliotek gurasoen hotela bere gain hartuko du, negozi-
zia hondoratzen ari denean. Aldameneko herrian rock jaialdi bat egiteko baimena ez dutela eman entzungo du, eta antolatzaileei de-
tuko die, hotelaren ondoko zelaia eskaintzeko, baina ez du imajinatu ere egiten milioi erdi lagun batuko direla han hiru asteren buruan...

nire aukera



Jokin Antxia
Atzegi elkarteko
Debagoieneko arduraduna

Oraingo aste bukaeran, etxean

Atzegi elkarteko Debagoie-
neko arduraduna da
Jokin Antxia aretxaba-
letarra (52 urte). Coprecin
dihardu lanean eta, horrez
gain, kirolean ere ezaguna
da; izan ere, zazpi urtez izan
da UDA elkarteko presiden-
tea, bi etapa ezberdinetan.
Oraindik ere gertutik jarrai-
tzen ditu UDAko taldeak.

Bi seme-alaba dauzkate,
Martin eta Katalin, biak ere
kanpoan ikasten, Madrilen
eta Triesten, hurrenez hurren.
Hain zuzen ere, aurreko aste
bukaeran emaztearekin bate-
ra Madrilen izan zen Jokin
Antxia, semea bisitatzen. Odo-
la ematera zihoala hitz egin
genuen harekin, eguazten
arratsaldean. 34 urte darama
odol emaila.

Plan berezirik astebururako?

Hemen inguruan ibiliko gara...
Egubakoitzean afaria daukat
futboleko lagun zahar batzue-
kin, Apotzagako elkartearen, eta
zapatuan emaztearekin batera
mendi bueltatxo bat egingo
dugu. Gauean Labordetaren
kontzertura joateko asmoa
neukan, baina, antza, bertan
behera geratu da. Hurrengo
baten izan beharko... Dome-
kan, berriz, gaixo diren lagun
batzuei bisita egin goizean eta
arratsaldean futbolera, UDAk
Zallaren aurka jokatu duen
partidura.

Zelan ikusten duzu UDA?

Ondo hasi da eta garrantzitsua
da hori. Kostako zaio mailari
eustea, baina orain lortutako
puntuak ondo etorriko zaizkio
gerorako... Itxura ona hartzen
diot taldeari.

Perretxikotara irteten zara?

Zalea naiz, baina sasoi honetan
joaten naiz gutxi; azken
baten, jendez lepo egoten dira
bazterrak eta nahiago dut jende
gutxi dabilen lekuetan ibili.

Zertan zabiltzate Atzean?

Hurrengo zapatuan aterako
gara kalera, Aretxabaletan, diru
apur bat jasotzeko asmoz. Eta
azaroan film laburra egin nahi
dugu, duela bi urte bezala,
Donostiako jaialdiari begira.

Edu Mendibil

'Teknopolis', saiorik onena

SARIA Zientzia-dibulgazioaren Europako telebista-programa onenaren saria jaso berri du 'Teknopolis'-ek

DEBAGOIENDARRAK Arrasateko Maider Egües eta Bego Zubia, eta Antzuolako Beñar Kortabarria daude lantaldean

MUGAK ZABALDUZ Saioak atzerrian egiten diren gauzei ipinitako arreta azpimarratu dute saria ematerakoan

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Zientziarekiko jakin-mina izan ala ez izan, noizbait egon izan gara telebista aurrean Elhuyar fundazioak ekoizten duen zientziaren gaineko *Teknopolis* saioa ikusten. Bada, saio horrek zientzia-dibulgazioaren Europako telebista-programa onenaren saria jaso berri du.

European Science Foundationek antolatutako *European Media Awards 2009* sariak Alemanian, Hannoverren banatu dituzte asteon. Saria jasotzen izan dira Maider Egües *Teknopolis*-en zuzendari eta aurkezle arrasatearra, Beñar Kortabarria saioko erredaktore antzuolarra eta Elhuyar fundazioko zuzendari nagusi Itziar Nogerases. *Teknopolis*-en, Egüesek eta Kortabariak gain, bada beste debagoiendarrik: Bego Zubia arrasatearrak erredaktore lanetan dihardu. Eta aurrez, saioan jardundakoa da Aretxabaletakoa Maria Agirre ere.

Maider Egüesek esan du garrantzitsua dela, eginiko lanaren errekonozimendua delako.

Bego Zubiaren esanetan, "zientzia da beste edozein alor baino zabalagoa; teknologiari, osasunari, ingurumenari... buruz jarduten dugu eta horrek ematen digu aukera gauza asko ikasteko".

Saria ematerakoan azpimarratu dute saioak gure mugetatik kanpo egiten diren gauzei ipinitako arreta. "Horretarako, kanpoan dauden euskaldunak topatzen saiatzen gara. Euskal herritar asko dago atzerriko ikerketa zentroetan lanean, eta guretzat informazio iturri zabala dira", esan digu Zubiak.

EGUAZTEN ETA DOMEKETAN

Teknopolis-ek 12 urte daramatza ETBko kateetan, eta saria jaso zuen egun berean eman zuten ETB3 katean denboraldi honetako lehen saioa. Eguazten eman go dute ETB3n 21:30ean eta domekeron ETB2n 11:00etan eta ETB1en 20:00etan. Saioaren edukia <http://teknopolis.elhuyar.org> helbidean ere kontsulta daitezke, eta hori izan da saioa saritzeko beste arrazoietakoa bat.



SARI BANAKETA Hannoverren jaso dute saria Maider Egüesek, Beñar Kortabariak eta Itziar Nogerasesek.

ELHUYAR

ahobero

"Modelo hezurtsuak kritikatzeko dituztenak dira ama lodi tipikoak"

Karl Lagerfeld > Joskina

Ama zein aita lodiak zein argalak, tipikoak zein ezohikoak denak izan daitezke horrelako kritikak egiten dituztenak, kritika denon ahotan dabilen gizartean muturreko egoerak kritikarako arrazoi dira-eta. Ez dira askoren gustuko ez jostun honen ezta bere modeloen itxura argala pasareletan eta erakusleho askotan ere du hori bultzatzen duten arren.

iturri onetik

Arrasaten azaroaren 7an izango den Ikasle Egunerako kantua egin du Des-kontrolak

Ikasle Abertzaleak taldeak Ikasle Eguna antolatzen duela badira hainbat urte, eta aurtengoan Arrasaten ospatuko dute. Azaroaren 7an izango da eta egun osorako egitaraua gertatu dute. Gauean kontzertuak ez dira faltako. Deskontrol musika talde arrasatearrak egin du Ikasle Egunerako kantua, eta hitzak Miren Amurizarenak dira. Aurkezpena gaur goizean egitekoa zen Arrasateko plazan.

piperrautsa

Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

Mahats ederra

Larunbatean bildu genuen aurtengo mahats uzta. Luzatu egin da heltze-sasoia, uda lehor/beroak besterik pentsarazten bazuen ere. Mahats ugari datorrenean ohikoa da berandutzea, mahats kargaren nekeak eraginda; aparte, iraileko euriteak eten egin zuen heltze-prozesua. Baina iritsi zen eguna eta txiripak eguraldi ezin hobea oparitu zigun lanerako.

Aurten ia 8.300 kilo mahats bildu dugu, eta hirugarrenez gaintu dugu 8 tonen maila. Emaitza oso ona da hektarea bakarrean eta 2.300 landarerekin lortzeko. Lan erditan biltzaileak harrotu ere egin ziren -mahats ederra esku artean- eta trabes ausartak entzun ziren, baina ez da errekorrik izan. Hori bai, inoizko mahatsik sanoena eta helduena eraman genuen upategira. Ederra benetan.

ai, ene!



Txakurrak ere segurtasun uhalarekin?

Badira autoak abisatzen dutenak segurtasun uhalak ipini ezean. Tamaina handiko animaliei uhalak jartzea, bueno, baina txikiei...

www.sarda.es



POLTSIKOKO EGUTEGIEN KANPAINA



- Aukeran:**
1. Gure katalogotik
 2. Zure argazkietatik
 3. ...

ESKATU KATALOGOEA!

Koloretan eta Plastifikatuta
500 ale 70€ • 1000 ale 100€

